

**2021EKO APIRILAREN 14KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 14 DE ABRIL DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo eta bigarren puntuak irakurri dauz: “COVID-19ak indarkeria matxistan izan duen eragina eta hartu beharreko neurriak.” eta “Indarkeria matxista pairatzen daben emakumezkoei zuzendutako arreta- eta babes-sistemea, erantzun osotasunezkoa, arina eta egokia emoteko, sendotzea.”	4
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	5
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	6
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	8
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	11
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	13
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	14
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	15
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Eliza Katolikoaren ondasunei egindako kontsignazio izendunak.”	16
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	16
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	18
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	22

- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	24
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	26
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	27
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	28
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	30
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	31
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Eskola Kirolean haurren kontrako sexu eraso eta abusuak saihesteko neurriak.”	32
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	35
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	36
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Euzko Abertzaleak taldeko Iturrioz Rementería batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	40
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	42
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Euzko Abertzaleak taldeko Iturrioz Rementería batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	44
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea.”	45

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	45
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	47
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	48
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	49
- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea	51
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	52
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	53
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	55
- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea	56
- Batzarra amaitu da.....	57

2021eko apirilaren 14ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 14 de abril de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señorías. Buenos días. Les ruego, por favor, que nos sentemos para dar comienzo a la Junta General. Señor Diputado General, apoderados, junteros y a todos los ciudadanos que van a seguir esta Asamblea General a través de streaming, buenos días. Bienvenidos, y gracias por acompañarnos.

Antes de empezar con el orden del día, un aviso. Sepan que el punto 4 ha sido retirado. Por tanto, para dar comienzo a la Junta General, debatiremos conjuntamente los puntos primero y segundo, que dicen así.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jauna: Buenos días. Bai, puntu bi daukaguz, alkarregaz tratauko doguzanak.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2020/0002114](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: El impacto que ha tenido la COVID-19 en la violencia machista y las medidas a implementar.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2020/0002114](#)),([R.E.11/E/2020/000281](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (104A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (104B)

Expediente: ([11/B/26/0001566](#))

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2021/0000839](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Reforzar el sistema de atención y protección integral, para mujeres víctimas de violencias machistas, que brinde una respuesta integral, ágil y adecuada.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2021/0000839](#)),([R.E.11/E/2021/0001](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2020/0002114SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: COVID-19ak indarkeria matxistan izan duen eragina eta hartu beharreko neurriak

Dokumentu **Nagusia:**
([11/E/2020/0002114SE](#)),([11/E/2020/0002281SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (104A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (104B)

Espedientea: ([11/B/26/0001566](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2021/0000839SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Gaia: Indarkeria matxista pairatzen dabenek emakumezkoen zuzendutako arreta- eta babes-sistemea, erantzun osotasunezkoa, arina eta egokia emoteko, sendotzea

Dokumentu **Nagusia:**
([11/E/2021/0000839SE](#)),([11/E/2021/0001017SE](#))

017)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (135A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (135B)

Expediente: [\(11/B/26/0002034\)](#)

)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (135A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (135B)

Espediente: [\(11/B/26/0002034\)](#)

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Empezaremos por la juntera que ha presentado la iniciativa. Para eso, tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias, y buenos días a todos. Y salud, libertad y repúblicas. En el orden del día de hoy... Es el día de la República, no sé si se han dado cuenta, por eso lo he dicho.

En los dos primeros puntos del orden del día de hoy, afortunadamente, parece que hay un consenso con los dos grupos del gobierno, vamos a llegar a un amplio consenso en el pleno de hoy. Entonces, yo creo que no es mala manera para empezar el día.

En esta iniciativa que presentamos hoy, decíamos que en este momento extraordinario en el que vivimos el estado de salud ha acaparado todos los focos. Y que esta crisis ha influido mucho en nuestra forma de vida. Las personas en situación de vulnerabilidad se han visto especialmente afectadas, entre ellas las víctimas de violencia machista.

El confinamiento produjo, por un lado, una alteración de las prestaciones de los servicios; y, por otro, puede producir consecuencias psicológicas y de otro tipo en mujeres y niños, cuyos procesos se vieron interrumpidos. Y, al mismo tiempo, en casa sufrieron diferentes tipos y manifestaciones de violencia. Ahora, creemos que es prioritario saber cómo afecta esta crisis a las mujeres en relación con la violencia machista. Y además creemos que es posible que la violencia machista aumente la necesidad de responder a casos más complejos en los que interactúa con otros elementos de exclusión o violencia.

En esta crisis, aumentarán otros tipos de violencia como la económica. Recordamos que, en el confinamiento, durante los meses de confinamiento, fueron asesinadas 4 mujeres en el País Vasco. En el día de hoy también queríamos recordar a estas cuatro mujeres. Esta realidad social es muy grave, que nos interpela a todos, y no podemos mirar hacia otro lado.

Las instituciones tenemos una responsabilidad especial en ello. Por eso, con motivo del día internacional contra la violencia machista, ya que esta propuesta la presentamos el 8 de octubre ante la proximidad del día internacional, presentamos esta propuesta o iniciativa de cara a adquirir compromisos concretos ese día, y solicitábamos a la Diputación tres puntos.

El primero, en colaboración con colectivos feministas y grupos de mujeres, realizar un estudio para conocer el impacto de la crisis de la Covid, como hemos dicho. En el segundo punto, en base a ese informe o a ese estudio, poner en marcha las medidas, programas, servicios necesarios para dar una atención adecuada a las mujeres y a sus hijos e hijas. Y, por último, en el tercer punto pedíamos que en el presupuesto aprobado de 2021 no se apliquen los recortes en las políticas de igualdad.

Cuando comenzó la legislatura, el grupo juntero de EH Bildu adquirimos tres compromisos relacionados con ello: el primero fue incorporar la perspectiva feminista a nuestras prácticas e iniciativas políticas; el segundo no aceptar recortes; y el tercero que buscaríamos acuerdos amplios para tomar medidas para hacer frente a la violencia machista.

Asumimos esos compromisos y en el ecuador de la legislatura, o nos estamos acercando, puedo decir que hemos cumplido esos compromisos. En las iniciativas que hemos presentado siempre hemos intentado alcanzar esos amplios acuerdos, y hay que decir que la actitud también de las mujeres representantes del partido Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista que representan al Gobierno, han facilitado el acuerdo para alcanzar esos amplios acuerdos. Eso también hay que reconocerlo y ponerlo en valor.

Esan dot ahalegindu garala, eta, gainera, lortu dogula, akordio zabalak egitea indarkeria matxistei emoten jaken erantzuna hobetzeko. Eta esan bezala, akordioei balioa emon behar jake. Egin dogun proposamenean esaten genduan garrantzitsua zala azterlan bat egitea Covidak emakumeengan daukan eraginari buruz, arreta-, prebentzino- eta erreparazino-ekintzak eta -programak diseinetako. Eta badakigu negoziazio guztietan, gainera, Ganbera honetan behin baino gehiagotan ikusi dogun moduan, danok amore emon behar dogula, eta kontzesino batzuk egin behar dirala. Eta negoziazio honetan be beste bat egin dogu, guretzat oso garrantzitsua dana eta beste Sail batzuetan edo beste eztabaida batzuetan errepikatu dana, ez soilik bardintasun-gaiekaz, gizarte-eragileen parte-hartzearena. Ekimen honetan guri gustauko jakun Covid dalakoaren inpaktuaren azterketa hau behetik gora modu horizontalagoan egitea, mobimentu feminista eta beste gizarte-eragile batzuk kontuan hartuta. Ezin izan da holan izan, baina badaukagu itxaropena, ze gainera, uste dogu Alderdi Sozialistaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkarien jarrerak, esan dodan moduan, erakutsi deuskuela hori, sakontzen jarraitu geinkela, beste gizarte-eragile horreekaz komunikazino- eta lan-kanalak zabalduko, esandako moduan.

Azterlan hori aurkeztea lortu dogu, Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan be partekatzea, Covidaren gairako berariazko lantalde horretan. Era berean, PSOeri eta EAJri jakinarazi deutsegun moduan, azterlan hori sakontzen jarraitzea gurako geunke, bai azterketa hori parte-hartzaileagoa izan daiten, bai horren ondoriozko ekintzak eta planak egin daitezkan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Duque Santacoloma. A continuación, es el turno del otro grupo que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias, señora presidenta. Buenos días.

Guk be aurkeztu dogu nire aurreko proposatzaileak aurkeztu dauen ildotik doan ekimen bat. Izan be, indarkeria matxistak babestu, indartu, aztertu eta halangoetan aurrera egiten jarraitzeko ekimenak onartu eta aurrera aterateak daukan garrantzia emakume askorentzat hil edo biziko kontua da.

Gaur eztabaidatzeko ekimen bat planteau dogu, eta, azkenean, akordio batera heldu gara Euzko Alderdi Jeltzaleagaz eta Alderdi Sozialistagaz. Ekimen horren helburua da indarkeria matxistaren biktima diran emakume guztiei eta euren ardurapeko adinez txikiei arreta eta babes hobea emotea, ze alarma-egoeraren ondorioz hartu diran neurriek ondino agiriago itxi dabe indarkeria matxistaren biktima diran emakumeek eta euren seme-alabek jasoten daben arreta- eta babes-mailen arteko aldeak, bizilekuaren arabera. Desbardintasun

horreek gehiago igarten dira herri txikiagoetan eta landa-eremuetan, Emakundek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz egin eban "Beharrak eta oztopoak identifiketako txostenean" adierazten dan moduan.

Txosten horretan hainbat esperientzia eta egoera kontetan dira, eta, nire ustez, interesgarria da eta garrantzitsua da horreetako batzuk entzutea, era honetako edo Duque andreak aurkeztutako ekimenetan aztertzen gabilzanetan daukan garrantzia ulertzeko.

Txosten honetan hainbat kontakizun aurkituko ditugu, adibidez emakume bat, kontetan gizarte-langileak, informazinoa emon eta baliabide espezializaturen batera bideratu beharrean, indarra kendu eutsala berak bizi eban egoerari. Holan dino: Herriko bardintasun-teknikariarengana joan nintzan, berak entzun eustan, gizarte-langilearengana bialdu ninduan, beragaz egon nintzen, baina aitutzen neutsan gauza bakotzeko berak pisua kentzen eutsan. Gero, bere bikote-harremanaz berbaz hasi jatan, eta aholkatu eustan nire bikotekideari afari bat egiteko kandela eta guzti, eta maitasun-gau baterako saioa egiteko.

56 urteko beste emakume batek kontetan dau bere alaba gizarte-zerbitzuetara joan zala amarentzako laguntza bila, eta gizarte-langileak, arduragabekeriaz jokatuta, ez eutsan behar eban laguntza emon, laguntza hori amak ez ebalu eskatu eta. Holan dino: nire alaba, 14 urtegaz, gizarte-laguntzailearen etxera joan zan, esanez aitak jo egiten ebalu, eta ama be joten ebalu. Jakina, ni jaitsi eta guzurra esan neutsan. Esan neutsan: zuk uste dozu nire senarrari ni joten itxiko deusadala? Gizarte langileak ez eban besterik ikertu, ez aztertu, bertan behera itxi eban. Lanean ikusten eben alkar, eta lanean emakume hori beste persona bat zan.

Beste emakume batzuek salatu dabe familiaren eta auzoen inplikaziorik eza. Horren errazoa da eremu batzuetan, batez be landa-eremuetan, ondino be errotuta dagoala indarkeria matxista gai pribatutzat jotea. Eta horren oinarria familiaren ikuspegia da, hau da, emakumeak bikoteari, familia-unidadeari eustera bideratuta dagoz, eta indarkeriazko harremana haustea porrottzat jotzen da.

Herri txikietan bizi garan emakumeok esaten danari be aurre egin behar deusagu. Begira. Datu bata baino ez dot emongo, indarkeria matxistagaitik egiten diran salaketan % 5 eta % 7 artean baino ez dira biktimen ingurukoek egindakoak. Zentzu horretan, 63 urteko emakume batek auzokoez ate atzean entzuteko daukien interesaren eta indarkeria horren aurrean gizarteak daukan inplikazino faltaren arteko kontrastea deskribatzen dau. Oso interesgarria da bere gogoeta, erasotzailearengan eragina euki leikelako jakiteak nork entzuten dauen baina ez dauen ezer egingo, ez dauen babestuko, ezta salaketarik egingo be.

Gaur egun gure lurraldeko hainbat lekutan gertatzen diran babesgabetasun-egoerak eta -esperientziak dira. Indarkeria matxistaren biktima diran emakume guztiek, euren seme-alabakaz batera, berme berberak euki behar dabez laguntzari, baliabideei eta babesari jagokenez, uztailearen 27/2003 Legean jasoten dan moduan. Halanda be, hori ez da beti beteten, eta hori gertatzen da, batez be, erakundeen arteko koordinazinoa ez dalako beti homogeneoa. Horren ondorioz, udalerrri batzuk ez dabilz arreta edo babes egokia emoten, eta gitxiago integrala, eta horrek arriskua dakar biktima diran emakumeentzat eta euren ardurapean dagozan adingabeentzat. Aitatu deusuedan txostenean adierazten dan moduan, erakunderik hurrenekoan edo oinarrizko zentroetan lehenengo harreman hori daukien persona batzuen enpatia eta ulermen gitxi igarten da; era berean, familia- eta auzo-ingurunezko pertsonen inplikazino txikia igarten dabe indarkeria matxistaren biktima diranak landa-eremuko udalerrietan bizi diranean, normalean herri txikiagoak izaten dira-ta.

Indarkeria matxisten arloko prestakuntza indartu eta eguneratu behar da, baita lehenengo lerroan dagozan profesionalek indarkeria horreek igarri edo detektetea be,

emakume biktimei aholkuak, informazinoa eta laguntza emoteko. Jasaten daben indarkeria-egoerari amaiera emoteko makina martxan jartzeko erabagi gogorra hartzen daben emakumeei.

Beraz, deskribatu ditudan egoerak zuzentzeko edo eragozteko, ekimen hau 3 puntu nagusigaz aurkeztu dogu: indarkeria matxisten arloan esku hartzen daben profesionalen kualifikazinoan sakontzeko eta biktimei eta bizirik atera diranei emoten jaken arreta hobetu beharra.

Beste bat litzateke Eudelen barruan erakundeen arteko koordinazinoa indartu eta hobetu beharra, biktima eta bizirik atera diran emakume horreei, eta euren ardurapean dagozan adingabeei, arreta eta babes hobea emoteko.

Eta guk ezagutu geinkezan indarkeria matxistako kasuak babestearen edo salatzearen garrantziaz informatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzeko beharra.

Azkenik, eskerrak emon gura deusueguz egindako ekarpenakaitik, eta gainerako taldeei ekimen honetan parte hartzera eta babesa emotera animatzen zaituegu, indarkeria horreen biktima diran hainbat eta hainbat emakumek, umeei, behar daben erantzuna, babesa eta arreta hobetzeko beste urrats bat egiteko. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Cabornero Alor. A continuación, turno de los grupos que han presentado enmiendas. Por lo tanto, tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos.

La Sra. **Gil LLANOS** andreak: Gracias señora Presidenta y buenos días. Barrero be Batzar Nagusiotan mahai ganean daukagu desbardintasunik handienagaz zerikusia daukan gaia, hau da, kultura matxistatik sortzen dana, gizonak emakumeen aurkako indarkeria baliatzeko legitimatuta dagoala uste dauelako. Gehiagotan be esan dot tribuna honetan. Sozialistentzat, gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna oinarritzko printzipioa da, funtsezkoa, gura dogun gizartea eregiteko. Eta gizarte zintzo batek indarkeria bako gizarte seguru baterantza egitea eskatzen dau, indarkeria jasaten daben emakumeei eta euren seme-alabei erantzun eraginkorra bermatuko deusiena.

Eta hori lortzeko, hori posible egingo daben tresnak, baliabideak eta politikak sortu eta eskaini behar dira. Gaur hemen ekimen bi ditugu, Arauz Besteko Proposamen bi, aurrera egiteko balioko deuskuenak. Zuen arrazoiakaz eta kezakaz bat gatoz. Indarkeria matxistaren biktimakaz enpatia osoa daukagu, eta gatx horreri aurre egiteko erantzun onenak bilatzeko beharragaz bat gatoz, biktimei lagunduz eta euren mina eta sufrimentua ez larriagotuz. Eta helburu horreekaz bat egiten dogunez, guztion artean barba eginez, transakzino-akordio on batera heltzeko gai izan gara.

Lehenengo eta behin, EH Bilduren ekimenagaz, eskatu deuskuna, mobimentu feministagaz batera, Coviden krisiak emakumeengan dituan ondorioak eta jasaten daben indarkeria aztertzeko. Agirian dago konfinamendua, ezinbestekoa birusari aurre egiteko, kasu askotan, zoritxarrez, tratu txarren biktimak giltzapetu egin dituana tratu txarren egileakaz. Horregaitik, andra batzuek pandemia bikotxari aurre egin behar izan deusie: birusarena eta indarkeria matxistarena, egunean 24 orduz areriorik handienagaz bizitzera behartuak, eta alkarbizitza gaizto hori eteteko aukera barik, edo etxetik urteteko eta laguntza soziala edo instituzionala bilatzeko aukera oso mugatuakaz. Berez, datuek erakusten dabe emakumeen aurkako indarkeriagaitik jarritako salaketak % 18 jaitsi zirala epe horretan. Baina salaketek behera egin ahala, telefono bidezko konsultak % 10,50 gehitu ziran, eta arreta psikologikorako eskariak gora egin dau nabarmen, eta gero eta gehiago deskonfinamentu-fasetik urrundu ahala.

Eta horrek baieztatu egiten dau adituek esaten euskuena: indarkeriak dinamika bat euki dauela konfinamentu-aldian, eta beste bat konfinamentu-ondoko aldian. Hori kontuan hartu behar da gertatutakoa eta gertatzen dana hobeto ulertzeko. Hau da, aurreko esperientziakaitik badakigu krisi-egoeretan gizartearen estresa asko handitzen dala, eta, horregaz batera, indarkeria-kasuak asko handitzen dirala. Horregaitik, ezin dogu huts egin, eta pentsatu salaketak behera egiteak indarkeria-egoerak murriztea adieratzen dauela, ezpada, zoritxarrez, egoera horreen ikusezintasuna handitzea.

Horregaitik, esperientzia eta adituek esan leikiena kontua hartuta, badakigu gauza batzuk ondino be larriagoak izan daitekezala. Gehiago larriatu leiteken gauzetako bat da krisi honek sortutako ezegonkortasun ekonomikoak erasotzailearengan botere-galeraren sentsazioa eragin leikela, eta horrek areagotu egin leikela etxe barruko indarkeriaren maiztasuna eta larritasuna. Ondorioa: indarkeria gehiago, eta, gertatzen dabilen moduan, arreta-eskaera gehiago. Horregaitik, administrazioek gure erantzunak egoera horreetara egokitu behar ditugu, laguntza- eta arreta-kanalak barriztuaz. Eta ezagutzaren eta ikerketaren esparrutik tresna barriak sortzeko be gai izan behar dogu, bizi doguna hobeto ulertzen laguntzeko eta, lehen esandako moduan, gure politikak horretara egokitu eta birbideratzeko.

Horregaitik, adostu dogun transakzinoan, azterlan bat egitea proposatzen dogu, alde batetik, aztertzeko Covidek emakumeengan dituan eraginak eta indarkeriak hartu ahal izan dituan forma barriak; eta, bestetik, prebentzino-, arreta- eta erreparazino-ekintza egokiak diseinetako behar diran gomendioak egiteko. Azterlan hori, Duque andreak lehenago esan dauen moduan, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren barruan sortu dan lantaldeari helduazoko jako, haren barri izan daian eta aztertu daian, eta, holan, Covidaren inpaktua aztertzeko. Egokia ez eze, oso aberasgarria be iruditzen jaku.

Bigarren ekimenak gure profesionalen prestakuntza, erakundeen arteko koordinazioa eta informazio- eta sentsibilizazio-tresnak hobetzea proposatzen digu, arreta berezia jarritz gune txikienetan edo landa-guneetan. Eta helburu horiekin ere erabateko kointzidentzia dago.

Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak 30 urte baino gehiago daroetz indarkeria matxistaren biktimei arreta emoten, andra horreentzako ahalduentze-urteerak lortzeko bideak eginaz. Horregaitik, holango gaietan sakontzen jarraitzeko aukera emongo deuskun akordio batera be heldu gara. Tartekari Sarea, kasurako, Espainian programa aitzindaria da, alkarte-sarea eta profesional espezializatuak batzen dituan, lana bertatik bertara eginaz, indarkeria jasaten daberen emakumeen aldeko sentsibilizazio, detekzio eta berehala laguntzeko emoteko. Eta programa honen osagaietako bat, hain zuzen be, prestakuntza da. Gizarteari zuzendutako prestakuntza, baina baita ikastaro espezializatu horreen bidez laguntzen daberen persona eta alkarteen kualifikazioa be.

Beste adibide bat Emakundeak daukazan programak izan daitekez; espezializazio handikoak dira, eta bertan Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalek parte hartzen dabe. Gainera, Gizarteratzeko Zuzendaritzako langileen eta profesionalen prestakuntza- eta kualifikazio-planaren barruan, prestakuntza-gela bat egitea aurreikusitako da ekitaldi honetarako, indarkeria matxista jasaten daberen arretan genero-ikuspegia txertatuko dauena. Koordinazioaren esparruan, argi dago arlo horretan administrazio desbardinek gai batzuetan bat egiten dabela, eta horregaitik, euskal administrazio guztiek akordio bat sinatu eben 2009an, indarkeriaren biktimei arreta hobea emoteko erakundeen arteko bigarren akordioa, hain zuzen be. Akordio horri esker, eskumen-maila eta erakunde-eremu desbardinatetik politikak, helburuak eta jarduerak finkatu geinkez, bakotzak bere esparruan eskumen integralagoak eta osagarriak indartu eta eskaintzeko. Eta Eudelen be areagotu eta hobetu beharko da orain egiten dan lana. Eta sentsibilizazioa dala-ta, ekimen hau proposatu dauenak eskatu deuskunez, Bizkaiko Foru Aldundiak informazio-, salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatzen ditu, dala Indarkeria Matxistaren Behatokiaren bidez, dala

Zirgari sarien bitartez egiten dan sentsibilizazioaren bidez, dala azaroaren 25aren inguruan egiten diran kanpainen bidez, dala diru-laguntzen dekretuaren bidez.

Eta amaitu egingo dot. Oso albiste ona iruditzen jat, desbardin pentsauta be, akordioak lortzeko gai izatea, bardintasunaren bidean aurrera egiteko proposamenak eginaz. Eskerrik asko, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Gil Llanos. Y tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor López de la Fuente.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Gracias señora Presidenta, y buenos días. Hasi aurretik, zelan ez, gogoan ditut indarkeria matxistak hil dituan emakumeak, eta alkartasuna eta babes indarkeria matxistaren adierazpen guztiak pairatu dabezan eta pairatzen dabezan andra guztiei.

Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatzen gabiliz, bata Euskal Herria Bildu Batzarkide Taldeak aurkeztua, Covid-19ak indarkeria matxistan izan dauan eraginari eta ezarritako neurriei buruz. Eta, bestea, Elkarrekin Bizkaia batzarkide taldearena, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeentzako arreta eta babes integraleko sistema indartzeari buruzkoa, erantzun integrala, arina eta egokia emoteko.

Proposamenon justifikazioaren abiapuntua iaz konfinamentuagaz bizi izan dogun aparteko unea da. Osasun-egoeratik eratorritako konfinamentua, foku guztiak hartu eta hartzen dituan egoera, eta gure bizimoduan eragin handia izan dauena. Gure taldekook badakigu egoera ahulean dagozan pertsonak kalte handiago hartu dabela pandemia honetan, eta euron artean indarkeria matxistaren biktimek.

Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Egunaren harira Eudelek azaroaren 25erako egindako adierazpenean adierazi eban moduan, Covid-19ren pandemiak gure bizitzak eta komunitateak jopuntuan jarri dauz, persona guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea eta komunitate-bizitza gogor desafiatuz. Gure mundua ulertzeko eta bertan egoteko modua aldatzen dabil. Konfinamentuak, mobimentu-murrizketek eta harreman-mugak agirian itxi dabez indarkeria matxistaren forma ezbardinei aurre egiten deusien emakumeen egoera oso ahulak.

Gure taldetik pandemiaren testuinguru honetan Aldundiak egiten dauen lanari balioa emon gura deusagu. Emakumeen egoera pandemia, konfinamentu eta konfinamenduaren osteko egoera funtsezko gaia da Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasan Sailarentzat, eta errealidade horren ezagutzagaz, azterketagaz eta interpretazioagaz zuzenean lotutako hainbat ekintzatan islatzen da. Gainera, ez da ez dala murrizten, 2021erako aurrekontua % 32,62 handitu da bardintasunean. Aurrekontu hori bardintasuna lortzeko ezarri da, indarkeria matxistaren aurkako borroka lehentasuna dala, argi eta garbi.

Aldundiaren apustua indarkeria matxista desagerrarazteko indartu egiten da, bai babesaren aldetik, bai biktimak eta bizirik iraun dabenak ahalduzaren aldetik. Euskal Sozialistak taldeak eta Euzko Abertzaleak taldeak proposamen bioi zuzenketa batzuk aurkeztu eta ostean, erdibideko zuzenketa bat adostu dogu proposamena egin daben taldeakaz. Euskal Herria Bilduk aurkeztutako zuzenketa, ados jarri gara Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeko, gehienez be sei hilabeteko epean, azterlan bat aurkeztu daiala Covid-19ren krisiak emakumeengan izan dauen eraginari buruz eta indarkeria matxistak hartu ahal izan dituan forma barriei buruz, arreta, prebentzino eta erreparazinarako ekintza egokiak prestatuko

gomendioakaz. Ikerketa hori amaitu ondoren, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan Covid-19a espezifikoki aztertzeaz arduratzeko sortu dan lantaldeari helduazoko jako, jakinaren gainean egon daiten eta aztertu daian. Azterketa, analisisa eta parte-hartzea.

Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako zuzenketari jagokonez, erdibideko zuzenketa bat adostu dogu. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu sakondu daiala Foru-administrazioaren edo hitzartutako edo kontratautako zerbitzuetan dagozan profesionalen kualifikazioan, indarkeria matxista desagerrarazteko eta biktimei eta biziraun dabenei emoten jaken arreta hobetzeko. Era berean, Bizkaiko udal guztiak bide horretan lan egitera animatzen ditugu, arlo horretan partea daukien profesionalen prestakuntza indartzeko. Eudelen barruan dagozan euskal erakunde guztiei eskatzen deutsegu lankidetzeta eta koordinazioa indartzeko, indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik dagozanen arreta eta babesa hobetze aldera. Eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu bultzatu daizala indarkeria matxistari buruzko informazio-, salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzak. Kualifikazioa, prestakuntza, lankidetzeta eta informazioa.

Esandako guztiagaitik eta aitatu dodan moduan, erdibideko zuzenketa horreek, alde batetik, indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babes integrala emoteko sistema indartzeko balio dabe, erantzun integral, arin eta egokia emoteko kualifikazioaren, prestakuntzaren, lankidetzaren eta informazioaren bidez. Eta, bestetik, indarkeria matxistaren inguruko azterketak egiteko balio dabe, ikasteko, eta, gero, arreta, prebentzio eta erreparazio ekintza egokiak diseinetako. Indarkeria matxista desagerraraztea da eta izan behar dau beti Batzarron eta gizarte honen lehenengo helburua. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor López de la Fuente. Y tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, presidente andrea. Egun on guzti. Alderdi Popularretik, proposamen biok onartu egingo ditugu, behin transakzioan ondoren, kasu batean Alderdi Sozialistaren, EAJren eta EH Bilduren artean, eta bestean Elkarrekin Podemosegaz, gure ustez proposamen koherente bi diralako, eta, gainera, bateragarriak diralako gaurko egunean.

Lehenengo kasuan ikerketa bati buruz berba egiten da, pandemiaren garaian kokatutako kasuari buruz. Azterketa 6 hilabeteren buruan entregatu beharko da. Zuzena eresten deusagu, gertatutakoa aztertu behar da. Esan da zer gertatu dan, adituek zer aztertu daben, zer gertatu dan pandemian, etxeetan distantzia soziala errespetau barik, eta persona batek besteari tratatu txarrak emoten deusazan bikoteek oso leku txikian alkarregaz bizi behar izan dabe, eta hori oso gogorra izan behar izan dau. Konfinamentua isolamendu bihurtu da kasu askotan, eta emakume askok ezin izan dabea salatu tratatu txarrak.

Era berean, azterlan batzuek adierazten dabe pandemiak ezkutuko lan prekarioa eta aldi baterako asko galtzea ekarri dauela, eta, zoritxarrez, gehienetan emakumeek egiten daben lana. Eta jakina, lan horreek galtzean baliabide ekonomiko barik geratzea handicap bat da salaketak aurkezteko orduan, independentzia ekonomikorik ez badaukazu, argi dagoalako ezinezkoa dala. Nire ustez, azterketa bat egitea koherentea, egokia eta garrantzitsua da, eta azterketa bat aurrera egiteko balioko dauena, zer gertatu dan aztertze eta etorkizunean aurrera egiteko, antzeko arazoak sortzen badira be. Ulertzen dodana, Gizarte Ongizatearen arloan gertatu danaren kontrakoa da; han egoitzei buruz egin diran azterketek ikusten dogu ez dabela ezertarako balio, gure adineko guztiek etorkizun hobea euki daien aurrera egiteko.

Bigarren proposamenak arreta eta babes integraleko sistema indartzeari buruzkoa da. Etorkizunari buruz gabilz, eta esan dodan moduan, oso garrantzitsua da proposamen honetan planteatzen dana. Lehenengo eta behin, profesionalen kualifikazioan aurrera egita aitatzen da. Ze tristea Begoña Gil kideak arazo horri buruz esan dauena. Ez, Elkarrekin Podemosekoa izan da, parkatu. Prestakuntza falta daukan gizarte-laguntzaile horrena, ez dalako gai emakume bati daukazan eskubideen barri emoteko, eta edozein indarkeria-mota baztertu behar dauala. Penagarria da kontakizun hori, eta horrek erakusten dau gure profesional asko ez dagozala kualifikauta, edo ez dagozala prestauta beren lana egiteko hainbat alderditan. Oso garrantzitsua da prestakuntza, prestakuntzan aurrera egitea.

Oso garrantzitsua da, era berean, akordioaren bigarren puntua, Eudelen barruan erakundeen arteko lankidetzari buruzkoa. Oso garrantzitsua da erakundeak koordinatzea eta harremanetan jartzea. Beitu, bada oinarrizko gai bat, familiako gaietan jarduten dogun abogaduok ondo ezagutzen doguna. Indarkeria matxista berbazko eta fisikoko kasu asko gertatzen dira, baita umeak trukaturkeran be, adingabeak trukatzeko egoera gatazkatsu bat dagoanean. Halanda be, alkargune gitxi daukaguz. Esate baterako, ez dago alkargune bat Uribe Kostako eskualderako, Getxoko barruti judizialerako, eta gatazka dagoanean umeak trukatzera eroan behar dabez, eta lekua badago, danak gainezka dagoz eta, Barakaldor, Portugaletera, Santurtzira, eta orduan hainbat arazo sortzen dira holango gaietan, baina erakundeak ez dabilz erantzunak emoten. Erakunde batuketa izan behar da, ze eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka, lokalak Udalak jarri ohi ditu eta Aldundiak ezartzen dau alkarguneen sistema. Eta, halanda be, gune batzuetan, familia gaietan diharduen edozein abogaduk ezagutzen ditu familia-trukean sortzen diran arazoak. Hori lan-esparru ona litzateke arreta eta babes integraleko sistema hori indartzeko.

Eta aitatu dozuen azkenengo puntua. prestakuntzari, salaketei, informazioari eta sentsibilizazioari buruzkoa. Ekintzak bultzatzea zuzena ikusten dot. Azkenengo puntuan, prestakuntzan, nik adingabeen prestakuntza gehituko neuke, ikastetxeetan dagozan adingabeen prestakuntza, oso tristea dalako indarkeria matxistaren kasu askotan 20-30 urteko jendearen artean gertatzea, guardiako epaitegietan ikusten dogu hori, beren gain hartzen dabezalako hartu behar ez diran rola. Orduan, nire ustez, institutuetan eta ikastetxeetan prestakuntza txiki-txikitatik hasi behar da, eta irakasleei be modua emon behar jake inguruko neska-mutilei irakasteko eta mugatzeko, egunero euren inguruan egiten diran indarkeria-ekintzakaitik.

Beraz, nik uste dot, esan dodan moduan, proposamenak osagarriak direla, bata iraganerako eta bestea etorkizunerako, eta nahiko neuke euretatik ikastea eta emakumeak babesteko sistema osoa hobetu ahal izatea. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Andrade Aurrecoechea. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Enhorabuena, porque parece que vamos a aprobar estas dos iniciativas por unanimidad, y yo creo que es para estar contentos y que esta mañana empiece con estos dos acuerdos. Espero que, en las próximas, sobre todo también en esa iniciativa contra los abusos a menores, se apruebe por unanimidad la iniciativa, porque creemos, como he dicho antes, que lograr compromisos amplios en este tipo de cuestiones es fundamental.

Yo he dicho antes que en un debate o en una negociación siempre quedan algunas cosas, como se dice pelos en la gatera, y esta negociación no se ha planteado como nosotros hubiéramos querido, sobre todo en lo que se refiere a la participación.

Baina lan bat eginda dagoala uste dogu. Lehen esan dodan moduan, proposamen hau oin dala 6 hilebete baino gehiago aurkeztu genduan, eta, beraz, azterlan honen, lan honen zati bat aurreratuta dago. Azken finean, Emakumeen Partaidetza Kontseiluko talde espezifiko hori martxan jarri da, batzartu da, eta lan bat eginda dago. Euskal Herriko mugimendu feministak berak, martian, interpelazino zabala egin euskun sektore sindikal eta politiko guztioi, batez be zainketen inguruko hausnarketa-mahai baten parte hartzeko. Eta esparru horretan be, erakunde politiko eta sindikal batzuek zoritxarrez parte hartu ez eben horretan, diagnostiko-lan bat egin zan, Covidak andren bizitzan eragin dauen egoeraren argazki bat legez, eta proposamen batzuk egin ebezan. Bitxia da, nik Gil andreagaz partekatu neban dokumentu hori, interesgarria eretxi neutsalako. Eta garrantzitsua iruditzen jat be bai, Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren lantalde horretan aurkezpena egin eta ostean, alderdiek presentzia daukagun lekura be eroan ahal izatea, hau da, Berdintasun Batzordera, lan hori bera, eta han partekatzea. Horregaitik esan dot komunikazino- eta alkarlan-bide horretan sakontzen jarraitzeko itxaropena daukagula. Itxaropena daukagu, eta halantxe jakinarazo geuntsien gobernua osatzen daben taldeei, dokumentu hau hurrengo 6 hilebete baino lehenago argitaratzea espero dogula, esan dodan moduan, ze teoriam badago ibilbide bat eginda; eta hori be partekatu, aztertu eta landu geinke, talde politiko guztiok parte hartzen dogun Berdintasun Batzorde horretan, eta Euskal Herriko mobimentu feministaren koordinatzailea be gonbidatu nahi dogu, berak egin dauelako hona ekarri dodan lana, Eta nik lerro batzuk irakurri gura deusuedan, ez dot dana irakurriko, baina interesgarria iruditzen jatan gogoeta bat egitea, hemen gogoeta bat ixtea.

Dokumentu honetan, esan dodan moduan, diagnostikoa ezeze, indarkeria matxistaren inguruko proposamen batzuk be egin dabez. Lehenengo erakundeen arteko lan-espazioak aktibatzea da, zerbitzuak Coviden egoerara modu koordinatuan egokitzen dirala bermatzeko. Oinarrizko gizarte zerbitzuak egokitzea be eskatu dabe, telefono bidez, telefonoko txaten bidez, konfinamentuaren erdian gengozanean hori eskatzen zan. Era berean, indarkeria matxistaren barri dagoan kasuetan, emakumeei jarraipena eta laguntasuna emoteko mekanismoak aktibatzea eskatzen da. Proposamen asko egin ebezan indarkeria arrazistari buruz be, kasurako egoera administratibo irregularrean dagozan migratzaile guztiak legezkatzea, persona horreen eskura informazino- eta aholkularitza-telefonoak jartzea. Eta txosten honetan proposatzen ebezan neurri guztiak, edo euretako asko, bat datoz Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan lantalde espezifiko horrek lehenengo bileretan adierazi dauzanakaz. Beraz, bat egiteko eremu zabala dagoala uste dogu, erakunde instituzionalenetan edo subjektu instituzionalizatuenetan alkarregaz lan egin ahal izateko. Baina baita gizarte-eragileen edo mobimentu feministen artean be. Beraz, hemen itxiko dogu konbite hori, gaur onartu dogun, onartuko dan proposamen honek ibilbide bat izaten jarraitu daian eta, esan bezala, Berdintasun Batzordean lantzen eta eztabaidatzen jarraitu ahal izan daigun. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias de nuevo. Buenos días de nuevo. Lehenengo eta behin, Izaskunen berbakaz bat egin, Duque andrearenakaz. Albiste ona dala uste dot. Esan lei esparru honeetan errazagoa jakula akordioak lortzea. Eta eskerrak emon gura deusuedaz Legebiltzar honetako beste taldeek emondako babesagaitik.

Deskribatu ditudan kontakizunek eta esperientziek, txostenean datozenek, zerbitzu mota honetan gabezia batzuk itxi dabez agirian, eta prestakuntza egokirik eza, akats eta ikuspegiei jagokenez. Horregaitik, nire taldearen ustez, funtsezkoa da emakume horreei eta euren seme-alabei arreta eta babesa hobetzeko eta erantzun egokia emoteko urratsak egiten jarraitzea.

Era honetako ekimenak onartuta, 3 puntu giltzarritan eragiten gabiliz, lehen esan deusuedan moduan, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeek eta euren seme-alabek indarkeriatik urteteko ibilbidea egiteko. Emakumeok egoera ahulagoan dagoz, lehen azaldu deusuedazan oztopo gehigarriok aurkitu dabezalako. Eta gaur aurrera aterako dogu Arauz Besteko Proposamen transakzionatu hau, eta aitortu behar dot nire taldea, Elkarrekin Podemos-IU, pozik gagozala, ez nahikotuta. Oraindino lan asko geratzen dala eta oraindik gauza asko zuzendu behar dirala pentsetan dogu, emon beharreko pauso asko geratzen dira, zenbat eta luzeagoak eta irmoagoak izan, orduan eta hobeto izango da, egin beharreko bidea oraindik oso luzea dalako. Eta emakumeak ezbardintasun eta indarkeria matxista mota guztietatik babesteko aurrera jarraitu behar da, gaur danon artean onartuko doguzan moduko ekimenakaz. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Cabornero Alor. Y tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias de nuevo. Akordioari balioa emon aurretik, nire ustez garrantzitsua bada be, hemen esandako gauzei buruzko zehaztasun bat egin gurako neuke. Bat nator zugaz, Cabornero andrea, ekimenak lortu gura dauen helburuagaz, eta uste dot talde politiko guztiek bat egiten dabela genero-indarkeriaren biktimentzat eta euren seme-alabentzat aurrea hartzeko, arreta emoteko eta erreparazinoa emoteko politikak indartzearen inguruan.

Baina esan behar dot aitatu dozun txostena Aldundiak 2015ean egindako txostena dala. Txosten horrek kontetan dau, txosten bat dala uste dot, ikerketa kualitatibo bat, gune txikietako eta landa-guneetako indarkeriaren errealidadeetara hurreratzeko. Txosten horren ondoriorik esanguratsuen zana, segurutik, gune horreetan indarkeria hori ikusezino edo isilduago egoela, eta presino sozial edo familiar handiagoga egoala emakumeen indarkeriaren zirkulua hausteko. Eta zuk ikerketan egozan lekukotasun batzuk kontau dozuz, egiazkoak diranak, eta danori pilak ipinten deuskuezanak, holan esango geunke, prozesuak lantzen eta hobetzen jarraitzeko.

Baina zuk kontau dozuzan kontakizun horreekaz batera, beste emakume batzuen kontakizunak be baegozan, indarkeriaren gogortasuna kontetan ebenak, baina oinarritzko gizarte-zerbitzuen laguntasuna be baeukien euren herrietan, indarkeriaren zirkulua hausteko giltzarri izan diranak. Eta hori dinot, herritarrengan inpresinoak itxi geinkezalako testuinguruan kokatzen ez badogu. Egia da, asko daukagu hobetzeko, hobeto koordinatu behar gara, eraginkoragoak izan behar gara, osagarriagoak izan behar gara, bakotzak dituan kompetentzietatik, kompetentziak gauzatu behar ditugu. Eta maila guztietan bete daiezala eskatu behar da: toki-mailan, foru-mailan eta autonomia-mailan.

Baina konturatu behar dugu, nire ustez, arlo honetan asko aurreratu dogula, eta aldaketa guztiak ez dirala etorriko ez legegintzatik, ez erakundeok abian jarritako politikeetatik. Izan be, indarkeriaren sakoneko arazoa gizarte honetan bizi dogun desbardintasun sakona da. Gizarte horrek oinarri bat dauka, Laespada andreak aurreko Osoko Bilkuran esaten eban moduan, hain zuzen be kontziliazio-politikei buruz galdetu eutsiengan. Balore patriarkalak dira, azkenean, desbardintasunaren oinarria. Emakumeok bizi dogun desbardintasunaren sustraia da, eta horretarako aldaketa sozialak eragin behar ditugu, eta aldaketak guztion aldetik etorri behar dira, gizarte osoaren aldetik.

Denporea amaitu baino lehen, alderdi politiko guztiek lortutako akordioari balioa emon gura deusat; ze nire ustez, horrek aukera emoten deusku emakumeen aurkako indarkeria bako gizarte baterantz aurrera egiteko. Eta gaurko akordioak indartsuago egiten gaitu,

indartsuago egiten gaituen moduan, eta hemen Duque andrearen berba batzuk hartuko ditut, bere ekimenean gai honetan murrizketarik ez egiteko eskatu dauenean. Hemen esango dot indartsuago egiten gaituela Berdintasun Zuzendaritza aurrekontu honetan adibidez % 32,50 hazi izanak; indartsuago egiten gaituen moduan, erakunde honek, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aurrekontu globaleko % 1 berdintasun-politiketara bideratzeak. Gurago neuke beste erakunde batzuek eredu hori jarraituko balebe. Eta indartsuago egiten gaitu guztion arteko alkarrizketak eta lankidetzak.

Zelan ez, neuganatu egingo dot konpromisoa ikertzaileen txostena, Sailak amaitzen dauenean, Kontseilura ez eze, Batzordera be eroateko, talde politikook eztabaidatu ahal izan daigun, eta Kontseilu horretako kideakaz be eztabaidatu ahal izan daigun, euren esperientziak kontatzera etorri leitekez eta. Nik uste dot bidea dagoala egiteko eta lankidetzarako borondatea dagoala.

Eta argi dago hori guztia, indarkeriaren aurkako borroka, borondatetik, politiketatik, alkarrizketatik eta baliabideetatik egiten dala. Eta, jakina, eta orain Andrade jaunaren txanda da, asko gustau jat hezkuntzaren garrantziaz egin dozun gogoeta hori. Eta esango deusut, hain zuzen be, hori ez dala egiten Hezkuntza Sailen buru jarriz genero-indarkeria ukatzen daben personak, edo gurasoen aukera askearen falaziaren pean, gurasoen pina deitzen dan horren babesean, gure gazteei bardintasuna, errespetua eta tolerantzia moduko balioak transmititzea eragozten dabenak. Eta hori herrialde honetan gertatzen da. Beraz, esango neuke baten batek badaukala zer pentsau. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Gil Llanos. Tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor López de la Fuente.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Gracias de nuevo, señora Presidenta.

Ados gagoz, Bizkaia, Euskadi eta mundua indarkeria matxistarik bako guneak izan behar dira. Eta Bizkaiko gizartearen ordezkari garan aldetik, erantzukizun hori daukagu, eta Batzar Nagusiek eta Aldundiak konpromisoa daukie bardintasunagaz eta indarkeria matxista desagerrarazteagaz. Konpromiso hori gaur Batzar honeetan hainbat talde politikok onartu ditugun erdibideko zuzenketa biotan islatzen da.

Zelan ez, eskerrak emon behar doguz lau taldeok akordiorako egin dogun ahaleginagaitik, indarkeria matxista desagerraraztea moduko gai garrantzitsu baten. Une txarra pasetan gagoz, lehenengo txandan esan dodan moduan. Nire taldean badakigu une txarretan okerren pasetan dabenak pertsona eta kolektibo ahulenak dirana. Baina Aldundia lanean ibili da eta dabil egoerari buelta emoteko, desbardintasun-egoerak eragozteko eta inor atzean ez ixteko eta indartsuago aterateko.

Indarkeria matxistari aurre egin behar deusien emakumeen isolamendu-, babes- eta ikusezintasun-egoerak eragozteko behar diran baldintzak sortuko dabezan estrategiak bultzatzen jarraitu behar dogu. Ezinbestekoa da eurakaz gagozala sentitzea, sinesten deutsegula eta euren bizitzak berreskuratze behar daben guztia egingo dogula sentitzea.

Zuzenketa bi horreek eta 2020ko otsailaren 19an onartutakoak, lehenengo txandan esan dodan moduan, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeei arreta eta babes integrala emoteko sistema indartzeko balio dabe. Baita be indarkeria matxistaren inguruko ikerketak egiteko, ikasteko eta, ondoren, arreta, prebentzino eta erreparazinoko jarduera egokiak

diseinetako. Azken finean, Bizkaiak indarkeria matxista desagerrarazteko erantzun sendoagoa emoteko balio behar dabe.

Sensibilización, prevención, coordinación, memoria, concienciación y educación son el camino para acabar con la violencia machista. Es, y debe ser siempre, el objetivo de estas Juntas y de la sociedad impedir la violencia machista. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor López de la Fuente. Y el Grupo Mixto-Partido Popular, no tomará la palabra. Por lo tanto, una vez finalizado el debate, debemos someter a votación las dos transaccionales que se han presentado.

En primer lugar, someteremos a votación la transaccional correspondiente al primer punto. Votos a favor. Tal y como se ha anunciado, se aprueba por unanimidad.

Y los votos a favor de la transaccional correspondiente al segundo punto. Asimismo, se han emitido 50 votos, todos a favor. Por tanto, se aprueba por unanimidad el segundo punto también. Y tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma

[\(R.E.11/E/2020/0002636\)](#)

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: Consignaciones Nominativas a bienes de la Iglesia Católica.

Documento

Principal:

[\(R.E.11/E/2020/0002636\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (122A), [Enmiendas: No presentadas](#) (122B)

Expediente: [\(11/B/26/0001835\)](#)

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena [\(11/E/2020/0002636SE\)](#)

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: Eliza Katolikoaren ondasunei egindako kontsignazio izendunak

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2020/0002636SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (122A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (122B)

Espediente: [\(11/B/26/0001835\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Es el turno del Juntero que ha presentado la iniciativa; por lo tanto, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Gracias. Buenos días. Espainiako Estatuak ez dauka erlijino ofizialik, 1931ko Espainiako Errepublikako Konstituzinoaren 3. artikulua halan dino. Beste artikulua batzuek erlijinoen podereak mugatu egiten ebezan. Adibidez, 26an esaten zan, "Erljino-konfesino guztiak lege berezi baten menpe egongo dira"; eta 26.3an, hori garatu egiten zan, bere kabuz edo tarteko persona baten bidez ondasun gehiago eskuratzeko eta kontserbatzeko gaitasuna kentzeko, beti be ondasunok, alde aurretik justifikauta, bere etxebizitzarako edo bere helburu pribatiboak zuzenean betetzeko bideratzen

badira. Izan be, esan dan moduan, gaur 90 urte dira Bigarren Errepublikaren aldarrikatu zana. Baina ez jat ahanzten 90 urte geroago ez gagozala ez une berean, ez lege egoera berean.

¿Qué defendemos en esta iniciativa? Proponemos a la Diputación Foral de Bizkaia que ayude activamente a los municipios vizcaínos a recuperar el patrimonio indebidamente inmatriculado de la Iglesia Católica.

Luego, solicitar al Obispado de Bilbao y a la Conferencia Episcopal de España la devolución de las subvenciones para el mantenimiento de su patrimonio desde 2016.

Luego, hacer un análisis del patrimonio inmatriculado en las últimas décadas y de los inmuebles de la Iglesia Católica que se utilizan con ánimo de lucro. Supresión de las partidas presupuestarias corregidas inmatriculadas por el titular de la Iglesia Católica y modificación de las Normas Forales necesarias.

Ekimen honen azalpenean adierazi genduan moduan, ekimen hau arrazoitzen hasteko, 2016an Ganbera honetan hartutako akordio bati buruz berba egin genduan. Akordio horretan adierazten zanez, Bizkaiko Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen eutsien, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, lurralde historikoko toki-erakundeei beren ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruzko informazio juridikoa eta historikoa emoteko, bai eta aktiboki laguntzeko be, Eleizeak behar ez bezala matrikulatutako ondasunak berreskuratzeko jardueretan, behar ez bezala, kontuz! halakorik egon ezkerro.

Gero, ekimen hau justifiketako azpimarratu beharreko bigarren puntua da, denpora hori igarota, ez dirudiela aurrerapausorik emon danik. Bost bat urte dira honezkerro.

Eta, azkenik, azpimarratu gura dogu, batez be hori guztia eragiten dauena, hau da, ekimen honen izenburua; izan be, hori guztia gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak diru publikoa bideratu dau Bizkaiko Gotzaindegiarentzat. Batetik, zuzenean immatrikulatutako ondasunei, 2016tik, kontuz!, ez urte askotan, 2016tik baino, orduan onartu zan-eta ekimen hori. Ibone Bengoetxea foru diputadu ohiak adierazi euskunaren arabera kalkulau genduan, Batzordean egindako galdera baten, 300.000 euro inguru ateraten zirala kalkulau genduan. Baina, gainera, Eleiza Katolikoari diru-laguntzak emon deusaguz, Eleizearen beraren ondarea mantentzeko, milioi bat euro bideratu deusaguz, ez bakarrik immatrikulatutako ondasun horreetan, baita beste hainbat ondasunetan be, adibidez, deigarria dana, Errioxako Najeran dagoan Monasterio bat, Bizkaitik urrin samar geratzen dana. Eta hori, milioi bat euro inguru, deigarri egiten jaku. Horregaitik, hori dana kontuan hartuta, guk proposatu dogu, alde batetik, udalerrii aktiboki laguntzea immatrikulatutako ondasunak berreskuratzen. Esan bezala, 2016tik ez dau emoten aurrerapausorik egin danik. Eta egia da, bai, hor geratu zala apur bat zalantzea, halangorik eskatu daben udalerririk ba ete dagoan. Uste dot, urrin joan barik, Trapagaranek behintzat, onartu ebalu ekimenen bat bide horretatik.

Gero, bestalde, eleizearen ondarea mantentzeko 2016tik emondako diru-laguntzak erreklamatzeko proposatzen dogu, eta 2016ra arte baino ez goaz, orduan onartu zalako ekimena. Ez jaku bidezkoa iruditzen, Bizkaia osoan mantenduten ez dan beste horrenbeste ondare dagoanean, erakunde batera bideratzea, enpresa pribatu batera, Eleiza Katolikora, alegia, normalak ez diran pribilegioakaz, eta Europar Batasunak berak be legez kanpokotzat jo dituan pribilegioakaz. Eta, guk uste dogu hori gelditu egin behar dala eta ondare bihurtu, adibidez, urrin joan barik, Barakaldoko Zubietan torrea. Zubietan, gogoratuko dot Elkanogaz itzuli zan marinetako bat zala, Barakaldoko marinel bat, eta justu Elkanoren mendeurrena ospatzen dabilzan honetan, torretxea daukagu, hain zuzen be, Ganbera honetan be berba egin zan hari buruz, mantentzeari buruz, eta gaur egun ez da zentimo bakar bat be inbertidu ha berreskuratzeko, zatika jausten dagoan bitartean, Ganbera honetan horren ganean berba egin zan arren, esan dodan moduan.

Amaitzen noa. Azkenik, azken hamarkadetan immatrikulatu diran ondasunei buruzko azterlan bat egitea da hemen darabilguna, irabazi-asmoagaz erabilitako Eleiza Katolikoaren higieizinei buruz, asko diralako, esaterako, Derioko Mintegia, han IBirik ordaintzen ez daben 83 enpresa baino gehiago dagoz. Hori defendatu eben lehenago beste talde batzuk, EH Bilduk eta Alderdi Sozialistak kasurako.

Eta azkenik, esan bezala, Eleiza Katolikoaren ondasunetara bideratutako aurrekontu-partidak ezabatzea proposatzen dogu, ondasun immatrikulatu horreetan bere aldetik amore emoten ez dauen bitartean. Eta, azkenik, beharrezkoa dan foru-araudia aldatzea, lurraldeko udalek erlijioen IBIak kobrau ahal izan dagiezan.

Erljinoak esan dogu, ez da Eleiza Katolikoaren aurka. Ez dogu nahi inongo konfesinok merezi ez dian pribilegioak eukitea. Eta, azkenik, Espainiako Gobernuari Eleiza Katolikoak dituan onura fiskalak ezabatzeko eskatzea. Izan be, gaur egun pribilegio horreek daukazan konfesino bakarra da. Zentzu horretan, hori hemen defendatzen dogu, baina Kongresuan be defendatzen dogu. Beste talde batzuek Kongresuari jagokon zerbait hemen defendatu eben moduan, adibidez aireportuko ordutegiak liberalizatzea Eurokopa erakarteko.

Eta amaitzeko, planteatzen doguna, errepublika eta laikotasuna aipatu ditut, estadu akonfesional baten gagoz, ez laikoa, gurago neuke, baina sakondu nahi doguna estadu demokratikoagoa da, beste talde batzuek orain arte egin dabena. Harrituko ginatke gaur ez balebe defendatuko. Eta amaitzen joateko, planteatzen doguna zilegi da, Bizkaian egingarria da eta behar dan gauza bakarra borondate politikoa da. Dicho esto, gora errepublikak, viva la república.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Escalante Mesón. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, la señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko. Presidente andrea, mahaikideak, jaun-andre batzarkideak, egun on guztioi.

Arauz Besteko Proposamen honen aurkezpena 2016an gauzatu zan eztabaidan kokatu dozu, Arauz Besteko Proposamen hori, akordio hori, gauzatu dan edo ez dan, hobeto edo okerrago. Baina hemen gagozanok danok konturatu gara proposamen hau ia bat datorrela denporan Eusko Legebiltzarrean erregistrau barri dan beste bategaz. Eta on dala gitxi, Pedro Sánchez Gobernuako presidenteak, oin dala urtebete pasatxo, agindu eban promeseagaz be bai, bidezko lege-aldaketa guztiak egingo zituala, Eleizeak bidegabe immatrikulatutako ondasunak berreskuratzea errazteko.

Nik arreta jarriko dot, gero erantzuteko txandan eukiko dot aukerea zuk esandako gauza batzuei erantzuteko, baina egokia iruditzen jat Arauz Besteko Proposamenean adierazi dituzun gauza batzuk aitatutea.

Lehenengo atalean, a) atalean, nik uste dot planteatzen dozuen hori inplizitu dagoala Ganbera honetan hartutako akordioan. Zuk esan dozu, ez dakigu zelan doan beteten. Azaroan, Batzorde Instituzionalean, horri buruzko ahozko hainbat galdera egin zenduzala uste dot, eta zuk zeuk egiaztatu ahal izan zenduzan gauzetako bat da, han gengoan guztiok bezala, ez egoala Bizkaiko udalen eskaera ikeragarririk zuk planteau nahi dozun zentzuan, eta akordio hori berrikustea eskatu leikenik. Baina hori ez da gertatzen, eta, beraz, ez jaku beharrezkoa iruditzen.

b) atalean, ez dogu ulertzen, edo beharbada bai, ez dakit, bereziki zuk eskuhartze honetan azkenengo esan dozunagaitik. Baina zergaitik eskatu gura deutzazue Eleizeari 2016tik diru-laguntzak itzultzeko? Hau da, ez dakit kasurik onenean ia konfiskatzailea edo diskriminatzailea dan; izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak antzeko gai baterako diru-laguntzak emon deutsien gainerako erakundeei be laguntzak itzultzeko eskatu beharko leuskie.

Azken baten, oso erraza dirudi zuentzat. Eleizea, ez, Eleiza Katolikoa izatearren ez. Gizona, ez gara barriak Ganbera honetan gagozanak, eta esango neuke batzarkide gehienok horri buruzko jarrera bat daukagula, ze gakoa da ia zergaitik batzuk bai eta besteak ez, eta, esan dodan moduan, zuen proposamenak diskriminazio-kutsu nabarmena dauka. Beraz, egin beharreko galdera da zergaitik zuen ustez Eleiza Katolikoari tratu bereizia emon behar jakon. Hori da zure proposamenaren azpian dagoana, eta ez kontrakoa.

Diru-laguntza horien xede diren ondasunak Eliza Katolikoarenak diralako? Zuen argudioa muturrera eroan ezkerro, Guggenheim Museoa Fundazioa (5,2 milioiko diru-laguntza jaso eban) edo Euskal Abertzaletasunaren Museoa nork osatzen daben aztertu beharko litzateke. Dana dala, zuen proposamenagaz sortu dozuen nahaste-borraste horretan, Bilboko Arte Sakratuaren Eleizbarrutiko Museoa be hor sartuko dozuela uste dot, adibidez, 120.000 euroko diru-laguntza, edo Aste Santuko Pausuen Museoari, 12.000 eurokoa. Gogora ekarri behar da, nire ustez horri buruz gane-ganetik pasau zara, martiaren 20ko 4/2019 Foru Arauan dago, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoan. Arau horren arabera, tribuna honetan aitatu dozuzan moduko erakundeek lehenastuzko jarduerak egiten dabaz ondarearen eta kulturaren esparruan, Guggenheim Museoa Fundazioaz gainera, Arte Ederren Museoa, Euskal Herriko meatzaritzarena, edo Bizkaiko ondare kulturalaren zaharberritzea, jagotea baita zibila bai erlijiosoa.

Beraz, argudio horreekaz bat eginaz, uste dogu justifikauta dagoala Eleiza Katolikoari eta gainerako erakunde onuradunei diru-laguntza horreek emon ahal izatea, eta, beraz, ez dogu arrazoirik ikusten diru-laguntzok itzultzeko eskatzeko.

c) atala: immatrikulatutako ondasunen azterketa egitea. Beste bat? 2015etik bi. Bata, Espainiako Gobernuak, eta bestea, Eusko Jaurlaritzak, biak be behar bezala dokumentautu. Dirua soberan daukagula uste badozu, kontuan hartuta ze egoeratan gagozan, esan tribuna honetan.

d) puntua: Eleiza Katolikoaren titulartasunpeko ondasunetara bideratutako aurrekontu-partidak ezabatzea, erakunde horrek immatrikulatutako eta, beraz, berari ez jagokon ondare hori itzultzen ez dauen bitartean. Hau dislate bat da. Irakurtzen dauenak pentsauko dau Bizkaiko Foru Aldundiak dirua Eleiza Katolikoari oparitu egiten deutzala, eta abade eta moja gaiztoek, barriz, era guztietako gaiztakeriak egiten dabezala, ondasunak ezkutuan immatrikulatuz. Seriotasun eta lasaitasun apur bat.

Ez da sinesgarria. Esan geinke berrikusi beharko liratekeen baliabideak erabilten dirala, kasurako Supersur edo Bizkaia torrea. Baina honetan? Ez dira ba-ta zuk dinozun egoera hori sortu leikien kopuruak. Eta benetan, guk uste dogu are okerrago dala proposamen horretan planteatzen dozuenean, azkenean, nire ustez subkontzienteak azpijokoa egin deutzala, eta ziurtatzen eta iradokitzen dozue, hemen egin dozun katarsi iraultzaile moduko honetan, inolako zalantza barik, immatrikulatutako ondarea ez dala Eleizearena. Nik ez dakit Eliza Katolikoak immatrikulatuta dituan ondasun guztiak, eta Eleiza Katolikoa esaten dauenak beste erakunde batzuk esan leikez, bere jabetzakoak diran ala ez. Baina nik, zuk ez bezala, frogarik ez badaukat, ez nator tribuna honetara hain salaketa larriak egitera. Ez ditut bere garaian gauzatu ziran eztabaidak errepikatu nahi, baina Zuzenbideko lehenengo mailakoa litzateke: jabetza ez da immatrikulazioa. Gauza desberdinak dira. Eta amaitzen noa.

1. puntuaren e) atalari eta 2. puntuaren edukiari jagokonez. Hemen planteau ohi dozuen beste klasiko bat. Literatura asko dago, eta literatura nahikoa ez bada, Konstituzino Auzitegiaren epai bat be badago. Gogoratu gura deutsut, Foru Araudia aldatzea dala-ta, udalek erlijinoen ondasun higiezinakaitik zergak kobretako. Berba egiten dozue, ez Eleiza Katolikoaz bakarrik, eskerrak, bestela nabarmenkeria politiko handia izango litzateke. Nik gogoratu gura deutsuet IBiri buruzko gure foru-arauaren 3. artikuluko d) eta e) idatz-zatiak argi eta garbi ezartzen dauela Eleiza Katolikoaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespena. Baina ez kapritxo bategaitik, ez goizean jagi eta horixe komeni dala erabagiten dozulako. Ezpada, dakizun moduan, akordio bat dagoalako Espainiako Estaduaren, orain zu, zure alderdia gobernuan dago, eta Vatikanoren artean, gai ekonomikoei buruz. Eta holango kontuak, zuk ez dakizula dirudien arren, edo tribuna honetan ez dozula ezagutzen erakutsi gura dozun arren, ondorioak daukiez. Ez daukat denporarik, erantzuteko txandan egin ahal izatea espero dot, baina Konstituzino Auzitegiak be argi eta garbi ezarri eban, eta ni ahalik eta modu zuhurrenean esaten ahaleginduko naz. Baina uste dot zure proposamenak zentzu guztia galtzen dauela atal horretan.

Beraz, amaitzen noa, eta azken puntua dala-ta, Espainiako Gobernuari ustezko onura fiskalak ezabatzeko eskatzen deusezuenen. Ba, zer esatea nahi dozu, hau tribuna honetan eskatzea baino errazagoa dala, denpora gitxiago behar da, zuk mezu elektroniko bat bialtzen dozu, badakizu nora bialdu behar dozun, eta, esan dodan moduan, tribuna honetako beste klasiko bat agirian ipini beharrean, metodo horren bidez segurutik arinago konpondu ahal izango dozue. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, el señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora presidenta, señoras y señores junteros, buenos días a todos.

Abiapuntu gisa, argi itxi behar da inmatrikulaziotzat hartzen dala Jabetza-erregistroan ondasun bat lehenengoz egiten dan inskripzino oro, lehenago ezelango jabetza-motarik euki ez dauena. Hori dinot Arauz Besteko Proposamen honek gai konplexu baten aurrean jarri gaitualako, ibilbide historiko luzekoa eta esku-hartzearen 7 minututan lantzeko gatxa dana. Behar bezala ulertzeko, kontuan hartu beharko geunkez Espainiaren eta Vatikanoren artean 1737tik 1979ra sinatutako konkordatu desbardinak, 1994ko azkenengo aldaketa partzialagaz; XIX. mendeko 8 eleiza-ondasunen desamortizazioak; Jabetza Erregistroaren sorrera 1861ean; hipoteka-legeak, 1861, 1909, 1946, 1981koa, eta gure 2007ko aldaketa; eta gure Zerga Lege Orokorra, IBilagaz zerikusia daukan guztian, eta zerga-hobariak eta salbuespenak. Horrek galdera bat eragiten dau: XXI. mendeko Batzar Nagusi gisa, aurtengo Batzar Nagusi gisa, 2021. urteko Batzar Nagusi gisa, zein da gure egitekoa kontu honetan. Izan be, gai honek aitatu ditudan elementu guzti-guztiei eragiten deitsie, nahizta formulatu nahi dana hain erraza izan, hau da, txarto inmatrikulautako propiedadeak zein oker emondako kopuruak berreskuratzeko ahalegina, edo Eleiza Katolikoaren alde bidegabeki aplikautako salbuespenak.

Gai honetan argi pixka bat emoteko, gogoratu beharko litzateke Espainiako hierarkia katolikoak beti euki izan dauzala poderea eta ondasunak, Estaduaren parte izan zan bitartean. Halanda be, historiagaitik badakigu Gaztelako eta Aragoiko erregeen mesfidantza eleizeari dohaintzak egitea debekatzen eben ordena eta kontraagindu ugaritan islatu zala. Jose Bonaparte izan zan 1810ean Eleiza Katolikoak eukazan ondasun guztiak nazionalizatu zituana, Frantziako Iraultzaren postulatu ilustraduei jarraituta. Horrek azaltzen dau, errearkzino gisa, kleroak 1812ko Cadizko Konstituzinoa babestu izana, bere artikuluetan Espainiako erlijino katoliko apostolikoa eta erromatarra, bakarra eta egiazkoa sartzearen truke.

Esan gabe doa eleizearen hierarkia horrek ez ebalu konstituzionalismoan sinesten, eta Fernando VII.a itzuli bezain laster, kausari heldu eutsala, absolutismorik latzenari, bere poderea eta ondarea babestearen truke. Une horretan, eta krisi sozial eta ekonomikoa areagotu ahala, ilustraduek aldarrikatu eben preminazkoa zala Estatuarentzat berreskuratzea Eleizak esku hilak esatean jakienetan zituan ondasunak, hau da, egoera ez-emankorrean, herrialdean gosea zabaltzen hasita egoan eta. Hori izan zan lehenengo desamortizazioak eragin zituan errazioa, eta defendatzen eben helburu sozialean porrot egin eben arren, burgesia hasibarraiek bereganatzean, eta ez nekazariak, garrantzitsuena da Estaduak ez eutsala horregaitik kalte-ordainik emon Eleizeari, argi eta garbi itxita beti ondasun publikotzat hartu ebezala.

Erreakzino konserbadorea 1851n Vatikanogaz sinatutako Konkordatuia izan zan, Espainiako historian lehenengoz Eleizea eta Estadua banatzen zituena, ondare ondorioetarako bakarrik, Eleizeari bere kabuz ondasunak eskuratzeko aukera emonaz. Baina, horregaz, Estadua arindu beharrean, 1955ean, Pascual Madoz Ogasun ministroa, barrero be, erlijio-ondasunen desamortizaziora jo eban, eta, izaera publikoa argi izan arren, Eleizeari zor tituluak emon eutsazan trukean, Estaduak frankismoan be ordaintzen jarraitu ebazanak. Eta hortxe hasten da ogien eta arrainen miraria, Eleiza Katolikoari erabili baino egiten ez ebanaren jabe bihurtzeko bidea emon deutsana.

Lehenengo Hipoteka Legeak Eleizeari aukera emon eutsan 1860ko apirilaren 4aren ondoren eskuratu ebanaren jabetza inskribatzeko, baina data hori baino lehenagoko gainerako ondasunak edukitzea bakarrik inskribatu eikean, desamortizagarriak ziralako. Izan be, 1866ko azaroaren 6ko Errege Dekretuan argi itxi zan Estadua jabarikoak diran ondasunak eta gaur egun gurtzarako erabilten diran tenpluak ezin dituela inork ondartzat hartu.

Bigarren Errepublikan, Eleizea eta Estadua banandu egin ziran ondorio guztietarako, eta beharrezko egiten da ondasunen araubide juridikoa arautzea. Frantziako aurrekariari jarraituz, kulturako zerbitzua Estadua eskuetan egoteari itxi eutsanez, ondasunak jabari publikoan mantendu ziran. Gerora, eta harrigarria bada be, Francoren diktadurak indargabetu egin eban arau hori, baina erlijio-ondasunen titulartasuna ez zan aldatu, eta publikoak izaten jarraitu eben, Eleizea be Estadua zala ulertzen zalako. Eta holan, 1946ko Hipoteka Legeagaz, Eleizeari jabetza administrazino publiko bat balitz moduan inskribatzeko pribilegioa emon jakon, bere gotzainak notarioakaz parekatuz.

Gehiegizko pribilegioa, ordurako ez eukana, eta Francoren diktaduraren oparia izan zana estadu-kolpea babesteagaitik, baina ez zituan hartzen kulturako tenpluak, ondasun publiko izaten jarraitzen eben eta. Arau hori 1978an konstituzionala bihurtu zan, Estadua akonfesionaltasun-printzipioa urratzen ebalako, nahizta inor ez zan arduratu printzipio hori berariaz indargabetzeaz, ezta kultura-balio handiko erlijio-ondasunen izaera arautzeaz be.

Aznar jaunaren gobernuagaz, 1998an pribatizatu ziran lehenengoz historian. Une horretatik aurrera, Eleizeak modu masiboan inmatrikulatzen jarraitzen dau bai kulturako tenpluak bai beste edozein motatako ondasunak, inork bere izenean ez zituanak, harik eta, herritarren presinoari eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bati esker, Gobernuak pribilegio frankista indargabetu eban arte, baina jada inmatrikulatuta egoanaren deuseztasuna aitortu barik, de facto erregistroko amnistia sortuz.

Urte bi geroago, talde sozialistak Legez Besteko Proposamen bat aurkeztu eban Kongresuan, Eleizeak 1998tik inmatrikulatutako ondasunen zerrenda bat egiteko eskatuz. 2018ko udan iragarri zan jada baegoala, eta 2021eko otsailean argitaratu da txosten hori. Txostenean 34.961 ondasun jasoten dira, eta Euskadi agertzen da erlijio-agintariak atzemandako jabetza gitxien daukan erkidego gisa, 88 baino ez. 48 titulartasun-aldaketa jaso

dira Araban, 31 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan. Halanda be, ohar batzuk egin behar dira, ze 2016ko txostenean 387 Gipuzkoan, 74 Bizkaian eta 69 Araban jaso ziralako.

Beraz, horregaz guztiagaz ez gagoz gai erlijioso baten aurrean, ondare publikoaren eta indarrean dagoan legeriaren defentsaren aurrean baino. Eleiza Katolikoari ez jako ezer kendu, bere ustez berea dan erregistretako eskubidea bere horretan mantentzen dau, baina hori egiaztatu beharko dau ezelango pribilegio barik.

Eta amaitzen noa, ez deust denporarik emongo. Horri buruz, hainbat gauza gogoratu eta balioetsi behar ditugu. Espainiako Gobernuak aurkeztu dau immatrikulautako ondasunen zerrendea, badaukagu abiapuntu bat. Hemendik aurrera, jabetzaren baten gaineko eskubidea daukala uste dauenak, lehenengo bide bat erabili leike, administrazioak higiezinaren titulartasunari buruzko ikerketa bat zabaldu daijala, baita justizia-auzitegietara jota be.

Espainiako Gobernuari Eleizak immatrikulautako ondasunak ofizioz itzultzeko eskatzea dala-ta, joan dan otsailaren 10ean eztabaidatu zan Senaduan, eta ekimena bertan behera geratu zan. Eta Eleiza Katolikoak daukazan onura fiskalak ezabatzeko proposamenari jagokonez, Zergen Lege Orokorragaz zerikusia daukanagaz kokatu beharko litzateke. Beraz, egia da 2016an Eusko Legebiltzarrera bialdutako txostenari heldu ezker, Bizkaian 74 ondasun ditugula immatrikulauta 32 udalerritan. Horreek aztertzeke eta kokatuta dagozan udalerriei informazinoa eta tresnak helarazteke eskatzen dogu, beti be udalerriek halan eskatzen badabe. Eta itxaron daigun ea estadu mailako nahaste-borraste hau zertan geratzen dan ikusteko, Batzar Nagusi gisa jagokuzan ekintzak gauzatzeko. Baina ez dogu hargo egingo, hori guztia ez dagoalako gure esku, beste erakunde batzuen pentsudan baino, eta beste esparru baten menpe, hala nola arlo judizialaren menpe. Horregaitik guztiagaitik, ez dogu Arauz Besteko Proposamen hau babestuko gure botoagaz. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Otermin Eraso. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora Presidenta. Salud, libertad y república vasca. Es un día indicado, sí, para hablar de los bienes injustamente inmatriculados por la Iglesia durante años.

Desde EH Bildu llevamos mucho tiempo intentando devolver a los propietarios naturales los bienes que pertenecen al pueblo y los bienes inmatriculados indebidamente por la Iglesia Católica.

Durante el anterior y presente mandato, EH Bildu ha planteado diferentes propuestas en este sentido.

Una de las últimas fue una pregunta formulada por el parlamentario Jon Iñarritu el pasado mes de enero en el Congreso español: ¿cuáles eran los bienes matriculados indebidamente por la Iglesia Católica?

Precisamente, en febrero, como ha señalado el señor Otermin, el Gobierno español remitió al Congreso el inventario de bienes indebidamente matriculados. La emisión de dicho informe fue aprobada en abril de 2017 mediante Proposición no de Ley formulada por el Partido Socialista.

Ha costado, casi han transcurrido 4 años, pero gracias a él sabemos que hay casi 35 mil bienes indebidamente matriculados por la Iglesia Católica en todo el Estado. Bizkaia

no es un territorio que tenga muchos bienes de este tipo, pero sabemos que hay 41 bienes indebidamente matriculados, de los cuales 31 son fincas o parcelas, y en 28 de ellos no hay ningún título distinto al de la Iglesia.

Es verdad, como se ha comentado, que los datos aportados por el Parlamento Vasco son diferentes. En cualquier caso, es un paso, pero no suficiente. Por ello, tanto en el Congreso junto a ERC como en el Parlamento de Navarra y en el Parlamento Vasco, EH Bildu ha presentado propuestas para la reversión de dichos bienes.

En la Proposición No de Ley que se encuentra en su último trámite en el Parlamento Vasco se propone la creación de una comisión especial (compuesta por representantes de las Diputaciones Forales, de EUEDEL, juristas e historiadores) para la defensa y recuperación de la propiedad de los bienes indebidamente matriculados

Como consecuencia del trabajo de la Comisión Especial, también hemos propuesto facilitar a los Ayuntamientos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa información jurídica e histórica sobre el origen y derechos de los bienes comunales y apoyar a los ayuntamientos que deseen recuperar sus bienes.

Por lo tanto, en esta Proposición No de Norma presentada por Elkarrekin Bizkaia y que ahora se debate, aparecen los contenidos presentados por EH Bildu en otras iniciativas. Por ejemplo, en el punto 1 a) se plantea apoyar activamente a los municipios de Bizkaia en la recuperación de los bienes inmatriculados indebidamente por la Iglesia Católica en el caso de que las hubiere. Y estamos totalmente de acuerdo con este punto. En este sentido, también hemos logrado un amplio consenso en el Parlamento de Navarra (que ha sido de todos los grupos, salvo UPN).

Pero hay que señalar que esta Proposición No de Norma presentada por Elkarrekin Bizkaia contiene diferentes cuestiones:

- 1) Los mencionados bienes indebidamente inmatriculados
- 2) Los impuestos que debe pagar la Iglesia Católica y
- 3) consignaciones nominativas que la Iglesia Católica recibe de la Diputación Foral de Bizkaia (y este es el título del PNN)

En cuanto a la primera, en relación con los bienes indebidamente inmatriculados, a la que me he referido anteriormente, totalmente de acuerdo con apoyar a los municipios en la recuperación de dichos bienes.

Y relacionado con ello está también el punto 1 c): Llevar a cabo un estudio tanto de los bienes inmatriculados en las últimas décadas como de aquellos inmuebles de la Iglesia Católica empleados con fines lucrativos.

En este caso se añaden los que se utilizan con ánimo de lucro, lo que también es importante de cara al pago de impuestos. Así que estamos de acuerdo.

En cuanto a los impuestos, hay dos propuestas. Una dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia, punto 1 e), Modificar la normativa foral necesaria a fin de permitir a los ayuntamientos de este Territorio el cobro de los impuestos de los bienes inmuebles de las religiones.

Este punto es, en opinión de EH Bildu, el más importante. ¿Por qué? Porque es nuestra competencia. Y la Diputación Foral de Bizkaia debe abrir cauces para que se

paguen los impuestos de los bienes inmuebles de la Iglesia Católica que se utilicen con ánimo de lucro. Y ahí está la cuestión del Seminario de Derio, que el Ayuntamiento ha solicitado a la Diputación la apertura de la vía para el cobro del Impuesto de Bienes Inmuebles, petición a la que todavía no ha dado respuesta concreta. Tenemos tarea. Por eso decimos que es importante, porque lo tiene que hacer la Diputación Foral de Bizkaia, porque lo puede hacer y aún no lo ha hecho.

Además, en el segundo punto se insta al Gobierno español a eliminar los beneficios fiscales de los cuales disfruta la Iglesia Católica. Y ahí sí habrá que cambiar el Concordato y eso es competencia del Estado.

Estamos de acuerdo con todos los puntos mencionados hasta ahora. Pero tenemos más dudas en los puntos relativos a las consignaciones nominativas.

Bueno, EH Bildu no está de acuerdo en utilizar tanto la vía de las consignaciones nominativas, nuestra apuesta es que las ayudas se concedan a través de convocatorias de subvenciones. Pero bueno, aquí estamos hablando de lo que se ha dado a la Iglesia Católica. Y en la PNN de Elkarrekin Bizkaia hay dos propuestas:

1b) Reclamar al obispado de Bilbao y a la Conferencia Episcopal Española la devolución de las Consignaciones nominativas para el mantenimiento de su Patrimonio desde el año 2016.

1d) Eliminar las partidas presupuestarias destinadas a bienes con titularidad de la Iglesia Católica mientras dicha institución no devuelva aquel patrimonio inmatriculado y que por tanto no le corresponde.

Estamos de acuerdo con esto último como presión para que devuelvan los bienes indebidamente inmatriculados. Y es "a posteriori".

Pero la otra no la vemos. Explicaré en el segundo turno por qué no estamos de acuerdo con el punto 1. d). Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, gracias señora Presidenta, y buenos días a todos y todas. Azaldu da, nahiko eztabaidatu da Elkarrekin Bizkaia Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenaren edukia. Laburtzeko, Foru Aldundiari eskatzen jako udalerriei lagundu deiela, Eleiza Katolikoaren izenean immatrikulau diran baina bere jabetzakoak dirala uste daben ondasunak berreskuratzeko interesa daukien kasuetan. Horregaz batera azken hamarkadetan bidegabe immatrikulautako ondasunak zeintzuk diran aztertzeko eskatu da.

Alderdi finantzarioena, 2016ko ekitaldia ezkeroztik Eleiza Katolikoko hainbat erakundek beren ondarea mantentzeko jaso ahal izan dabezan kopuruak eskatzeari buruzkoa, eta Foru Aldundiak dituan aurrekontu-partidak ezabatzeari buruzkoa, nire aurretik berba egin dabenean esan daben moduan, beti be ez badot itzuli behar matrikulautako ondarea, ez bidegabe matrikulautakoa, idatzita dagoana da immatrikulatua. Eta gero zerga foru-araudia aldatzea, edo zergei buruzko foru-araudia aldatzeko eskatzea; eta, aldi berean, Eleiza Katolikoaren zerga-onurak ezabatzeako eskatzea Gobernu zentralari.

Lo primero que hay que señalar por mi parte es que, efectivamente, no vamos a votar a favor, vamos a votar en contra de esta Proposición no de Norma que se ha presentado. Estamos de acuerdo con algunos puntos, pero en otros casos tenemos serias dudas en varios puntos. Al fin y al cabo, creo que también el señor Escalante a la hora de hacer declaraciones y cuando ha dado explicaciones, en varios puntos no ha mencionado y concretado exactamente lo que está redactado en esta Proposición no de Norma.

Zalantza batzuk daukaguz hainbat punturi buruz, eta horreek izango dira kontrako botoa emoteko errazoaia. Lehenengo alderdia formala da, edo uste dogu ez dagoala zuzen idatzita. Gobernuari eskatzea, ez dakit zelan idazten dauen, Gobernu Zentralari edo Espainiako Gobernuari Eleizak lortu leikezan onura fiskalak ezabatzeko; zalantza barik, ez jaku lan erraza iruditzen edo ez dirudi, edo, behintzat, nik ulertzen dot agian ez dala gobernuak, Gobernuak, bere horretan, aurrera eroan leiken gai bat. Nik uste dot ez dauela idazketa asmatzen edo ez dauela ituan jo. Egia esan, ez dakit guztien jatorria, baina onura fiskalen zati handi baten jatorria, egiaz, Espainiako Erresumaren eta Vatikanoren arteko akordioetan dago, Konkordatu deitu izan dana, eta onartu izan diran azkenak, Alderdi Sozialistaren bozeramaileak esku-hartzean aitatu dituan dokumentuak edo akordioak. Eta nazinoarteko itunaren izaera daukien akordioak dirala, gure gustukoak izan daitekezanak edo ez, baina une honetan ordenamentu juridikoaren parte diranak, eta zerga-onura batzuk ezartzen dabezanak.

Arazoa da akordioak berak ez dauela jasoten edo ez dauela ezartzen zelan aldatu, eta, ondorioz, beharrezkoa dala Nazinoarteko Zuzenbidera jotea. Eta zailtasun erantsia da ez dala Gobernuaren eskumen soila; oker ez banago, Gorte Nagusiek eskatu beharko leukie aldaketa. Eta horrek, nire ustez, zergetan daukagun araugintza-ahalmenari be eragiten deutso. Izan be, Foru Aldundiari eskatzea erreferentzia aldatzeko, adibide modura, ondasun higiezinaren gaineko zerga, eta Eleizearen jabetzei buruz grabatu ahal izateko, gure IBiren foru-araua aztertu beharko litzateke. 3.1 artikulua ezartzen dau zeintzuk diran salbuespenak, salbuesitako higiezinak. d) atalean Eleiza Katolikoarenak aitatzen dira, ez zehazki. Eleiza Katolikoarenak aitatzen ditu, Espainiako Estatuak eta Vatikanok 69ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruz egindako akordioan aurreikusitako baldintzetan.

Tamalez, halan da, eta barriro dinot, gustatu ala ez, gustatu ala ez. Alde horretatik, Foru Aldundiak ez dauka eskumena edo ez ditu zerga-leggedian aldaketak egiten, Batzar Nagusiek baino. Arauz Besteko Proposamenaren planteamentuak be zalantza asko sortzen deuskuz.

Azkenik, beste alderdi garrantzitsu bat da Eleiza Katolikoko hainbat erakundek, haren ondarea mantentzeko, 2016tik jaso dabezan zenbatekoak itzultzea, Arauz Besteko proposamenean bertan adierazten dan moduan, eta Foru Aldundiak kontsignautako aurrekontu-partidak ezabatzea, Eleizak immatrikulautako ondare hori, eta bereaz berea ez dan ondare hori itzultzen ez dauen bitartean.

Zentzu horretan, ez jako erreferentzia egiten behar ez dan moduan immatrikulatutako ondareari. Eztabaidagarria izan daiteke presinoa egin behar dan ala ez, aurreko parte-hartzaille batek esan dauen moduan. Hemen aitatzen dana da, Eleiza Katolikoak bere izenean immatrikulauta egotearen eta bidegabe immatrikulauta egotearen arteko identifikazioa bilatzen da, benetan ez liratekeelako Eleizaren jabetzak izango. Alde horretatik, gure planteamentua da, zalantza barik, Eleiza Katolikoaren erakundeek jaso dabezan kopuruak behar bezala justifikauta dagozala eta behar bezala arrazoituta dagozala, bai eta zergaitik egin diran ordainketa eta laguntza horreek be. Arauz Besteko Proposamenak berak azaltzen dau, gitxi gorabehera, zergaitik, gehienak Kultura Ondarearen Zerbitzutik datozen. Zerbitzu horren lana, batez be, kultura-ondarearen beraren kontserbazino eta hari balioa emoteko zabaldundera bideratuta dago. Hain zuzen be, ondare baten balioa nabarmentzea eta hori mantentzen laguntzea, horren kontserbazino egokia bermatzeko eta ondare historiko eta kulturala sustatzeko.

Horregaitik, guri ez jaku gustetan gauzak nahastea, eta uste dogu, zalantza barik, ez dala egokia diru-kopuruak itzultzeko eskaera horreek egitea.

Gutziz ados gagoz, argi geratu daitela, Arauz Besteko Proposamenaren beraren helburu askogaz. Gure ustez, beharrezkoa da zenbat eta informazio gehiago batu, Eleiza Katolikoak immatrikulatu dituan ondasunak zein diran behar bezala aztertzeko. Ikerketa baten datu batzuk ez datoz bat beste batekoakaz, baina aztertzen saiatu diran denpora-eremua be ez dalako bardina. Eta erabat ados gagoz udalen batek azterketa bat egiteko eta jabetzan jagokona erreklamatzeko laguntza eskatzen badau, Foru Aldundiak laguntza emon beharko dauela. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Y pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Gracias de nuevo. Egia esan, gaur defendatzen dogun ekimena joan dan 2020ko azaroaren 30ean erregistrau zan. Zuzenketak egiteko denpora egon da, hobetzeko be bai segurutik, eta zabalik egon gara, ez da holan izan. Halanda be, puntuka bozkatzeko aukerea dago, gauza batzukaz ados egon ezkerro edo ez.

Zergaitik ekarri dogu hau hona? Gogoratuko dot. Ekarri dogu Ganbera honen 2016ko akordio bat dagoalako, eta uste dogu gaur arte ez dala bete. Baina, gainera, orain asko ez dala, Eleizeak immatrikulatutako ondasunen zerrenda eguneratua atera zan, denpora batez gobernuan egon zana, Espainiako Parlamentuan, eta abar. Baina eguneratuta daukagu. Zerrenda hori gaur egungoa da. Zerrenda osoa frankismoaren garaitik izango litzateke, eta hori kontuan hartu behar da.

Zertaz ari gara, honen jatorriaz. Otermin jaunak xehetasun gehiagogaz azaldu dau, baina nik kontu garrantzitsu edo oinarritzko bi hartu nahi ditut. Alde batetik, inmatrikulazioak, neurri baten, XIX. mendeko desamortizazioen erreplika gisa egiten dira; eta, bestetik, Eleiza Katolikoari emoten jakon sari komun bategaitik, eta hori gai bi horreetan egiten dau frankismoak, hain zuzen be horregaitik, elizea erakunde gisa egoalako, estatu espainiarrean be bizi zan multinazional gisa, hain zuzen be Bigarren Errepublikaren amaieran kolpisten alde egin ebalako.

Bestalde, adierazi nahi dogu Eleiza Katolikoak zer pribilegio dituen hemen finkatuta egon daitekezan beste konfesino edo multinazional batzuk ez daukiezanak. Urrin joan barik, urtean 11.000 milioi euro inguru dira Administrazio Publikoarentzat. Zerga-salbuespenak dirala-ta, ez dakit Estaduan 2.000.000 € inguru ziran. Baina, gainera, Estaduak, hain zuzen be, Konkordatuak aginduta, gaur indargabetu behar ez dogunak, ez dauka itxurarik, ez daukagulako gaitasunik, baina ez da hemen eztabaidatzen gabilzan gaia, konpentsau egiten dau. 11.000 milioi euro horreek konpentsatzen ditu, enpresa horrek gero eta jarraitzaile gitxiago ditualako.

Esan behar da, eta ezin dogu ahaztu, herri honetan dagoan tradizio batek ekarri dauela edo hortik datorrela, katolizismoak, eta, beraz, jakina, Islamak edo beste edozein erlijinok baino ondare handiagoa daukala. Hori ezin dogu alde batera itxi. Ez da bidezkoa, ostera, Eleizeari horretan laguntzeko eskatu jakonean, ez dauela egin, eta, gainera, Aldundia apur bat paganini egiten dabilela, hori berrikusten egon behar ebanean.

Aurretik aitatu diran gaietako batzuk dagoz, nik neuk be aitortu dot aurreko azalpenean, guri ez jagokuzanak. Beste erakunde baten defendatzen dan zerbait babesten gabilz. Baina hemen herritarren segurtasunaz hitz egin dogu, guri ez jagokuna; edo Hezkuntza Legeaz,

guri ez jagokuna; eta ez dago arazorik. Hemen eztabaidatzeko gagoz, hau legebiltzar bat da, politika eztabaidatzera gagoz, ideiak kontrajartzera, eta azkenean zehaztapenak aurrera ateratzera.

Kontua da pribilegio horreeka, eta kontuan izanda hartutako erabagi hori, ze gainera, erakunde bati, multinazional bati, Eleiza katolikoari, obrak ordaintzen jakoz. Adibidez, Tuterako katedrala meskita bihurtzeko lanak ordaindu beharko geunkez? Ze hori be Ondare Historikoa da. Bai, Bizkaitik kanpo dago, baina Najerako monasterioa be bai.

Ikerketa be gastua da, baina, hain zuzen be, Aldundiak beharbada inbertidu behar ez eban dirua berreskuratu gura dogu, inbertidu behar ez zituan gaietan. Eurokopa be alperreko eta zentzubako gastua da, eta hor jarraitzen dabe ikerketa hau zalantzan jartzen ebenek.

Eta gero, azkenean, uste dogu planteetan doguna bidezkoa dala, beharrezkoa dala. Gure ustez, 2016an hartutako ekimen honetan sakontzen jarraitu behar da, eta zaindu beharreko ondare kultural historikoa euki arren, lehenengo eta behin akordio hau aplikatu beharko geunke, udalerriakaz lankidetzan jardun, horreetako askok ez daukielako gaitasunik ze ondasun daukiezan immatrikulauta aztertzeke eta aurrerapen hori errazteke. Gure aldetik hauxe da dana. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Escalante Mesón. Tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andrea: Eskerrik asko, presidente andrea. Bai, argi eta garbi eztabaidatu danataz eztabaidatu daiteke, baina errespetu osoz. Nire ustez, aspaldiko eztabaida baten aurrean gagoz, batez be irrealia dan arazo baterako. Hau eztabaidatu izan da Kongresuan zeuk esan dozun moduan, Eusko Legebiltzarrean, baina zer gertatu da azarotik hona eztabaida hori egin behar izateko? Hori galdetzen deusat neure buruari, kontuan hartuta Ganbera honen aurretiazko akordio bat dagoala. Badago gizarte-alarmerik bizkaitarren artean? Bizkaiko udalen erreklamazio-uholdea, Eleiza Katolikoak bultzatutako ustezko ondare-espolio bati buruzko eztabaida azaltzeko? Ba nik uste dot esan geinkela, huts egiteko bape bildur barik, ez dagoala halako alarma sozialik. Batzordean egin zan interbentzinoan esan neutsun moduan, argi geratu zan udalek Foru Aldundiko ateetara masiboki joan barik, kasurik onenean, oso kasu puntualen bat dagoala.

Beraz, argi dago Arauz Besteko Proposamen honen azpian dagoana ez dala benetako arazoa, eztabaida ideologiko eta alderdikoi, zahar eta zaharkitu bat baino, esango neuke. Eta beste batzuetan be gauzatu izan dana. Beno, eta esatea Arauz Besteko Proposamen hau onartzen bada eta bertan jasoten diran akordioak onartzen badira, egoera demokratikoagoa eukiko dogula, nire ustez gehiegizkoa da, baina pentsetan dot batzuetan eztabaiden berotasunean gertatzen dala. Baina, edozein kasutan, espolioez, bide bako laguntzez edo laguntza harrigarriez berba egiten hasi gara; izan be, nik ez dakit Espainia herrialde demokratikoagoa dan orain diru-laguntza handia emon deusagunean adibidez, Plus ultra aireontziei, jakina, Eleiza Katolikoak foru-kutxetatik jasoten dauena baino askoz be handiagoa, kontuan hartuta interes orokorreko gaia dala herrialdearentzat, gure herritarrentzat eta gure udalentsat.

Beno, ba horixe, laguntzen eta estadu demokratikoen arteko lotura horreek ez dabe eztabaida serio eta lasaia jasaten. Arauz Besteko Proposamen honegaz, gure ustez, gaiari buelta bat emon gura izan jako, besterik ez. Gauza bat egin dozue gaur tribuna honetan, zarata, zarata eta zarata gehiago. Baina gai hau neutraltasun ideologikotik aztertzen bada, ziur

asko hori ez da erraza, Bizkaian gai horri buruz ez dago kasurik, ez dago benetako arazorik, ez dogu benetako arrazoi garrantzitsurik aurkitzen dagoeneko onartuta dagoanari jagokonez ekintza barriak hasteko. Guk ezin dogu pentsau barik itxi batzuetan Eliza Katolikoak, beste edozein erakundek edo persona taldek bezala, okerreko gauzak egingo dituana, eta beharbada bere izenean jarri behar ez dituan gauzak jarri dituala, baina horretarako be badagoz erreklamazio eta jardun juridikoaren xede izan daitekezan bideak, eragina jasaten dabenek erreklamazio daie, euna dana.

Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren txostenak aitatu dira. Arduradun publikoengandik eta erantzukizun publikoak egikaritzeko aukera daukagunongandik garrantzitsua iruditzen jat, aurrez ez epaitzea, froga barik ez salatzea, ez emotea edozein informazio ziurtzat, ezpada akusazio hain larriak egiten diranean eta batzuek jarduerak eratortea gura dabenean, nik esango dot gainera diskriminatzaileak dirala, eta, beharbada, legez kanpokoak, eta orain aitatu dot lehenengo parte hartzean atera dodan Konstituzio Auzitegiaren epaia, ba nire ustez onenean be ez da arduratsua, eta hori ez da nire taldearen estiloa, ezta izango be tribuna honetan berba egiten dogunean.

Egin behar diran aldaketak aitatu dituzu, eta denpora faltaz ezin izan deusut erantzun lehenengo esku-hartzean, planteamendu fiskaletan. Politika, dinozu, danataz eztabaidatu daiteke. Jakina, danataz berba egin geinke, zorrotzago edo ez. Baina egin ezin da danetik egin, muga bat dago. Hemen aitatu da Ganbera honetan, batzuek apirilaren 14an ospatzen dabena. Izan be, askatasunaren muga legeak betetea eta epaiak betetea da. Eta bada Konstituzio Auzitegi bat, 2013aren amaierakoa, argi eta garbi esaten dauena zerga-araubideak, gureak, errespetatu behar dauela Estaduko Araubide Orokorra, eta ezin dala nazinoarteko itunen aurkakoa izan. Eta zentzu horretan, 1980ko Erlijio Askatasunari buruzko Legeak, 7.2 artikuluan, aurrekusten dau Estaduk lankidetzak-akordioak edo -hitzarmenak ezartea eleiza, konfesio eta erlijio-komunidade jakin batzukaz, bai eta ordenamendu juridiko orokorrean irabazi-asmorik gabeko eta ongintzako jardueretarako aurreikusitako zerga-onurak zabaltzeko aukerea be.

Nik ez dot aukerarik euki, zuk planteatu dozun Eleiza Katolikoan hierarkia bakarrik kontuan hartzen dozulako. Bizkaitar askok parroketan be lan egiten dabe. Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagozan persona behartsu asko, eta Caritas bezalako erakundeetara jotzen dabena. Izan be, eztabaida ideologiko horreei heltzen deusezuenan, zati bati bakarrik erreparetan deusazue, inoiz ez inpartzialtasunetik, beti partzialtasun ideologikotik, beti sektarismo ideologikotik. Nire ustez, gai honetan, bizkaitarrok, oro har, gure erlijio-sinesmenetatik eta praktiketan edo ez praktiketan dogunetik harago, ikuspegi toleranteagoa daukagu, zabalagoa, eta esango neuke ez hain zaharra, apur bat modernoagoa, aurreratuagoa, gure ustez dana erakunde desbardinaren eta laugarren sektorearen arteko sinergien batura dala, eta Bizkaia hobea egiten saiatzeko. Berreskuratu daiguzan benetako eztabaidak, eta ez gaitez galdutako eztabaida zaharkitu eta irraletan. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Es el turno del grupo Socialistas Vascos. Por lo tanto, tiene la palabra el señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Nik, nire lehenengo hitzaldian, normalean, gai gaxak diranez, mamin handikoak, azalpen bat emon dot, gerorako geratu daiten zer gertatu dan immatrikulazioen gaiagaz. Eta, bide batez, Eleizeari buruz berba egin dogunean, Vatikanogaz dagozan Konkordatuak gogoratu behar izan ditugu, ez bat bakarrik, 1737. urtetik aurrera dagoz konkordatuak eta, eguneratuta. Konkordanteek nazinoarteko akordioaren maila daukie, estatu bik osotuten dabezalako.

Gero, immatrikulazioen gaia, zelan eboluzionau dauen, zer immatrikulau eitekean, zer beste gauza ezin ziran immatrikulau, Jabetza Erregistroa 1831koa dala, ordura arte Jabetza Erregistrorik ez egoala. Errealidadea da.

Baina gehiago sartu izan bagina, aurkituko geunke jabetza-immatrikulazioak dagozala, ez bakarrik Eleizarenak edo beste erlijinoren batenak. Estadu espainiarrean hori aitortzen jaken lau erlijino dagoz: erlijino judua, eleiza ebanjelikoak, Islama edo erlijio musulmana, eta Eleiza Katolikoa. Horregaz esan gura dodana da, Gerra Zibilagaitik eta holakoen ondorioz, galtzaileei kendutako ondasunen immatrikulazio bidegabeak egin izan dirala. Eta hori guztia giroan dago. Hori planteatzen jakunean, nire buruari egiten deusadan galdera da: eta zer egiten dabe Batzar Nagusiek historia honetan, ze hori Diputaduen Kongresuan dago, Senaduan eztabaidatzen dabilz, bost bider eztabaidatu da honezkero Eusko Legebiltzarrean, txosten bi dagoz bata 2016koa eta bestea 2018koa, formala zabalik dago partikularrek, udalek zein partikularrek, erreklametako aukerea euki daien, eta zelan egin behar daben, zer geratatu dan egoera honetara heltzeko. Jakina, batzuetan egoera lotsagarria da, pribilegioak erabilia norbaitek zelan egin dituan halako gehiegikeriak, ondarea eskuratu. Urrin joan barik, Kordobako katedrala da Kordobako Gotzaindegiaren izenean erregistrauta dagoan katedral bakarra, nahiz eta katedralak ez dagozan inongo gotzaindegiren izenean erregistrauta. Tenplu guztiak herri-onurakoak dira.

Horregaz guztiagaz zera esan gura izan dot: lehenengo eta behin, ez dot ikusten Batzar Nagusiek honetan sartu behar dogunik, ez dalako egon bizkaitarren jabetzakoa zan ondarerik, bidegabe kendu edo immatrikulau jakonik. 37 udalerrirenak dira, 74 jabetza, eta jabetzen zerrendan sartzen zaranean, konturatzen zara parrokia-etxeetako eranskinak dirala, edo nonnon dagozan orubeak, edo ermita abandonaturen bat. Hemen, Bizkaian, ermita asko daukaguz, eta ermitaren bat eleizaren jabetzakoa izatera pasau dana, norbaitek immatrikulau ebalako, beste barik, horreetako asko dohaintzaz eta auzotarren jardunaren bitartez egindakoak izan ziran.

Nik ez deusat besterik ikusi. Udalei babeska emotea. Eskatu ezker, lagundu egingo jake. Baina Jabetza Erregistroa ez dago Aldundian, eurek daukie, udal bakotzak jabetza-erregistro propioa dauka, eurek dakie zein dan euren errealidadea. Zertan lagundu ahal deusagu, eurek ez daukien ezagutzaren bat bilatzen akaso. Guk ez dakigu zer behar daben, eskatu egin beharko leukie.

Bi. Partikularrak be badagoz, benetan espoliauta sentidu leitekezanak, familien ondarea eleizara pasau dalako eurek jakin barik zelan. Baina horretarako badago bide judicial bat, eta badago hori garatu ahal izateko oinarritzko informazio bat.

Eta hortik pasetan gara Eleizari ez ordaintzea gura dan diru-kopuruetara. Kontu hori ondino sakonagoa da, hau da, Zergei buruzko Lege Orokorra, zehaztopen guztiak eta gure zerga-sistema osoa, eta ditugun diru-laguntza eta betebeharrak guztiak, nazinoarteko akordio batzuetan oinarrituta, adibidez Konkordatuan. Beraz, Batzar Nagusiek egin behar dabe hori? Egin leukie hori? Guk gure zerga-araua eta Estadutik datorrena bateratu behar ditugu ba-ta, ezin dogu bat-ta gure kabuz joan. Horregaitik, nire planteamentua azkenean hau zan: zergaitik ez dogu itxaroten hau eboluzionau arte eta zertan eragiten deuskun eta zer egin geinken ikusi arte, edo zer eskatuko deuskuen Estadutik harmonizetako. Ze gaur egun, gai honetan inizatiba guk hartzea hain da gatxa, hain korapilotsua, gero esateko tope honetara baino ezin gara joan, nire ustez, halako gauzei eskaini ezin deutsegun denporea gastetako modu bat da. Egia da hori 2020ko azarotik datorrela, Arauz Besteko Proposamen honetan mahai gainean dagoala. Baina nik ziurtzat jotzen neban Espainiako Estaduak aurtengo otsailean egingo dauen zerrendea aurkeztuta bertan behera geartuko zala. Ez da geratu, beraz, aurrera egin.

Guk ez dogu Arauz Besteko Proposamen hau babestuko, gatx be gatx ikusten dogulako hemen eskatzen jakuzan osagaietako bat bera be Batzar moduan bete ahal

izatea. Horregaitik, abusu bat egon dalako kezkeagaz bat eginda be, immatrikulautako guztia ez da abusuaren emaitza, eta eremu hori bereiztea garrantzitsua da, eta ezin gara holako gauzetan aurreiritziakaz ibili. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Otermin Eraso. Y ahora, tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora Presidenta. Finalizaré el punto que no me ha dago tiempo en el primer turno. Es decir, decía que para nosotros hay un apartado, y es el de las consignaciones nominativas que consideramos un poco dudosas.

No tenemos problemas con el punto 1 d). Lo hemos dicho, eliminar las partidas presupuestarias destinadas a los bienes de titularidad de la Iglesia Católica, mientras esta institución no devuelva el patrimonio no matriculado, y que, por tanto, no le corresponde.

Podemos entenderlo en forma de presión, y es a partir de ahora, cuando se debaten los próximos presupuestos. Hay que decir que EH Bildu ha planteado en numerosas ocasiones como enmienda la retirada de estas consignaciones.

Pero en el otro punto, el punto 1. b), se plantea su devolución a partir del año 2016. Nosotros eso no lo vemos. Por un lado, porque creemos que la exigencia de devolución debería estar argumentada, y supongo que para eso deberían ser al menos los bienes matriculados indebidamente, aunque sean patrimonio, si no eran suyos los que podemos exigir.

Pero deberíamos pedir mucha más concreción, y no vemos que sea asumible tal y como está. Y por eso queremos pedir que se vote aparte el punto 1. b), porque estamos de acuerdo con los otros puntos, pero en ese nos vamos a abstener.

Y sí en general, quiero plantear que no entiendo por qué tanto el PNV como el PSE no van a aceptar varios puntos. Se ha mencionado antes, había posibilidad para las enmiendas, pero también de votar punto por punto. Y yo he explicado en mi primera intervención cuáles son las diferencias. Y, por ejemplo, el punto 1. a) el apoyo a los ayuntamientos, eso está aprobado en 2016. Y, precisamente, cuando tuvo lugar el debate de 2016, EH Bildu presentó inicialmente una proposición, la Proposición no de Norma. Y PNV y PSE, en lugar de enmendar, en lugar de presentar enmiendas, presentaron otra Proposición no de Norma. Y eso fue lo que se aprobó, eso fue lo que se aprobó, y ahora votarán en contra de un punto que dice lo mismo. Y no diga que ya está aprobado, porque como no se ha hecho nada, entonces no sobra reafirmarlo.

Luego, en el punto 1. c) se plantea hacer un estudio, y hemos visto que hay diferentes datos, entonces tendríamos que ver cuáles están efectivamente matriculados indebidamente en Bizkaia, pero en eso se plantea otra cosa, y es sobre los bienes que se utilizan con ánimo de lucro. Y eso es importante para el otro punto, lo he dicho antes, del impuesto. Y lo del impuesto, lo siento señor Otermin, y supongo que el PNV también lo dirá, que aquí no tenemos competencias. Pero aquí tenemos la competencia, y el señor Iruarrizaga lo sabe, seguro que lo sabe, que aún tiene pendiente un punto, y es la petición que hizo el Ayuntamiento de Derio para que el seminario de Derio pague sus impuestos locales. Y ahí hay dos cosas, una es el impuesto de bienes inmobiliarios, y el impuesto de actividades económicas. Habrá que verlo ahí.

Y ahí está pendiente un estudio. Está pendiente, porque ahí está, por un lado, la Norma Foral del IBI, pero parece que lo que hay que modificar es la Norma Foral de mecenazgo. Y eso está pendiente, y eso es competencia nuestra, y ahí le debemos una respuesta concreta al Ayuntamiento de Derio, entonces nosotros creemos que eso es imprescindible aceptarlo.

Luego, en torno a consignaciones nominativas, nosotros una no la vemos, y veo que haya posiciones diferentes. Pero que PNV y PSE no apoyen los otros puntos realmente no entiendo.

Y quería decirle a la señora Amaya Fernández, por un lado, que el debate sí lo hemos hecho, pero el tema no está terminado, el tema no está agotado, porque ahí está pendiente, y hemos visto que tenemos listas, pero aquí el objetivo es devolver esos bienes indebidamente matriculados por la Iglesia Católica a sus propietarios natos. Y, para ello, todavía nos falta mucho. Y ha hablado de neutralidad ideológica; la ideología la tenemos todos, la tenemos nosotros, pero usted también, y no es casualidad que en el Parlamento de Navarra se consiga un consenso total para hacer la lista, publicarla y dar apoyo a los ayuntamientos, y el único que no está en ese acuerdo es UPN-PP. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y para terminar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, gracias de nuevo. Lehenengo hitzaldian esan dot, esan daigun, zer alderdigaz gagozan ados. Gure jarrera zein dan adierazteko, ez banatzeko asmoz edo Arauz Besteko Proposamena zatituteko, ze nire ustez osotasunean ulertu behar da. Zaila da bozkatzea, salbuespenen baten izan ezik, puntuz puntu, ez gagozalako zehazki, nosotros no estamos a favor porque en general estamos en contra, porque no nos gusta ese tono que tiene esta Proposición no de Norma por detrás. Y creo que lo he transmitido antes. El debate ha versado sobre una serie de puntos en los que la mayoría he manifestado por qué no estamos de acuerdo como grupo.

Gure eretxia zein da. Arazo bat dago, arazo bat dago. Ahalik eta informaziorik gehien eukiten ahalegindu behar da, informazio hori eskuratzeko behar diren azterlanak egiten, edo informazio hori eskuratzeko eskatzen, ez daukagulako eskumenik eta ez daukagulako gure eskuko informazio propiorik. Eta, zalantza barik, udalen batek laguntza eskatzen badau bere ustez jabetzakoak diran eta, aldiz, eleizearen izenean inskribauta dagozan ondasunak berreskuratzeko, ba zalantzarik gabe, halan eskatzen badau, laguntza emongo jako. Hori, adibidez, uste dot, funtsean, Bilboko Udalak orain dala gitxi onartu dauela, eta oraindik Eusko Legebiltzarrean bertan eztabaidatu barik dago immatrikulazioen gaiari buruzko eduki desbardina daukan Legez Besteko Proposamenen bat, zuzenketa bi izan dituanak antza.

Eta adibide bat jarriko dot; ze nik uste dot asmo txar barik egin dala orokorrean, baina ez jat gustetan Foru Aldundiaren jardura Batzar Nagusiek planteetan dogunaren edo gure jarreraren aurkakoa dalako sentsazioa geratzea. Aipatu danez, 2016tik aurrera, onartutako Arauz Besteko Proposamenak dino Bizkaiko Batzar Nagusiek Jaurlearitzari eskatzen deusiela Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera emon deiela lurralde historikoko toki-erakundeei beren ondare publikoaren jatorriari eta eskubideari buruzko informazio juridikoa eta historikoa, eta aktiboki lagundu deiela Eleiza Katolikoak bidegabeki immatrikulautako ondasunak berreskuratzen, halakorik balego.

Irudipena emon dau akaso, laguntza batzuk emon dirala, lehen planteau dodan moduan behar bezala justifikauta, balio historiko eta kultur balioko ondasunak behar

bezala babesteagaitik, eta gerora emon jakezala laguntzak immatrikulau diran edo Eleiza Katolikoak immatrikulau dituan ondasunei. Nik adibide argi bat jarriko dot, hainbat batzarkidek eskatu daben informazioarena.

Adibidez, Lekeitioko parrokia edo Santa Maria eliza. Bai Aldundiak jakinarazo euskunez, laguntza batzuk egon ziran 2017an, adibidez. Informazino hori 2018an eskatu zan eta 2018an emon zan. Izan be, 1998ra arte, kultu-ondasunak, eleizak, adibidez, jabari publikoko ondasunen moduan, ezin ziran Jabetza Erregistroan sartu, ez egozan Jabetza Erregistroan. Eta horregaitik gertatzen da, beharbada, data jakin batzuetatik aurrera ondasun asko immatrikulatzea. Ondasun bat 1998tik aurrera immatrikulau izanak ez dau esan gura txarto immatrikulauta dagoenik, jabetza Eleizarena ez danik legitimoki. Ondarearen, kulturaren eta artearen ikuspegitik garrantzi handikoa dan ondasun hori babesteko eta balioesteko laguntzak emon dirala, zalantza barik. Baina horrek ez dau esan gura Foru Aldundia Batzar Nagusien planteamentuen eta eretxien aurka joan danik, ezta gutxiago be. Hori argi itxi gura neban, besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. La señora Urkaregi Etxepare solicita que se vote por separado el punto 1. b). Pero para ello, tal y como dice el artículo 84 de nuestro Régimen, el autor de la iniciativa debe posicionarse a favor de la misma. El señor Escalante Mesón dice que sí, por lo que tenemos que hacer dos votaciones.

En primer lugar, sometemos a votación el texto completo, la Propuesta completa, excepto este punto 1. b). Por lo tanto, en conjunto, menos ese punto, votos a favor del mismo. Votos en contra. Y no hay abstenciones. Por tanto, el resultado es: 16 votos a favor, 34 en contra y ninguna abstención.

Y, a continuación, votos a favor del punto 1. b); votos en contra; y abstenciones 10. Por tanto, el resultado es de 6 votos a favor, 34 en contra y 10 abstenciones. No se aprueba este punto be 1. b). Por lo tanto, no se ha aprobado la iniciativa.

El cuarto punto del orden del día ha sido retirado. Por lo tanto, quinto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2020/0002799](#))

Autor: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Asunto: Medidas para evitar agresiones y abusos sexuales a niños y niñas en el Deporte Escolar.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2020/0002799](#)), ([R.E.11/E/2020/0002892](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (127A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (127B)

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2020/0002799SE](#))

Egilea: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Gaia: Eskola Kirolean haurren kontrako sexu eraso eta abusua saihesteko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0002799SE](#)), ([11/E/2020/0002892SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (127A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (127B)

Expediente: [\(11/B/26/0001887\)](#)

Espedientea: [\(11/B/26/0001887\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa; por lo tanto, tiene la palabra el señor Isuskiza Arana.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Gracias señora Presidenta, buenos días. Bueno, en el primer punto hemos llegado a un consenso, en este tema de la violencia machista, y ahora vamos a abordar un tema que tiene una misma base en relación con los abusos sexuales a menores. Presentamos esta Proposición no de Norma a principios de diciembre, tras el día internacional de la prevención de los abusos sexuales a la infancia, el 19 de noviembre. Y está claro, como hicimos el 8 de octubre, abordamos esa fecha para presentar esta propuesta.

Los abusos sexuales a niños han sido un problema oculto en nuestras vidas. Llevamos décadas y décadas como si no existieran. Por eso, y esa es la opinión, por supuesto, creemos que hay que admitir también que hemos fallado como sociedad en este tema.

Eta gizarte gisa huts egin dogula dinot, isiltasuna faktore oso garrantzitsua izan aelako adingabeen aurkako eraso eta abusu horreei hamarkada eta hamarkadetan eusteko. Indarkeria horren jatorri intrintsekoaz gain, jakina.

Parece, e insisto en que parece, que poco a poco la situación va cambiando, y que se están manifestando y aumentando las posturas contrarias a este tipo de ataques entre nosotros. Está claro, la repercusión que les dan los medios de comunicación ha facilitado esa labor de sensibilización en los últimos años, pero eso no es suficiente en absoluto.

Badirudi, eta azpimarratu nahi dot, egoera hori pixkanaka aldatzen doala, eta arbuioak gora egin dauela, baina sentsibilizazioak ez dau balio. Neurriak hartu behar dira.

Desgraciadamente, los casos que quedan ocultos son muchos más. Y, normalmente, la mayoría no se denuncian, y cuando se denuncian, las víctimas sufren una revictimización en la trayectoria jurídica.

Komunikabideetan agertzen diran abusu kasuak izozmendiaren punta baino ez dira. 5 adingabetik batek abusuak jasaten ei ditu, eta datu hori bildurgarria. Gainera, asteburu honetan komunikabide baten argitaratutako artikulua baten arabera, kasuen % 15 baino ez dira salatzen, eta horreetatik % 17 baino ez dira epaiketara heltzen. Bestalde, batez besteko biktimek lau aldiz deklaritzen dabela kalkuletan da, barriro biktimizetako bidea emonaz.

Cuando estos casos se hacen públicos, normalmente, es tanto por la lucha como por la valentía de las víctimas. Porque las víctimas tienen todo en contra.

Bildurrak, lotsak edo erruduntasunak haurrak geldiarazo egiten dabez hamarkadetan.

Estos ataques se producen generalmente en el ámbito familiar, estimándose en un 85%. Pero también en diferentes ámbitos sociales: en la educación, en el deporte, en el ocio... Estos últimos son los que tienen mayor repercusión mediática y los otros, es decir, los que ocurren dentro de la familia, los más olvidados, por desgracia.

En los últimos años, en Bizkaia, hemos tenido más de un caso que han tenido una repercusión mediática tremenda. Este tipo de casos nos sacude el interior cuando se

hacen públicos. Pero la sensibilización, como he dicho antes, sola no vale. Porque durante años ha reinado el silencio de la sociedad. Por ello, es imprescindible dar pasos y establecer medidas en los diferentes ámbitos.

Oihartzun handia edo oihartzun mediatiko handia euki eban kasuetako bat nire herrian gertatu zan, Basaurin. Pepe Godoyk, 46 urte zituala eta hamarkadetako sufrimendu pertsonalaren ostean, 2018ko azaroan, sareetan jarritako bideo baten bidez, heldu baten abusu txikiak jasan zituala aitortu eban. Adierazpen horren ondoren, eskola-kiroleko entrenatzaile bat denpora luzez entrenatu eban kirol-erakundetik kendu eben. Gainera, herrian zirrara handia eragin eban, tsunami baten modukoa izan zan, "Ez naz isilduko" izeneko plataforma bat sortu zan, eta aldeko manifestazio jentetsuak egin ziran. Baina ez hori bakarrik, Peperen salaketak salatzaile barri mordo bat ekarri eban atzetik. Zoritxarrez, danak preskribiduta egozan, bat izan ezik. Eta azken hori epaiketaren zain dago.

Beste alde batetik, eztabaida handia eragin eban sortutako egoeraren kudeaketa egokian kirol erakunde arduradunen papelak. Beharbada, eta beharbada dinot, zentzuna ez dalako zentzumenetan ohikoena izaten; tresnak, protokoloak eta prestakuntza euki izan balebez, erakunde arduradunek askoz hobeto kudeatuko eben gaia.

Por todo ello, presentamos esta propuesta. La Diputación Foral de Bizkaia, porque es responsable del Deporte Escolar, y, en consecuencia, en esta materia que es de su competencia, puede establecer medidas.

Proposamen hau aurkezten dogu, Aldundiaren zuzeneko eskumenean sartzen dalako, hau da, eskola-kirolean. Beraz, ez ostondu, mesedez, eskumen-alderdietan, hobekuntza hori ez onartzeko.

El 24 de noviembre el Gobierno Foral de Bizkaia firmó convenios de colaboración con las diferentes Federaciones Deportivas de Bizkaia para el desarrollo de actividades de deporte escolar durante la temporada 2020-2021. Analizados los textos de estos convenios de colaboración, se pone de manifiesto que no se exige ningún compromiso ni medida para combatir los abusos sexuales a niños y niñas a los que se ha hecho referencia anteriormente.

Aldundiak lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen ditu urtero hainbat federaziogaz, eskola-kirola garatzeko. Hitzarmenok aztertuta, agirian geratzen da ez dala ezelango neurririk edo konpromisorik proposatzen eskola-kirolaren garapenean adingabeen abusuari aurre egiteko.

Por todo ello, hemos presentado esta Proposición no de Norma. El primer punto es que las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia, a que para el desarrollo de las actividades de deporte escolar de cara a la próxima temporada, 2021-2022, en los convenios de colaboración que suscriba con las diferentes federaciones se incluyan en las cláusulas de los convenios las obligaciones para combatir los abusos sexuales a la infancia.

Hau da, federazioak sinatutako hitzarmenetan adingabeen abusua saihesteko neurriak hartzeko betebeharra sartzea proposatzen dogu lehenengo puntuan.

En el segundo punto, las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que junto con las federaciones que desarrollan el deporte escolar con sus diferentes departamentos y las asociaciones que trabajan en este ámbito, cree un grupo de trabajo para tratar y gestionar todo ello.

Eta, azkenik, esan dodan moduan, lantalde bat sortzea proposatzen dogu, Aldundiaren sail guztiek, eskola-kirola garatzen daberen kirol-federazioek eta arlo horretan lan

egiten daben alkarteek parte hartu deien, gai hori lantzeko eta kudeatzeko. Y sin más, quedo a la espera de sus respuestas y del segundo turno de intervención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Isuskiza Arana. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, que presentó una enmienda; por lo tanto, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias, señora Presidenta. Y buenos días.

Beno, hurrek jasaten dabezan sexu-eraso eta -abusuei heltzen ahalegintzen garanean, gatxa da, zeozelan, neskakan, mutilengan, euren inguruan, baina baita gizartean be, orokorrean, sortzen dauen sufrimendutik at ez egotea. Errealidade hori oso mingarria da, eta gizartearen inplikazioa eta sensibilitadea behar dira gatx horri heltzeko eta desagerrarazteko, ez diralako beti presente egon, eta gitxiago gertaeren larritasunaren mailan. Neska-mutikoei egindako sexu-erasoak eta -abusuak isilpean eta ezkutuan egon dira hamarkadetan, baina indarkeria matxistegaz gertatu dan moduan, persona askoren lanari eta inplikazioari esker, batez be biktimena berena, bidea aurkitzen jakin dabelako, aldez aurreko sufrimentu handiagaz, gai tabu izatetik agenda politikoen lehenengo lerroan dagoan gai batera igaroteko. Baina, oraindino be, oraindik asko dago egiteko zentzu horretan, eta errealidade horren azterketa kuantitatiboa egiteko zailtasunak berak be, oraindik neska eta mutil askoren sufrimentuari eta babesgabetasunari amaiera emoteko ze urrin gagozan erakusten deusku.

Argitaratutako azkenengo azterlanek eta txostenek Isuskiza jaunak ekimenaren aurkezpenean bota dituanen moduko gaiak aitatzen dabez; adibidez, Anar fundazioari buruzko datuak daukaguz, eta haurtzaroko sexu-abusuari buruzko azken azterlanean adierazten dau azken hamarkadan kasuak laukoiztu egin dirala. Eraikiz kolektiboak haurtzaroko sexu-abusuei buruzko txostena emon dau, eta hor dino ustea dagoala Europako haurren bosten bat, gitxienez, sexu-indarkeria motaren bateko biktima dala, eta, gainera, emaitza horreek nazioarte mailako azterketa guztietan errepikatzen dirala, gizarte-maila, kultura edo arrazaren arabera gora-beherarik igarri barik.

Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak be txosten bat egin eban iaz EAEko haur eta nerabeenganako indarkeriari buruz, eta datu guztiak berretsi ebazan. Errealidade hori dimentsionatzea gatxa be gatxa da, eta, gainera, ondorio larriak dakar, eta hemen daukaguzan eskumenen arabera jokatu behar dogu. Eta gaur egun PNN honegaz planteatzen dana eskola-kirolaren esparruan prebentzinoko, detekzinoko eta jarduketako elementu zehatzak sartzea da. Euskal Herria Bilduk proposatu dau federazioakaz sinatzen diran lankidetzeta-hitzarmenetan nahitaez bete beharreko klausula bat sartzea, eskola-kiroleko jardueretan parte hartzen daben haurren aurkako sexu-abusuak prebenitzeari buruzkoa, eta, era berean, proposatu dau gai hori garatzeko lantalde bat sortzea. Eta gure aldetik, beraz, guztiz ados gagoz proposamenaren helburuagaz, eta horregaitik, proposamena osotu nahi izan dogu, eskola-kirolaren eremu honetan neska-mutikoen aurkako sexu-abusuak eta -erasoak prebenitzeko beste tresna batzuk txertatuz.

Hiru zuzenketaren bidez egin dogu. Lehenengoak ekimenaren 2. puntua aldatzen dau, eta gaineratzen dau lantaldeak protokolo bat egin behar dauela eskola-kirolaren esparruan sexu-erasoak eta -abusuak detektatzeko, prebenitzeko eta eurotan jarduteko. Proposamen horren oinarria hau da: aurrea hartu eta detektatu ahal izateko, ezinbestekoa da funtzionamenturako neurri eta tresna zehatzak dituan euskarri bat izatea, halako programetan parte hartzen daben haurrakaz dabilzan profesionalen jarduna orientatzeko. Proposamen hori, gainera, bat dator Eusko Jaurlaritzak argitaratutako txostenean jasoten diran proposamenakaz; izan be, indarkeria jasateko arriskua murrizteko faktoreen artean dago protokolo eta jarduketa-

jarraibideetan araudia gauzatu behar dala, araudia behar bezala interpretatzen dala eta inplikautako eragileek behar bezala beteten dabela ziurtatzeko.

Era berean, proposatzen dogu protokolo hori Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren menpe dagoan Kiroleko sexu-abusuaren eta -jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurreko arreta-zerbitzuaren laguntzagaz lantzea. Zergaitik? Zerbitzu espezializatua dalako, eta honezkero badauka esperientzia kirol-arloko sexu-jazarpen eta -abusu kasuetarako informazioan eta arretan, eta, gainera, biktimei, euren ingurukoei eta federazio, klub eta alkarteei laguntza emotea dau helburu, gaur hizpide dogun gai horri jagokonez.

Bigarren, planteatzen dogu, era berean, urteko prestakuntza-programa bat garatzea eskola-kirolaren programan parte hartzen daberen erakundeentzat. Prestakuntza, ezagutza, prebentzio-elementu oso eraginkorra da, eta, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko aukera emoteaz gainera, langileek erespideagaz jarduteko aukera be emoten dau. Aurreko proposamenean moduan, zuzenketa hori Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren txostenean jasoten dan beste proposamen baten oinarritzen da. Proposamen horrek aurre hartzeko faktore garrantzitsutzat jotzen dau irakasle, monitore eta beste profesional batzuk prestatuta eukitea edkola-kirolean eta beste arlo batzuetan, aisialdian eta kirolean kasurako, ahalik eta arinen detektatzeko indarkeriak mota guztiak.

Eta, hirugarren eta azkena, proposatzen dogu foru-diru-laguntzen deialdietara sartzeko aukerarik ez emotea protokolorik ez daukien erakundeei, eta, beraz, aplikatzen ez dabenei prebentzio-elementu zehatzik, haurtzaroko sexu-abusu eta -erasoaren aurkako jarduketa detektatzeko elementurik. Gure taldekook uste dogu haurren eskubideak defendatzeko konpromisoak guztiok inplikatzen gaituela eta, neurri horretan, haurrakaz lan egiten dauen erakunde batek horreek beteten dirala zaindu behar dau. Eta, azken baten, haurren babesagaz inplikautako eta prestatutako komunitate bat eukitea da helburua. Nire aldetik, besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Egun on guztioi barrero. Egia esan, Arauz Besteko Proposamena irakurri nebanean, lehenengo inpresinoa kontrako botoa emotea izan zan. Nik eskola-kirola egin neban, gero errugbia egin neban nire bizitzako urte askotan, eta gero, gaztetasuna pilatu ahala, beste kirol batzuk egin ditut, orain ez hain bortitzak. Baina beti egin dot kirola, eta beti euki dot loturea kirol munduagaz. Eta inoiz ez dot horrelako sexu-erasorik ikusi, beti aurkitu dot errespetua, bardintasuna, diziplina. Adiskidetasuna, adiskidetasun handia, kirolera etorten dana beti.

Kezkatu egiten ninduan eta kezkatzen nau gaur aurkezten dan moduko proposamenean mezu okerra helduarazo leikelako gure gizarteari gure taldeetan edo gure probintziako kirol-jardueran gertatzen danari buruz, ze nik, esan dodan moduan, beti ikusi dot errespetua eta diziplina eta hezkuntza, edukazio handia. Halanda be, eta ikusirik talde batek kezka bat eukala, eta gero proposamen horri buruzko beste bat gehitu jakola, haurtzaroko sexu-abusuen mundu horretara hurreratu naz, eta txosten hori aurkitu dot, esaten dauena Europako 5 adingabetik batek sexu-indarkeria motaren bat jasan dauela. Baina ez dau esaten kirolean, esaten dau 5 adingabetik 1ek, ez kirol munduan, nik ez dot aurkitu txostenik esaten dauenik kirol munduan. Zein dago? Eta UNICEFen txosten oso garrantzitsu bat be aurkitu neban, eta uste dot hori aitatuko dodala; izan be, arazo bat dagoala ikusita, pentsau neban, beharbada urtenbide bat bilatzen ahalegindu behar da. Halanda be, uste dot gaur hemen planteetan dan urtenbidea, Arauz

Besteko Proposamen honetan, eta ulertu ez dodan zuzenketa honetan, edo ez dot entzun onartzen dan ala ez, baietz uste dot, gero esango dozue.

Nire ustez, planteatzen diran proposamenak ez dira egokiak. Prestakuntza egin behar izateagaz bat nator, derrigorrezkoa da gure entrenatzaileei, mutilei eta neskei prestakuntza emotea, arlo matxistan lan egiten daberen prestakuntzari buruz lehen berba egin dogun moduan. Ez dot ulertzen lantalde bat behar izatea, planteatzen dan moduan, adierazitako gutzia tratatzeko eta kudeatzeko. Nire ustez, eskola-kirolaz gabilzala, garrantzitsuagoa litzateke Aldunditik talde bat sortzea eskola-kirola egiten dan ikastetxeetara joateko, entrenatzaileei, irakasleei, gurasoei, seme-alabei horrelako arazoen barri emoteko.

Ez nator bat protokolo bat egiteko Elkarrekin Podemosek egindako proposamenagaz; esan dodan moduan, protokolo hori badago, UNICEFek eginda, Kirol Kontseilu Gorenak sinatuta. Hor aitatzen da kirol-arloan sexu-abusuak detektatzeko prebentzio-protokolo bat. Eskola-abusua eta sexu-abusua prebenitzeko jarduera-gidak sortuta dagoz 2018tik. Esan dodan moduan, gorputz-hezkuntzako entrenatzaileei eta irakasleei zuzenduta dago, hainbat hezkuntza-etapatan banatuta: 0-6 urte, 7-12 urte eta 13-17 urte. Gida batzuk dira, jarraitu beharreko jarraibide batzuk, kirol-klub guztiek jarraitu beharko leukiezanak, eta, esan dodan moduan, adin-tarte bakoitzerako egokiak izateko pentsauta dagoz; entrenamentuetan be emon daitezke, beroketetan, eta prestakuntza emoten dabe, nire ustez entrenatzaileek kirolean egiten dabena, ez bakarrik kirol hutsean, baita bizitza osoan be.

Eta, esan dodanez, gida hori adinen arabera banatuta dago, eta azkenengo adinean, 13 eta 17 urtekoan, hain adin korapilatsua izanda, asko sakontzen da, eta prebentzio-lana, abusua antzemateko lana eta kirol-instalazioek adingabeak babesteko ingurune izateko bete behar dabezan kalidade-estandarren zerrendak ezartzen dituan lana aitatzen dira; izan be, garrantzitsua da kirol-instalazioek baldintza estandarrek eukitea, Unicefek ezarritako moduan, inguru babesleak izan daitezkan.

Nire ustez, garrantzitsua da, eta sortuta dago; beraz, protokolo barriak sortzea, eta barriro dinot, ez jatalako egokia iruditzen, eta aplikatu Kirolen Kontseilu Gorenak onartuta daukana. Ez nator bat zuzenketa aurkeztu dituen azkenengo proposamenagaz, esaten danean eskola-kirolaren jardueratik kanpo itxi behar direla jarduera-protokolorik ez daukienak. Eskola-kirolaz gabilz, eta, beraz, kanpoan itxi baino gehiago, Aldunditik bialdu daitela jentea ikastetxe horreetan prestakuntza emoten, edo eskola horreek edo prestakuntza emoten diran lekuetara eta eurak joan daitezala bertara. Hau da, protokolo hori ez daukielako Aldunditik hartu leukiezan laguntzetatik kanpora ixtea, talde horreetako askok baliabide ekonomikorik edo holako protokolotan dirua gastatzeko gaitasunik ez daukienean, holangoak sortzeko eta ezartzeko, pentsau eizue protokoloak behartzen dituala ordezkari bat horretarako izatera. Talde askok ezin izango leukie hori bete. Orduan, nire ustez, badago protokolo bat, UNICEFek eginda eta Kirol Kontseilu Nagusiak onartuta. Nik uste dot hori Bizkaiko kirol-diziplina guztietan ezarri beharko geunkela eta, bera, abstenidu egingo gara. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto, tiene usted la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días a todos y todas. Eskola-kirolean sexu- eta adingabeen aurkako erasoetatik babesteko neurriei buruz eztabaidatzen gabilz gaur, eta esango deusuet zuen kezka gurea be badala. Bat gatoz eraso batzuk bistartzeko beharraz, zoritxarrez, gehienetan ezkutuan dagoz eta. Erasook igartea gatxa da, eta normalean ostondu egiten dira lotsagaitik, bildurragaitik edo errudun

sentimenduakaitik biktimen kasuan, eta koldarkeriagaitik gizartearen aldetik, edozein indarkeria-mota gertatzen dan guztietan lez.

Eta gure betebeharra da isiltasun hori apurtzen laguntzea, salaketen % 15 eskas hori areagotzeko behar dan konfiantza sortzea. Bat gatoz ahalik eta arinen detektatzeko protokolo guztiak indartu behar dirala, eta prebentzinoan eta sentsibilizazinoan lan egin behar dala zuzeneko jarduketan bitartez. Ulertzen dogu baita be, haurren aurkako abusuak eta erasoak berehala prebenitzeko eta erantzuteko mekanismo guztiak izan eta aplikatu behar dabezala administrazino publikoek. Ados gagoz, beraz, haurrak babesteko behar diran neurri guztiak hartu beharraz, eta, gaur, aurretik esandako horren guztiaren ganean proposatzen jaku Aldundiari eskatzea 21-22 denporaldian eskola-kirola garatzeko federazinoakaz sinatzen dituan hitzarmenetan haurren abusuak prebenitzeko betebeharrak sartu daizala klausuletan.

Eta, bestetik, lantalde bat sortzea abusu horreen prebentzinoa tratatzeko eta kudeatzeko. Honezkero talde guztiok dakizuenez, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak osorik babesteko lege organikoa egun gitxi barru sartuko da indarrean, Osoko Bilkuran onartzea baino ez dau falta eta. Lege horrek sakon jorratzen dau adingabeen babesa esparru guztietan. Lege horren 9. kapitulua kirolari eta aisialdiari buruzkoa da, eta hor ezartzen da administrazino publikoek, beren eskumenen esparruan, kirol-arloko indarkeria-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta eurotan esku hartzeko jarduera-protokoloak arautuko dabezala.

Adingabeakaz kirol-jarduerak egiten dabezan erakundeek nahitaez bete behar dabezan protokoloak, bai eta beteten dirala bermatu be. Babeserako ordezkaria nahitaez izendatu behar da, protokoloak beteten ez dabezan adingabeak jagon, informatu eta laguntzeko. Beharrezko neurriak hartzea ezartzen da, kirol-jardueran inolako diskriminaziorik gertatu ez daiten.

Izan be, neskatila izateagaitik bakarrik neskatoei egiten jakezan abusuen aurkako babesa jasoten dau, eta prestakuntza be ezartzen da. Batetik, espezifikoa, gaitasun desbardinei erantzun eta kirol inklusiboa garatu ahal izateko. Eta, bestetik, 5. artikuluan ezartzen da administrazino publikoek haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen arloko prestakuntza espezializatua sustatu eta bermatuko deusiela adingabeakaz hartu-emona daukien profesionaleri. Azkenik, sektore publikoko zein pribatuko langile guztiei eta boluntarioei sexu-askatasunaren aurkako deliturik egin ez izana egiaztatzeko betebeharra ezartzen jake. Bien bitartean, Aldundiko Kirol Zerbitzua lanean dabil koordinazinoan ingurune seguruak bermatzeko, lege barri horretan oinarritutako planak diseinatzeko.

Kirol Kontseilu Gorena federazinoakaz eta erakundeakaz be lanean dabil plan horreetan. Honezkero eskatu jake 2020ko legearen betebeharrak beteteko eta protokolo barriak ezarteko. Ikusten dozuenez, proposatzen dana nabarmen gauditua geratzen da; beraz, gure ustez, berehala beteteko lege honek jasoten dau Arauz Besteko Proposamen honetan proposatzen dana, eta aurrea hartzeko, babesteko eta konpontzeko behar diran konponbideak eta neurriak emoten ditu. Beraz, ez dogu beharrezko ikusten Aldundiari eskatzea, alde batetik, derrigorrezkoa dan zerbait egiteko, eta, bestetik, horretan lanean dabilz. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Campo Prieto. Y tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Iturrioz Rementeria.

La Sra. **ITURRIOZ REMENTERIA** andreak: Gracias señora Presidenta, y buenos días a todos y todas.

Tenemos hoy aquí la Proposición no de Norma presentada por el grupo EH Bildu y la enmienda del grupo Elkarrekin Bizkaia sobre medidas para evitar agresiones sexuales y abusos a niños y niñas en el deporte escolar.

En primer lugar, queremos mostrar nuestro más absoluto rechazo y preocupación por este tipo de delitos. La vulneración de los derechos de los niños, niñas o adolescentes es muy grave. Aquí se han mencionado datos conmovedores de verdad. No voy a repetir. La violencia contra ellos, desgraciadamente, puede producirse en todos los ámbitos en los que se mueven, es decir, en la familia, en la escuela, en el ocio y también en el ámbito deportivo. Es un problema muy grave, definido muchas veces como una lacra mundial, y a la vez delicado y complicado porque las víctimas son menores de edad.

Para empezar, hemos considerado necesario analizar el contexto legal de esta cuestión, para contextualizar lo que se pide en las propuestas. Hemos encontrado el proyecto de Ley Orgánica de Protección Integral de la Infancia y Adolescencia frente a la Violencia, también conocida como ley Rhodes. Esta medida legislativa fue publicada el pasado 19 de junio de 2020 en el Boletín Oficial de las Cortes Generales del Congreso de los Diputados y está a punto de ser aprobada.

Esta Ley establece en su artículo 5 que las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus competencias, promoverán y garantizarán la formación especializada, inicial y permanente en materia de derechos fundamentales de la infancia y la adolescencia a los profesionales que mantengan una relación habitual con las personas menores de edad. Dedicó un capítulo especial, concretamente el noveno, al deporte y al ocio. En ella se establecen una serie de obligaciones para las entidades que realizan actividades deportivas o de ocio con menores. Entre otros: obliga a las redes de centros de alto rendimiento y tecnificación deportiva, a las federaciones municipales y a las Escuelas a disponer de protocolos de actuación ante la violencia, incluyendo prevención, detección precoz e intervención. Convierte la figura de los representantes de protección en obligatoria. También especifica la formación específica para quienes trabajan con personas con diversidad funcional.

Si atendemos a los contenidos de la propuesta y enmienda que tenemos hoy para debatir y votar, no voy a lo que se concreta, porque antes ya cada grupo ha explicado las suyas, podemos concluir lo siguiente: que todo lo que se pide ya está en este proyecto de ley, por lo que, en cuanto se apruebe, las medidas propuestas serán de obligado cumplimiento. Vuelvo a repetir, que serán de obligado cumplimiento. Siendo esto así, no hay, a nuestro juicio, necesidad de pedir que se cumplan ya.

Por otra parte, tal y como he subrayado al principio de mi intervención, este problema que tenemos entre manos nos preocupa mucho. Para tener todos los detalles sobre lo que está haciendo la Diputación Foral de Bizkaia en torno a este tema, nos hemos puesto en contacto con el servicio de deportes para obtener información. Llevan más de un año trabajando en este tema. Dotar a todas las entidades deportivas de Bizkaia que participan en el programa de deporte escolar de las herramientas necesarias para que las personas menores de edad tengan un entorno seguro en el deporte. De hecho, la Diputación Foral de Bizkaia ha incorporado en todos sus convenios con las federaciones en la temporada 2020-2021, es decir, en la presente temporada, el siguiente párrafo en cuanto a las responsabilidades de las entidades participantes: "En la actualidad, la sección de deporte escolar de Bizkaia está elaborando y diseñando un plan de protección infantil en base al proyecto de Ley de protección de la infancia o la Ley Rhodes. Esta ley se está tramitando y, cuando se apruebe, se aplicará y tendrá también una gran incidencia en el ámbito del deporte escolar".

Por todo esto, adelantamos que nuestro voto será negativo. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Iturrioz Rementeria. Y pasando al turno de réplica, tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Isuskiza Arana.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Gracias, señora Presidenta, de nuevo. Voy a empezar hablando de la enmienda; ya adelanto que aprobaremos las enmiendas. Por un lado, el objetivo de nuestra propuesta inicial o de la propuesta original era ser bastante general y no entrar en concreciones, porque cuando entramos en precisiones, pues, da argumentos para conseguir el no. Y, en este caso, se ve que algunos partidos han tomado esa dirección. A pesar de ello, totalmente de acuerdo con lo que se propone, a precisiones, o da más concreción, y además eran propuestas que nosotros teníamos en mente, que eran lógicas, protocolos, formación, etcétera, y fomentar el trabajo en equipo.

Andrade jaunari jagokonez, ohituta gagoz Alderdi Popularrak EH Bilduren proposamenak ez babesteko egiten dituan malabareekin, baina kasu honetan uste dot esperpentora hurreratu dala. Zure berbak baloratu barik, UNICEFen protokoloa aitatu dozu, esaidazu non apliketan dan Bizkaiko eskola-kirolean, esaidazu, esaidazu adibide bat. Esaidazu adibide bat, eta orduan errazoa emongo deusut, baina adibide bat emoten deustazunean, zure kritika edo gitxienez zure ekarpena onartu ahal izango dot orduan.

Y, luego, en cuanto a las intervenciones de las señoras Campo e Iturrioz, las palabras o calificativos que me vienen a la cabeza es que sus intervenciones me han parecido bastante decepcionantes y lamentables. Sobre todo, que se esconden en esa hipotética y futura ley orgánica; nosotros también estamos absolutamente esperanzados con esa ley, y estamos trabajando para hacer aportaciones en esa ley, pero para utilizar una excusa de ese tipo, además de obstaculizar o al menos retrasar la puesta en marcha de las propuestas que nosotros, tanto nosotros como Elkarrekin Bizkaia en este caso, proponemos con la que dicen que va a venir una ley, pues, para nosotros es bastante decepcionante y bastante lamentable, porque para definir un protocolo, para definir una formación no hace falta ninguna ley, no hace falta ninguna ley, solo voluntad.

Y si pudiéramos en el centro este problema, entonces mostrarían voluntad política. Luego, seguramente tendremos que hacerlo obligados por la ley; pero no se hace, no se hace, y nosotros sólo hemos puesto esa alarma. Esa alarma, porque queremos poner en el centro también este tema. Porque, ¿qué tenemos hasta ahora? Sí, en el Parlamento se ha hablado de esto, hubo una ponencia, la ley, ahora está trabajando la ley que han mencionado, y traerá beneficios, cómo no. Pero ¿qué tenemos hasta ahora? ¿Qué tenemos? Pues a entrenadores o monitores "certificado de penales", adingabeen abusuetan certificados de penales...

Biktitek urteak eta hamarkadak behar dabez gertakariak salatzeko. Nok eukiko dau zigor-ziurtagiria holango kasuetan? Ez da nahikoa. Eta Bizkaiko Eskola-Kirolaren webgunean daukagu, bai, Eneritzek aitaturako zerbitzuagaz lotura daukagu, telefono bat da, besterik ez. Zer ezagutza daukie klubek, alkarteek eta eskolek gai horri buruz? Minimoa, minimoa. Eta hori bultzatu behar dogu, eta etorriko dan lege organiko baten ezkutatzea, benetan, etsigarria, frustragarria eta, nire ustez, tamalgarria da. Beraz, ez deusagu bidea ixten akordioari, uste dogu Batzar Nagusi honeen konpromisorako aukera bat galdu dogula, konpromisoa, konpromisoa, hain garrantzitsua dan gai honetan, eta egia esan...

No nos vamos a rendir, y seguiremos con este tema, y estamos dispuestos a llegar a acuerdos en el futuro. Pero, bueno, creemos que el consenso que se ha logrado en el primer tema o en el primer debate no alcanzarlo en esto es bastante decepcionante para nosotros, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Isuskiza Arana. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias. Beno, argi dago hemen ordezkatura dagozan talde guztien adostasuna dagoala jarduteko, ikusarazteko, kontzientziatzeko eta ni poztan naz, aurrerapauso garrantzitsua dalako eta hori, ba, ez da beti holan izan, ez da beti gertatu. Orduan, ba, zeozelan garrantzitsua iruditzen jat ikusaraztea babes hori eta gai horrek daukan garrantzia. Lortu dogu Andrade jaunak be interesa hartzea.

Orduan, uste dot gaur be urrats garrantzitsua emon dogula. Baina, nire ustez, kasu honetan ez da beharrezkoa kongresuan lege organiko bat onartu arte itzarotea, kasu askotan legebiltzar-egoitza honetan, kasu askotan gure gaitasunaren eta autonomiaren harrotasuna erakusten dogunean. Oin dala gitxi, 2020an, argitaratu dan txosten bat daukagu, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak argitaratu dauena. Txosten horretan, gure zerbitzuek daukiezan hainbat kontu eta hobekuntza-arlo nabarmentzen dira, bai prebentzino eta identifikazino arloan, bai kolektibo horri emoteko zerbitzuetan be. Eta glosario oso bat dago hobetzeko arloak identifiketako, gaur egun, lege organikoaren onespeneren zain egon barik be, gai asko egin geinkez.

Isuskiza jaunak esan dauen moduan, zer daukagu orain arte? Zigorziurtagiriaren eskaera hori daukagu, eta horrek bakarrik esaten dau ordura arte gizon edo emakume horrek ez dauela zigor penalik jaso holako delitu bat egiteagaitik. Baina ez deutsu esaten... horraino baino ez da sartzen, baina hurrengo hilean ez dakigu, eta gero, zenbat pertsonak daukie epai irmo bat horrelako gai bati buruz? Beraz, horrek ez dau ezelan be bermatzen gure haur eta nerabeen segurtasuna eta babesa, ez kirolean, ez inon.

Eta, bigarrenik, prestakuntzari jagokonez be badaukagu. eskola-kirolari jagokonez, Sailak begiraleak prestatzeko prestakuntza emoten dau, eta prestakuntza horretan ez dago eduki hori; beraz, gure haurrakaz harremanetan dagozan klub, alkarte eta federazino horreetako begirale, ordezkari eta arduradunei prestakuntza-prozesu hori emon ahal izateko, ez dakit zeri begira egon behar dogun. Aurreratzen dogun guztia, ondo etorri a izango da, neska-mutilek irabazitakoa izango da.

Nik, gainera, Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak 2020an egin dauen txostena irakurri gura neutsuen eta gai oso zehatz batzuk nabarmendu dodaz: EAEn ez dago prebentzino-estrategia integralik. Holan dino: esku-hartze komunitarioa ez da behar bestean indartzen, prebentzinoan eragin handia daukan arren. Kasuak ahalik arinen ohartzeko joera indartu behar da, esku-hartzeen arrakasta hobetzeko. Askotan, profesionalek arazoak eukiten dabez indarkeria-egoerak detektatzeko eta jakinarazteko. Hau 2020koa da. 2021ean gagoz, apirilean, gainera lege organiko bat onartu arte itzarongo dogu? Nik ez deusat zentzurik ikusten, akatsak zeintzuk diran topau dogu, hobetu beharreko arloak badaukaguz, baina, gainera, txosten horretan bertan daukaguz garatu beharreko jarduerak. Eta gaur hemen erabagiko dogu hobeto dala erabagi horreek atzeratzea. Nire ustez, zenbat eta lehenago jokatu, orduan eta hobeto. Gaur hemen arreta goiztiarraz berba egin dozue, eta gero erabagiak atzeratzen zabizie. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora De Madariaga Martín. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Ez dot euki gogorik esku hartzeko, baina ahora ekarri deustazu. Nik uste dot ez dozula nire azalpena ulertu. Nik esan dot proposamena irakurri nebanean nire lehenengo inpresinoa ezetz bozkatzea izan zala, nik ez dot ekilibriorik egiten abstenitzeko, kasu honetan malabareak egin ditut proposamena ez babesteko, malabareak egin ditut aurka ez bozkatzeko. Esan dodan moduan, hasieratik, ez nator bat azalpenagaz. Ez nator bat proposamen honetatik ulertzeagaz Bizkaiko eskola-kirolean sexu-abusu edo neska-mutilen abusu arazo bat dagoala, ez nator bat horregaz. Eta horregaitik, lehenengo inpresinoa ezetz bozkatzea izan zan, ikusiaz batera. Baina malabareak egin ditut abstenitzeko, abstenitzeko, ez haren alde egiteko. Izan be, arazo hori dagoala uste bada, aurre egin beharko geunskio.

Nire ustez, ezer ez daukagula esaten da, eta horren kontra, nik uste dot badaukagula, badaukagula. Nik bereziki izan dodan esperientziagaitik, eta nire familiagaz daukadanagaz, futbol-taldean, eskola-kiroletako taldeen lan handia daukagu, kirol-klub guztien lana daukagu, entrenatzaileena, klub horreetan ordu asko emoten dabezan familiaena. Jente askok lan handia egiten dau eskola-kirolaren atzean eta, orokorrean ordaindu barik. Beraz, hemen eskola-kirolari buruz berba egitea sexu-abusuen benetako arazo bat egongo balitz moduan, ba niretzat, lehen esan dodan gauza bera esango dot, beharbada gure kirolaren irudi txarra emoten gabilz. Eta proposamen hori babestu nahi ez izatea sexu-abusuaren arazo bat dagoela ikusi nahi ez dogulako dala esatea, eta, beraz, ez dogula arazoari konponbiderik eskaini gura, uste dot bide horretatik lana ez doala ondo.

Ezetz, kirolean asko egiten dala, eta eskola-kirolean asko egiten dala, lehen esan dodan moduan, errespetua da kirolean irakasten deustuen lehenengo gauzea, nik praktikatu dodan horretan behintzat, errespetua, eta horixe da guztiaren oinarria, gehiegikerien oinarria, eta danarena, errespetua, diziplina, ordena, adiskidetasuna, horixe da guztiaren oinarria, errespetua badago eta irakasleak, hezitzaileak, entrenatzaileak egunera erakusten badeutsue, gehiago zer behar dozu? Orduan, ez dakit, ez dakit, nik ez dakit beste batzuek zer kirol egiten daben. Nik egin ditudanetan behintzat, lehenengo irakasten doguna hori da, errespetua danean, aldageletan, dutxetan, nesken tratua, mutilakaz, desbardinakaz, potoloagaz, altuagaz eta argalagaz, eta (*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*), danakaz.

Ni ahalegindu naz azaltzen planteatzen dituzuen proposamenak ez dirala egokiak; hau da, arazo bat dagoala eta begiratu egin behar dala? Ondo. Gobernu-taldeak esan dau kudeatzen eta lantzen dabilzala eskola-kiroleko beste neurri egoki batzuk be. Nik pentsetan dot protokoloa badagoala, ez da ezer barririk sortu behar, betikora gatoz, nik beti gauza bera esaten deustuet, ez da asmatu behar asmatuta dagoana. Asmatuta dago ba-ta. UNICEF bezalako erakunde batek erespide batzuk sortu ditu, baremo batzuk, prestakuntza bat, diziplina bat, lanerako bitarteko batzuk, materialak dagoz, material didaktiko guztia dago prestatzeko, arauak dagoz, gidak dagoz, zer sortuko dogu, guk beste barri bat? Lan-talde bat, nik ez dot lan-talderik behar ezer aztertzeko, zertarako gura dot barriro be mahai baten esartze lanera. Nik jenteari azaltzea behar dot. Eskola-kirola egiten dauen ikastetxe bati laguntza ez emotea, indarrean ipinteko denporarik euki ez dauelako? Baina bertan prestakuntza emoten dabilzan irakasleek edo gurasoek, edo ikastetxeko hezitzaileek, egin dabee ba-ta, hemen aipatzen gabilzan hau guztia inplementatzen dabilz. Baina, a! Ez dot protokoloa sinatu, ahaztu egin jatalako, denporarik euki ez dodalako, eta datorren urtean ez deustut diru-laguntzarik emongo.

Nire ustez, erantzunak ez dira egokiak, eta horregaitik abstenitu gara. Barriro dinot, nire ustez, horren arazoa da ondorioa atera zeinkiela, edo ondorio eragin zeinkiela, Bizkaiko eskola-kirolak arazo bat daukala, eta ez dauka. Ez dauka, eta holan esan behar dot, ez dauka. Eta egon leiteke arimabakoren bat, doilorren bat, noizean behin zeozter egiten dauena? Baina doilorrak mundu osoan dagoz, eta diziplina guztietan; beraz, ez dot uste eskola-kirola holan kriminalizau behar dogunik. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea. Tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias, de nuevo. Isuskiza jauna, nire ustez, lege organiko hau zuretzat ez da nahikoa, ez da garrantzitsua, eta zure ustez ez dau ekarpenik egiten, tamalgarria, tamalgarria da edozein indarkeria-motaren aurkako borrokagaz daukagun konpromisoa zalantzan jartzea, hori bai da tamalgarria. Eta tamalgarria litzateke itxarotea eta ezer ez egitea proposatzea, hau da, guk ez dogu hori proposatzen, guk proposatzen doguna da lege honetan esaten dana berehala aplikatzekoa dala betetea. Eta zuek 21-22 ikasturterako jarduerak proposatzen deuskuzue, ordurako lege honek proposatzen dauena apliketan egongo da. Hain gai mingarriak erabiltea holako titularrak bilatzeko, edo holako liskarrak tamalgarria iruditzen jaku.

Edozein kasutan, interpretazino guztiak entzunda, argi dago indarkeria, adingabeen aurka egindako abusuak, guztiok kezkatzen gaituen gai bat dala, danok partekatzen dogun gai bat, danoi jagokun zerbait. Bat gatoz haurrak edozein esparrutako edozein gehiegikeriatatik babestu beharraz. Ordezkarik publiko garan aldetik, gure betebeharra konponbideak bilatzea da, erakundeen erantzukizuna da haurrak mobiduten diran espazioak gune seguruak izatea bermatzea. Horretarako, tresna eraginkorrak erabili beharko ditugu, eta guk zuek bat egiten ez dogun gauza bakarra da guk uste dogula tresna hori badaukagula. Orain danok erronka hori gure gain hartu behar dogula adingabeen osotasun fisikoa, psikologikoa eta morala babesteko? Bai. Baina ez dogu energia galdu behar lehendik dagozan neurriak eta konponbideak bilatzen, honezkerok martxan badagoz. Gure ardura izango da, hori bai, neurri horreek ahalik eta azkarren ezartzen dirala eta 2021-2022 denboraldian finkatuta dagozala zaintzea eta ziurtatzea. Ez daukat zalantzarik Aldundiak halan egingo dauela, berez egiten dabilen zerbait egiteko eskatu behar barik. Eta ez dogu uste be, Foru Aldundia horrelako arazoetatik kanpo dagoalako sentsazioa emoteak ezertan laguntzen dauenik. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Campo Prieto. Y tiene la palabra la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Iturrioz Rementeria.

La Sra. **ITURRIOZ REMENTERIA** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Y, de nuevo, buenos días. Señor Isuskiza, decepcionante, lamentable. Es decepcionante no aceptar lo que se hace. Y lamentable a veces, la ceguera orientada a no ver, para atribuirse a uno mismo no sé qué tanteo.

De Madariaga andrea, jakin badakigu ez gagozala legea onartzeko zain, gai hori lantzen gabilz. Gai hori jasoten dauen dokumentu garatu bat dago, Bizkaiko kirol-sisteman prestakuntza dago, zuek arau hori proposatu arte edo legea onartu arte itxaron barik. Ez dogu onartuko, Andrade jaunak esan dauen moduan, zalantzan jartzea 700 erakunde baino gehiagoren eta 3.000 entrenatzaile ingururen lana, zuzendaritzako langileak kontuan hartu barik.

Ez jolastu arazo bat ez dagoan tokian egotera, zuen egoa justifikatzeko, ekimen hau aurkeztuz.

Señor Andrade, lo he puesto en euskera. Ez dakit, esan beharra daukat, zuk adin ezbardinetako umeak deskribatzeko erabili dituzun adjektibo batzuk ez dirala nire gustukoak izan.

Bueno, para ir acabando. El principal objetivo del deporte escolar es que los niños sean felices practicando deporte, y si es sonriendo, mucho mejor. Estamos convencidos de que este objetivo se cumple, pero no podemos permitir que esas sonrisas se conviertan ni una sola vez en lágrimas. Los padres que llevan a los niños al deporte escolar creen que los valores del deporte van a estar por encima de todo y así debe ser. Nuestra obligación consiste en pedir a las instituciones competentes en esta materia que trabajen a favor y para ello. La Diputación Foral de Bizkaia nos ha justificado muy bien que el deporte escolar ha tenido y seguirá teniendo desde siempre un compromiso firme de protección de los menores. Teniendo en cuenta todo esto, nuestro voto será negativo.

Por ello, pedimos que en los próximos no se mire a Madrid, sino a casa, es decir, que se fije en lo que se hace en nuestro territorio histórico, porque en muchos aspectos es un referente estatal en cuanto al deporte escolar.

Y, para finalizar, queremos agradecer a la señora diputada Bilbao Ibarra y a la Diputación Foral de Bizkaia el trabajo realizado en torno a este tema, y también animarles a que sigan en su labor diaria de apoyo al deporte vizcaíno.

Agradecer también a todos los agentes que conforman el sistema deportivo por el esfuerzo realizado. Asimismo, reconocer la importante labor que se está realizando en favor del alumnado. Sin más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, a usted, señora Iturrioz Rementeria. El señor Isuskiza Arana me pide la palabra.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Al hilo de lo dicho por la señora Iturrioz, algunos términos utilizados por el señor Andrade creo que igual deberíamos pedir que se retiraran del acta. A mí me viene ahora por ejemplo lo de niños (*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*), que estaría bien retirarlo, por favor.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Bueno, yo pienso... Andrade jauna, ez dakit itzulpenik badaukazun orain. El señor Isuskiza Arana hace una petición, para que algunas de las palabras que, a su juicio, ha utilizado Andrade Aurrecoechea según el artículo 100, que pueden ser ofensivas, yo mismo no lo he interpretado así, pero le daremos la oportunidad de que retire las palabras o calificaciones supuestamente ofensivas. Así pensaba yo, que no las había dicho en tono ofensivo, pero se retiran, como aquí se ha dicho.

Dicho esto, el señor Isuskiza Arana dice que acepta la enmienda realizada por Elkarrekin Bizkaia, por lo que sometemos a votación la Proposición No de Norma con las enmiendas incluidas.

¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Y abstenciones? El resultado es el siguiente: se han emitido 16 votos a favor, 32 en contra y 2 abstenciones, por lo que no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Y el punto 6 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2021/0000053](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: La conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

Documento **Principal:** ([R.E.11/E/2021/0000053](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (130A), [Enmiendas: No presentadas](#) (130B)

Expediente: ([11/B/26/0001958](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2021/0000053SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0000053SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (130A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (130B)

Espediente: ([11/B/26/0001958](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa; por lo tanto, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, presidente andrea. Lan eginez zaintzea, oximoron adibide bat, eta zailtasuna ez da figura erretoriko batetik sortzen, ze gaur egun persona askorentzat, batez be eta zoritxarrez oraindino emakumeentzat, ia ezinezkoa da kontziliazinoa, beti errazak ez diran hautuak egin behar izan barik. Onartzen dogu, gure aukeraren arabera, ia ziurtasun osoz zati bat, lanekoa, pertsonala edo zainketakoa, murriztu egingo dala. Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egitea gairitu gabeko ikasgaia da oraindino, emakumei bereziki eragiten deusien gairitu gabeko ikasgaia. Zentzu horretan, Euskadin, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeari buruzko inkestaren arabera, emakumeen erdiak (% 50,6) egunean 5 ordu edo gehiago emoten ditu adingabeak eta menpeko personak zaintzen; gizonen kasuan, berriz, ehunekoa laurena da (% 24,6). Lan egiten daben gizonetako eta andrazkoen artean Euskadin etxeko lanen banaketa ezbardina da: 10 gizonetik 9k ordu 2 edo gutxiago emoten dabez holako zereginetan, eta 10 emakumetik ia 3k 3 ordu edo gehiago emoten dabez.

Bikoteko kide biek behar egiten daben etxeetan, aitaren edo amaren lanaldian adingabeak jagotea, kasuen % 90ean, ikastetxei jagoke, % 4,5ean biak okupata, eta, kasuen % 3,7an ordaindu bako senideei. Etxe horreetan bertan, adingabeen noizbehinkako zaintza, lanaldian zehar medikuarenera eroan behar diranean, gaixorik dagozanean edo ikastetxerik ez daukienean, guraso biei jagoke aldien % 67,1ean, ordainsari bako senideei % 17,5ean, eta amari % 12,2an. Aldiz, kasuen % 1,9an bakarrik arduratzen da aita umea zaintzeaz.

Bestalde, Orduategiak Arrazionalizatzeko Batzorde Nazionalak Lana eta Norberaren Bizitza, Bardintasuna eta Erantzukidetasuna uztartzeko Programaren ondorioak aurkeztu ditu. Halakoetan, deigarria da galdetutako emakumeen % 59k baieztatzen dauela amatasunak kalte egin deusala edo kalte egin leiola bere garapen professionalean, eta gizonen % 18,29k. Kontziliazinoa be familiari buruzko politikak dira, eta inbersinoetan azkenetik gagoz European. Europak BPGren gainean egiten dauen inbertsinoaren batez bestekoa % 1,7 da, eta aldiz, gu BPGren % 0,7an gagoz.

Izan be, kontziliazinoa eta erantzunkidetasuna konpondu bako arazoa dira orain be, eta agenda politikoaren toki garrantzitsu baten kokatu behar da. Jasangarritasuna gure garaiko, gure bizialdiko eztabaida handia da, gure oraina hartzen dauen eta kontziliazinoaren arloan gure etorkizuna proiektatzen dauen terminoa izanik, sistema jasangarri bat lortzeari be aurre egin behar deusagu, zainketak betebeharrak deseroso gisa hartu beharrean, benetako zeregin eratzaille gisa, ahalegin kolektiboa eta botere publiko guztien inplikaziorik handiena eskatzen dituen. Baina kontziliazinoa ez da utopia bat, lortzeko moduko errealidadea baino, eta halantxe da Suedia, Norvegia edo Islandia moduko herrialdeetan, edo teknologia-arloan punta-puntakoak diran enpreetan, eta ez dot izenik emongo publizidaderik ez egiteko, nahizta pentsetan dot danok konturatzen zariela ze enpresari buruz nabilen, emakumeak nagusi diran taldeagaz kontatzen dabenak, euren artean % 80 ama dirala.

Horregaitik, uste dogu, ikuspuntu formaletik eta materialetik, kontziliazinoak eta erantzunkidetasunak tratamendu propio eta integrala eskatzen dabela lege-xedapen espezifiko baten, familia-kontziliazinoaren eta erantzunkidetasunaren alderdi guztiak indartu eta arautuko dituen, eta, gure eskumenen esparruan, pertsonak eta familiek kontziliazinoarako daukien eskubidearen aitortza eraginkorra egiten daben neurri guztietan oinarrituko dana, emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunean. Horretarako, Bizkaiko gizarteak eta behar-ginek helburuok beteteko eskatzen dabezan benetako beharretara egokitutako neurrien multzoa bultzatuko dau.

Horregaitik, uste dogu kontziliazinoari eta erantzunkidetasunari buruzko arau espezifiko, integral eta transbertsal baten planteamenduak bere zentzua hartzen dauela, daukan garrantziagaitik eta izaeragaitik, gaur egun bardintasun-arauaren artikulua batzuetan gai horri buruz ganetik zabaldu danaren orde. Horrek ez dau esan gura oingo erregulazinoa baztergarria danik, ezpada arau barri, B,an metagarria eta aprobetxagarria, jakitun gagoz indarrean dagoan arauak lortu eban adostasun-maila, eta horri balioa emoten deusagu. Baina aurrera egin behar da, aurrera egin behar da, eta agenda publikoan eta agenda politikoan, baita Batzar Nagusiotan be, euki behar dira bizkaitarren bizi-errotka nagusien kezka nagusiak. Ze funtsean, aurrera ez egiteak atzera egitea esan nahi dau.

Batzarkide talde guztien artean eztabaidatu beharko liratekeen arau-edukiak honeek izan beharko lirateke: foru-sektore publikoan enplegurako aginduak; klausula sozialak txertatzea; soldata-arrakala ezabatzea bultzatzea; kontziliazinoa inplikatzeko sustapen ekonomikoan; adinekoak, menpekoak eta adingabeak zaintzeko politikan; kenkari, hobari eta pizgarri fiskal barriak autonomoentzat eta enpreentzat, familia-kontziliazinoarako politikak garatu daiezan eta gurasotasun positiboa sustatu daiezan, batez be oso feminizatuta dagozan sektoreetan; kontziliazinoarako neurriak, landa-eremuko emakume eta gizonengan be pentsatuz; barrikuntza teknologikoko proiektuak sustatzea kontziliazino hobea eta handiagoa eragiten dabenak; gure unibersidadeakaz hitzarmenak bultzatzea, kontziliazino eta erantzunkidetasun modu barriak erraztuko dabezan ikerketetarako; sensibilizazio kanpaina barriak eta eraginkorrako; eta praktikan jartzea kontziliazino-aukera barriak, gure ekonomiaren aldaketa digitalak eskaintzen dituanak. Hori Aldundiak berak daukan errotketako bat be bada.

Jardunbide egokien bankuen garapena bultzatu behar da, enpresei eta bertako langileei lana eta familia bateragarri egiteko neurri barritzaileak ezarteko orientazinoa emoteko, eta neurri horreek enpresa-sarearen artean zabaltzea erraztuko daben mekanismoetan pentsatu behar da, erakunde adierazgarrien bidez. Familietan pentsatu, bai, baina bereziki gehien behar dabenetan, eta aitamen berezia egin gura deusiet guraso bakarreko familiei, baita familia ugarietarako, desgaitasuna edo menpekotasuna daukan kideren bat daukienei, baztertuta geratzeko arriskuan dagozanei edo egoera ahulean dagozanei be. Enpresak kontzientziaztea, kontziliazino-neurriak sartzeak giza baliabideetan eta lehiakortasunean daukan onuraz.

Esan dogun moduan, kontziliazinoarako eta erantzunkidetasunerako hiru urteko foru-plan baten agindua sartzea, Eudelegaz koordinatua, eta, indarraldia amaitu eta hiru

hilabetera, emaitzen ebaluazinoari eta aplikazino praktikoari buruzko txosten bat aurkeztu beharko da Batzar Nagusietan. Gainera, arauak berak aplikazinoaren eta emaitza praktikoen ebaluazinoa egiteko agindua jaso leike, esan dodan moduan, Batzar Nagusiotan egon eta kokatuko dan txosten bategaz. Azken baten, eta amaitzeko, kontziliazinoa eta erantzukidetasuna egiteko dagoz, aitortu deiegun bizkaitarrei, agenda politikoan benetako protagonismoa berreskuratu behar dau, autokonplazentziatik ihesi, eta autoexijentzian aurrera eginez, batez be andrazkoei eragiten deusien defizit onartezinak zuzentzen ahalegintzeko, beste tresna batzuen artean arau aurreratu, barritzaile, integral, transbersal eta espezifikoko bat emonaz...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Joan amaitzen, mesedez

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Itxidazu 30 segundo, erantzunean moztuko dot, eskertzen deusut, presidente andrea.

Bultzada erabakigarri barri bat kontziliazinoaren eta erantzukizunaren esparruan eskubideak sendotzeko eta sortzeko. Eskerririk asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días de nuevo. Bai, egia da emakumeok ordaindutako lanaren merkatura masiboki sartu garanean azkenengo hamarkadetan, ez dabela proportzino berean parte hartu gizonen etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. World Economic Forumaren arabera, andrek gizonen baino ordubete gitxiago hartzen dabe libre egunean, eta asteburuetan 3 ordu eta erdi gitxiago. Andrazko batek etxetik kanpora lan egiten dauen ordu bakotzeko, gizonak 5 minutu gehiago baino ez ditu erabilten etxeko zaintza-lanetan. Txosten horrek berak adierazten dau gaur egungo erritmoan ondino 202 urte gehiago itxaron beharko litzatekezala emakumeok aurre egin behar deusagun desbardintasunen eta aukera ekonomiko, laboral eta pertsonalen arteko aldea ixteko. Izan be, ezin da bardintasunik ezaz eta kontziliazinoaren zailtasunaz berba egin, eta, lehen be, hori berori aitatu da, egoera horren oinarria eta sustarra aitatu barik, hau da, gure gizarteari buruz oraindino be planteatzen dan kultura patriarkala, alegia.

Andrazkook super heroi moduko bat garala, eta gai garala dana aldi berean gure gain hartzeko pentsautu hazten gara, zenbat eta zeregin gehiago egin aldi berean guretzako asti barik, orduan eta heroiagoak gara. Ideia artikulatu hori oin dala hamarkada batzuetatik daroagu arrastaka, eta emakumeok geure gain hartu behar dogun nolabaiteko erantzukizun pribadu baten oinarritu da; halanda be, zainketa- eta kontziliazino-lanak ez dira zeregin edo erantzukizun pribaduak, guztioi jagokuz, gizarte gisa. Baina baita erakunde gisa be; izan be, erakundeen arteko laguntza funtsezkoa da lanaren eta familiaren arteko oreka lortzeko, baina ez hori bakarrik; horrezaz gainera, erakundeek hartu behar dabe kontziliazinoaren dimentsino publikoaren ardura, eskubide bat dalako, astia eukiteko eskubidea, pribadutasunerako eskubidea, edo geure buruarentzako espazioa izateko eskubidea. Eta erakundeok eskubide hori babesten edo gauzatzen ez dogun bitartean, milaka emakumeri denporea, pribadutasuna eta espazioa kentzen ibiliko gara.

Eta zentzu horretan, 2018an emakumeen eta gizonen bardintasunerako 4/2018 foru-araua onartu zan, foru-erakundearen bardintasun-politikak bultzatzeko tresna bat izateko. Bardintasunerako foru-arauan bertan, zenbait artikuluko eta puntu espezifikoko jasoten dira,

eta horien helburua da kontziliazino-planak ezartzea, gizonen familia- eta lan-bizitza uztartzeko ardura hartu deien; adibidez, 33. artikuluan, 1. puntuan, E atalean, aukera adierazten da, edo jarduketa-plan espezifiko bat egin ahal izango dala adierazten da, zaintzan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko. Errazoi horregaitik, gure eretxian, nahizta bizitza laborala, personal eta familiarraren kontziliazino plan indartsu bat egitearen aldeko beharra partekatu eta neurriak hartu behar dirala ikusi, horretan bat egin arren, gure eretxian ez da beste foru-arau bat behar, eraginkorra eta oinarritzkoena helburu hori lortzeko izango litzateke lehendik daukagun foru-araua garatu eta betetea. Izan be, foru-arau horrek 3 urte beteko ditu laster onartu zanetik, baina oraindino asko falta dau beteteko eta garatzeko. Foru arau barri bat martxan jartzeak, gure ustez, hilabeteak beharko lirateke, baita urte bat edo beste be, argia ikusi arte, eta hori garatzeak eta lurrera ekarteak denpora kontuetan eskatuko leukena kontuan hartu barik. Arrazoi horreekaitik, Elkarrekin Podemos-IUk ez dau ekimen hau babestuko, baina ez dogu aurka bozkatuko, hein handi baten bat gatzelako Fernández andreak azaldutako argudioaren oinarriakaz.

Eta helmugagaz ados bagagoz be, ez gatoz bat bideagaz, eta, beraz, nire taldean abstenidu egingo gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Cabornero Alor. Tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días barriro. Lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deusadaz dizkiot proposamena egin duen alderdiari, Alderdi Popularrari, eztabaida honek aukera emongo deuskulako ganbera honetan gogoeta egiteko, ebaluetako eta hobetzeko esparruak identifiketako, gure eskumen-mailatik, hain gai garrantzitsuak, nire taldearentzat behintzat, kontziliazio erantzukidean, niri gai horri buruz hitz egitea gustetan jatan moduan. Bizitzaren eta personaren jasangarritasunagaz zerikusia daukan gaia da, bardintasunagaz edo bardintasunik ezagaz estu lotuta dagoana, geroago azalduko dodan moduan. Eta printzipio-adierazpen bat eginaz hasiko naz. Horretarako Lauraren hitzak maileguan hartzen itxiko deustazue, "Nik ez dot etsiko" alkartearen eta Ama txarren klubaren ordezkari baten hitzak. Diputaduen Kongresuan parte hartu ebanean, hau esan eban: kontziliazinoa ez da utopia, kontziliazinoa danon eskubidea da, gizarte jasagarri eta etorkizunekoaren alde egiteko. Eta nik gehitzen dot: eta ezeri uko egin barik. Ze bizitzaren jasangarritasuna gizartearen aurrean gehienetan, eta ez daukagu estadistika edo azterlan burutsuetara jo beharrik, nahikoa da begiak apur bat altzau eta inguruan begiratzea, askotan emakumeen bizkar gainean egon dira edo jarri dira, kontzienteki edo inkontzienteki euren bizitza familiar edo profesionalari edo pertsonalari uko egitera bultzatu diran emakumeak, eremu horreetakoren baten espazio bat hartzea erabagiten ebanean, oreka gutiz gatxa dalako, edo ezinezkoa.

Uko egite horreek, ganera, sarritan erru- eta damu-sentimentuz beterik egon dira: "Ama txarra naz, alaba txarra naz, profesional txarra naz; rol hori emakumeari emoten deusan gizarte patriarkalak ikusezin bihurtzen dituan emakume zaintzaileak, eta, gainera, euren balioa, zaintzen balioa, minimizatzen dauena, eremu pribaduan itxita. Gure egungo gizarte-ereduak urteak daroaz personen zaintzaren erronkari aurre egiten, behin emakumeak ordaindutako lanean masiboki sartu diranean, eta tentsinoak agirian geratu diranean aurreko eredu baten (zaintza andrazkoen ardurapean bakarrik ixten ebana, eta oraindino be halan dana) eta emakumeak masiboki lan-merkatuan gagozan gizarte baten artean. Tensino horrek ikusarazi dau zaintza, lehen ikusezina zana, gizartea eregiteko ardatza dala, eta zaintza hori erantzukidetasunez egin ahal izateko, beharrezkoa dala persona bakotxak, banaka, bere bizitzako alderdiak bateratu ahal izatea, eta gizarteak kontziliazino hori babestu eta sustatu

beharreko balioztat hartzea. Horregaitik dinogu kontziliazinoak zerikusi handia daukala bardintasunagaz, handia be handia, eta ezin garala hurreratu ikuspegi neutro batetik.

Beste barik gure bizitza osatzen daben eremu desbardinaren arteko oreka gertatzen dan aztertzen badogu, genero-ikuspegiagaz, eta zereginok zelan banatzen diran aztertzen badogu, eta, egia esan, holan aztertzen badogu, Laespada andreak esaten eban moduan, lehenago be aitatu dana, aurreko Osoko Bilkuran, gizarte patriarkal baten bizi garala aurkituko dogu, eta hori dala desbardintasunaren sustarra. Horregaitik, desbardintasun hori zuzentzeko aldaketak eta eraldaketak egin behar ditugu, eta hori ez da legegintza-ekoizpenetik bakarrik etorriko, ezpada emakumeak estereotipatu, gitxitu eta diskriminatzen dituan kultura patriarkal edo matxista baten balio-aldaketatik. Horregaitik, proposamen-egileagaz bat nator beharrezkoa dala kontziliazino-politikak indartzea, eta politika horreek lehentasuna izan behar dabela agenda politikoan, baina uste dot, benetan, oker zagozala gaur hemen proposatzen deuskuzun tresnagaz; ze Aldundiak arlo honetan daukazan eskumenak bardintasunari buruzko foru-arauan jada arautzen dogun arlokoak baino ez dira, eta, gai hori garatzen lagundu leikien zerbitzuren batzuk martxan jarri ahal izatea gaiari laguntzeko, diputadu andreak esan eban moduan horren ganean galdetu zeuntsanean.

Eta, beraz, zuek eskatzen deuskuzuen moduan kontziliazinoarako arau eskusibo batek ibilbide juridiko eskasa eukiko leuke, eta eragin eskasa Bizkaiko gizartean. Ze uste dot ez dozuela proposatzen Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzat bakarrik arau bat egitea, ze horretarako Bardintasun Plana daukagu, bardintasun-arauan bertan jasotakoa; edo negoziazio kolektiboa, eta hori, jakina, zuei, Alderdi Popularreko jaun-andreei ez jatzue asko gustetan, azkenengo lan-erreforman kendu egin zenduen eta. Hau da, zuek proposatzen dozuen tresna guk ez dogu beharrezkoa ikusten, eta garapen edo inpaktu sozial eskasa ikusten deusagu; baina, esan deusuedan moduan, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua daukagu. Arau horrek bertako langileen kontziliazinoa oso modu zehatzean bultzatzeko neurriak ez eze, kontziliazinoa sustatzeko eta bermatzeko politiken alde egiteko agindua be oso zehatz jasoten dau, beti be, barriro dinot, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen barruan.

Horretarako, 33. artikulua daukagu, erantzunkidetasuna eta kontziliazinoa arautzen dituen; 5. artikulua be badaukagu, kontziliazinoa eskualdeaz ganera sustatzea ezartzen dauena, baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioen bidez; edo 8. artikulua be badaukagu, hau da, programa eta zerbitzuen bidez kontziliazinoa erraztu geinkela, eta, horreek bardintasun-organoak bultzatu leikezala. Gainera, bardintasunari buruzko foru-arauak betebeharrak ezartzen ditu kontziliazinoa bultzatzeko Aldundiaren eskumen-eremu guztietan, adibidez, kirol-jardunean eta ohitura osasungarrietan, enpleguan, uri-plangintzan, jasangarritasunean eta natura-ingurunean. Adibideak jartzen jarraitu neike, baina uste dot honezkero frogatuta geratu dala Aldundiak badaukala beharrezko tresna juridiko bat bere eskumenen esparruan kontziliazio-politika bat garatzeko eta lehenengo lerroan jartzeko. Eta, beraz, eta amaitzeko, azpimarratu behar da kontziliazino erantzukidea ez dala bakarrik personari edo familiei jagoken gaia, gizarte osoari baino. Aldaketa indartsuenak kultura eta gizarte-egiturak aldatuz gauzatzen dira, jarri gaitez danok beharren. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Gil Llanos. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señora Presidenta, buenos días a todos. Mira, cualquiera que no se ponga las gafas de ver, les comprará la justificación de la Proposición no de Norma que presentan. Sin embargo, los que no nos quitamos de encima las

gafas necesarias para ver la verdadera realidad, que tienen color morado, vemos en esto mucho más que un aparente argumentario o una justa justificación, lo digo de veras.

Hace apenas unos meses, en esta cámara el Partido Popular hizo una pregunta sobre esto para responder oralmente en el Pleno. Preguntaron al Diputado General de Bizkaia cómo querían promover el apoyo institucional para lograr un equilibrio entre la familia y el trabajo. En la justificación que precedió a esta pregunta, se expresaba un hecho objetivo y objetivable en el que describía el notable desequilibrio del tiempo dedicado por hombres y mujeres al cuidado familiar. Y en esa justificación apuntaba usted la única consecuencia de ese desequilibrio, que era la baja natalidad de Bizkaia. Y no creo que sea casualidad que mencionara sólo ese ejemplo; eso es también ideología, señora Fernández.

De la justificación que recogieron en aquella pregunta a la justificación dada a la Proposición no de Norma de hoy, deducimos que existe una gran diferencia entre su propuesta y la nuestra. Y la gran diferencia es la diferencia entre conceptos y principios.

Ustedes van hablando de conciliación para apoyar una natalidad que hay que poner al alza, entre otras cosas. Es decir, una conciliación que permita a las mujeres tener empleo y seguir avanzando y actuando en la familia.

La falta de corresponsabilidad es más que un problema familiar, señora Fernández, nada tiene que ver con evitar el descenso de la natalidad. La corresponsabilidad es un derecho, es justicia social, y ahí radica nuestra gran, o mayor diferencia.

Dicho esto, no sé cuál es su verdadera intención, aportando esta Proposición no de Norma para solicitar un proyecto de norma foral sobre conciliación. Como les ha recordado la señora Begoña Gil, que es miembro de uno de los partidos del gobierno foral, y seguro que el PNV también se lo recuerda, las políticas de conciliación son competencia del Gobierno Vasco, salvo las referidas al personal de la Diputación. Y a nosotros nos parece que en ese mismo sentido, como ha dicho la portavoz del Partido Socialista, se trata de un tema relativo a la negociación a nivel sindical. Por lo tanto, el instrumento para nosotros tampoco es adecuado, y haré mías las palabras del señor Andrade: ez daigun asmatu asmatuta dagoana. Ez gatoz bat Alderdi Popularrak gaur ekarri dauen Arauz Besteko Proposamenaren zelan eta zergaitiaz, baina guk be gogoeta egin gura dogu zelan gagozan eta zelan antolatzen garan emakumeok zeharkatzen gaituzten zapalkuntza-sistema handien aurrean, ikuspegi feminista eta antiarrazista batetik, erabat lotuta dago eta.

Las mujeres siempre hemos conciliado, bien o mal, de forma conflictiva o sin conflicto, siempre hemos conciliado. Con los recursos humanos o económicos disponibles, pero las mujeres siempre hemos conciliado. Nosotras no necesitamos conciliar. Hemos conciliado a costa de nuestra salud, hemos conciliado a costa de nuestras horas de sueño y de nuestra vida personal, hemos conciliado a costa del desarrollo profesional y económico, nosotras siempre hemos conciliado.

Letra larriz eta lodiz esango dot, gizonak eta erakundeak dira kontziliatu behar dabenak, horreek dira kontziliatu behar dabenak. Y aún hablamos de la conciliación, en lugar de hablar de corresponsabilidad, aunque hoy por hoy la ilusión de la igualdad duele mucho, como se dice, en el imaginario colectivo los hombres ayudan en casa, y si ayudan es porque la responsabilidad no es suya.

Oin dala gitxi, nik be aitatuko dot, Begoña Gilen moduan, "Nik ez dot etsiko" alkarteak azterlan bat aurkeztu dau. Hor ikusten da andrazkoen laurenak, % 22k, pandemiako azkenengo urtean bere behar osoari edo zati bati uko egin deusala seme-alabak eta menpeko personak zaintzeko. Andrazkoen % 22 horretatik % 21ek eszedentzia edo soldata bako

egunak aukeratu dabez. % 11k lanaldi-murrizketa eskatu dau, eta % 74k bere opor-egunak hartu ditu adingabeak edo menpekoak jagoteko. Pandemiaren kostua emakumeok ordaintzen dogu.

Las mujeres salimos a trabajar en el espacio público, pero los hombres todavía no han accedido al espacio privado para cumplir con los cuidados y deberes. Y de todo ello hay que hablar también en esta institución. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Iardia Olangua andrea. Y tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Furundarena Olabariaga.

La Sra. **FURUNDARENA OLABARRIAGA** andreak: Gracias, señora presidenta. Buenos días a todos. En los últimos años el debate sobre los cuidados se está produciendo desde distintos aspectos, desde distintos frentes. En nuestra sociedad los cuidados difícilmente se resuelven, tenemos mucho trabajo que articular las relaciones a nivel laboral, familiar, social e institucional que resuelvan el cuidado o la cuestión del cuidado. El reto, por tanto, es dar pasos para construir un escenario que satisfaga con igualdad el cuidado y la conciliación. Lo que viene precisamente de conseguir la igualdad entre mujeres y hombres.

Erronka da lan egitea persona guztiek gozatu dagien, jagoteko eta zainduak izateko eskubideaz gozatu daigun, eta eskubide hori justizia sozialaren eta generoaren erespideen arabera erabili daiten.

Euskal erakundeek zeharka lan egiten dabe zainketen berrantolaketa soziala bultzatzeko, besteak beste, zainketak orekatuta banatu ahal izateko eta kontziliazinoa errazteko. Erantzunkidetasunean oinarritutako kontziliazinoa.

Zugaz bat nator, Fernández andrea, hazkuntza- eta zaintza-lanen kargak orekatu behar dirala. Gizonek beren parte hartu behar dabe zeregin horreetan, eta, baimen gehiago hartu familia-betebeharrak bardintasunez beren gain hartzeko. Hau da, erantzunkidetasunean eta benetako bardintasunean aurrera egitea. Zurgaz bat nator be gaiaren garrantzian eta guztion konpromisoaren beharragaz. Baita, jakina, euskal erakundeena be. Izan ere, euskal erakundeek euskal familiei bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzen laguntzeko daukien konpromisoa hamarkada bi baino gehiago daro ez familia-politiketan, 2000. urtean seme-alabak daukiezan familiei laguntzeko erakunde arteko lehenengo plana argitaratu zanetik. Gero, bigarren plana dator, hirugarrena gero, eta gaur egun laugarren plana dago indarrean. Laugarren plan honetan 5 jarduera-ardatz nagusi dagoz, eta horreetatik bigarrenak bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen dau, baita zaintzan erantzunkidetasuna be. Nabarmenezkoa da ekimenak sortzea lana eta familia bateragarri egiteko diagnostikoak eta planak egiten laguntzeko, euren egitekoa aitortzeko, eta familia kalteberentzako diru-laguntzak eta kontziliazinoa hobetzeko. Laguntza-lerro bat sortzea, haurdun ez dagoan gurasoaren jaiotzagaitiko baimen-asteak parekatzeko, eta gizartean sentibilizatzea etxeko, hazkuntzako eta zainketako erantzunkidetasunari buruz, guztientzako aukera-bardintasunari bidea emoteko. Kontziliazino erantzukideari, kontziliazino-zerbitzuetan pilotajeak abian jartzeari eta abarri buruzko informazinoa indartzea.

Era berean, zuk ondo esan dozun moduan, proposamenaren testuan, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea daukagu. Eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 4/2018 foru-araua be badaukagu. Eta gaur eztabaidagai dogun Arauz Besteko Proposamenari nahikoa eretxi ez eta, foru-arau bat ad hoc arautu gura dozu, familia eta lana bateragarri egiteko.

Esan behar deusuet orain ez gatozala bat kontziliazinoa arautuko dauen testu espezifikoko barririk sortzeko beharragaz. Ze lehen aitaturako bardintasunari buruzko egungo foru-arauak 27. artikuluan ezartzen dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiko eta langileen arloan eskumena daukien Bizkaiko lurralde historikoko foru-sektore publikoa osatzen daberen erakundeetako organoek beren langile-politika genero-ikuspegitik berrikusiko dabe, emakumeen eta gizonen bardintasuna bermatuz eta lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea sustatuz, erantzunkidetasuna sustatuz.

Beraz, bada foru-araudi bat, Bizkaiko foru-eremu instituzionalean emakumeen eta gizonen bardintasuna sustatzeko helburuagaz, familia eta lana bateragarri egitea helburu daukana. Hori dala-ta, kontziliazinoaren gaia oso garrantzitsua dan arren, ez dogu beharrezko ikusten gai hori arautzen dauen beren-beregiko araurik. Gainera, badira Bizkaiko Foru Aldundian helburu hori beteten daberen tresna juridiko desbardinak, besteak beste, hitzarmen-akordioa, egutegia eta oporrak beteteko arauak, eta bardintasun-plana, aukera emoten dauena eremu guztiak hartzeko, jarduketa integralagoari bidea emonaz, eta aukera emonaz erakunde batek emakumeen eta gizonen arteko bardintasuna lortzeko hartzen dituan neurriak definitzeko, planifikatzeko, biltzeko eta ebaluatzeko. Aipatu dodazan tresna horreek guztiek, Bizkaiko Foru Aldundian lehendik dagozan beste batzukaz batera, lehen aitaturako bardintasunerako foru-arauak sustatzen dauen helburuari laguntzen deusie. Beraz, eta nik be Andrade jaunak lehen esandako berbei eutsiz edo nireak eginez, "Ez da asmatu behar asmatuta dagoana". Beraz, esparru horretan eta 2/2018 foru-arauaren babesean kokatu behar da gure ustez gai hau. Eta, beraz, ez dogu testu arautzaile barririk behar. Gracias, nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Furundarena Olabariaga. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, presidente andrea. Beno, hitz egin da, beno nik lehenengo tonua eskertu gura deusuet, ze sakonean bat etortez edo ez etortez harago, ia batzarkide talde guztien esku-hartze gehienak, iruditu jat, batez be oso tonu egokian egin dirala, eta horrek nik uste dot beti errazten dauela ideien trukea. Beno, betaurrekoak janzteko beharrari buruzko aipamenen bat egon da, eta, gainera, kolore jakin batekoak izan behar dabe, moreak, ze antza horreekaz bakarrik ikusi daiteke Bizkaian aurrean daukagunaren errealidadea.

Nik, horritan, José Saramagoren parafrasia egingo dot, eta horregaitik aurkeztu dau talde honek Arauz Besteko Proposamen hau, uste dogulako ikusten daberenitsuak dagozala, eta ikusiz ikusten ez daberenitsuak. Eta uste dot bizkaitarrek hori pentsatzen dabela kontziliazinoaren inguruan gertatzen danaz, podere publiko asko, ordezkari publiko asko, diskursoan geratzen dirala eta kontziliazinoa diskursoa baino gehiago dala, eta ez dabela aurrera egiten, eta ez dala arazoa konpontzen lagunduko dauen erabagirik hartzen. Eta gero parte hartzeak kategoria bitan sailkatu geinkez, batzuk aldarrikatzaileagoak eta besteak konformistagoak. Nik ez dakit dana asmatuta dagoan ala ez, eta nik baikorra izan gura dot eta ezetz pentsau. Izan be, gai honetan dana asmatuta eta dana ezarrita badago, zelan azalduko ditugu gauza batzuk, esate baterako: lanaldi-egokitzapenen % 68 emakumeek eskatzen dabez; eszedentzien % 89 be bai; aitortuta dagozan lanaldi murriztuen % 95 emakume langileentzat dira; emakumeen artean nagusitzen dira lanaldi partzialeko kontratuak be; 4 emakumetik batek kontratu mota hori dauka, eta gizonen % 8k. Kontziliazinoa gorabehera, dana asmatuta dagoala esaten dogu, baina niretzat hori errealidadetik oso urrin dago.

Beste parte hartze batzuk be egon dira, barriro dinot, oso ondo tonuan eta moduan, baina edukian esan dabena da: honezkero egiten dira, bardintasunerako foru-arauan jasota dagoz, eta, beharbada, holako gai baten, kontziliazinoarako ekimenak indartzeko

konpromisoa hartzeagaz konformau geintekoz. Nire ustez, hori eztabaida asko sinplifikatzea da, eta horri aurre egiteko modua asko sinplifikatzea; izan be, nahiz eta nik uste dodan, eta lehenengo hitzaldian esan dodan moduan, bardintasunaren foru-arauan lortu zan adostasunari balioa emon behar jakola uste dot, baina uste dot bizitzan, aurrera egitea beharrezkoa denez, aurrera egin behar dala, egin dan lan horreri ezer kendu barik.

Gero, hitzaldiren bat egon da, oso tonu onekoa, oso positibokoa, baina, betiko moduan, kritika bat botaten da nire alderdiak beste erakunde-eremuren baten hartu dauen erabagiren bategaitik. Baina nik ez dakit batzuetan ahaztu egiten jakun egitea, uste dot planteamentu zabalagoa, eta, adibidez, gogoratu kasurako oin dala gitxi aizkorakada bat emon jakola amen pensinoari. Eta ni, tira, eztabaida hori interes handiz ikusten genduan danok, gai horrek kontziliazinoari eragiten deusalako, hau da, emakumearen zeregin sakrifikatua aitortzeari, horrek ekarri dauenari gu lan-munduan sartzean. Ze halanda be, seme-alabak eta menpekoak, gehienetan zaharrak, jagoten jarraitzen dabe. Izan be, babesik txikienagaz urten eban aurrera, 168 baiezko, eta 164 ezezko. Baina emakume langileen pensinoari murrizketa egin jakon, beno, bai, azken aldian hain gustuko diran dekretu nahaste-borraste baten ostondu zan, Espainiako Gobernuak egiten dituenakaitik dinot, jakina, eta zein da gobernu honen lehenengo murrizketa, zein kolektibori? Amei, eta oso tonu lasaian esaten deusut, baina esaten diet, ze emoten deust zuk zalantzan jarri gura zenduala nire taldeak eta nire alderdiak gai horretan daukien konpromisoa. Eta, gainera, familia ugarietako amei, ondino sakrifizio handiagooa egin behar izan dabenak, antza. Nire ustez, herrialde honetako amek ez dabe merezi murrizketa hori, eta ez dabe merezi diskriminazino hori.

Eta amaitu egingo dot, azterlan asko dagoz, aitatu dira, Elkarrekin Bizkaiak be bai, eta beste talderen batek, danek agirian ixten dabe gauza bera, ezin garala autokonplazentzia politikoan geratu, kontziliazinoa errealidade izatetik urrin dagoala, eta tonu onak ez dauela ezkututzen bizkaitarrok badaukagula, badaukiela arazo bat kontziliazinoaren arloan, eta nik uste dot konpromiso handiagooa espero dabela Batzar Nagusi honeetatik eta Aldunditik, eta nire taldetik ez da faltako. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, la señora Cabornero Alor.

Gracias, Jabi. Tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días de nuevo. Nire ustez, argi eta garbi dago gaur hemen gagozan persona gehienok bat gatozela aurrera egin behar dogula eta kontziliazinoaren eta erantzunkidetasunaren arloan aurrera egiteko neurriak hartzen jarraitu behar dogula, azken baten, bardintasunaren arloan.

Eta bardintasunerako foru-arauak, egia esan, neurri ugari ditu, eta horreek nahikoak izan beharko lirateke Fernández andreak gaur ekarri deuskuzan moduko gaiei heltzeko. Eskatu daigun plan barriak abian jarte, edo indartu daiguzan dagozanak, arazoa ulertzeko funtsezkoak diran datu eta neurriakaz, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren arteko harremanen soziologiako azterketakaz; familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren arteko harremanen azterketakaz ekonomiatik; familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzearen arazoa kuantifikauta; eta arazo horren gizarte-irismena; gomendioak eta jarduera-ardatzak formulauta. Eskatu daigun betetea foru-arauan, B eta J ataletan jasota dagoana, edo bardintasunerako foru arauaren 5. artikuluan ezarritakoa, ekintza positiboko neurriak gauzatuz; bete daigun 8. artikulua be.

Zergaitik ez dogu bultzatzen norberaren bizitza, familia eta lana bateratzen eta zaintzan erantzunkidetasuna lortzen laguntzen daben programak eta zerbitzuak indartzea edo

sortzea? Gainera, orain arte aitatu diranak baino gehiago daukaguz, askoz gehiago. Baina, era berean, foru-arauaren 46. eta 59. artikulua daukaguz, eta hor esaten da, enpleguaren, ekonomiaren eta lurraldearen garapenaren arloan, kalidadeko enplegua daukien eta lan-merkatuan emakumeen presentzia sustatuko daben politikak garatuko dirala, lana, familia eta bizitza pertsonala hobeto bateratuz, gizonen etxeko lanetan eta familia-zaintzan daukien erantzukidetasunetik abiatuta. Edo I. atala be badaukagu, artikulua horretan bertan, 54. artikuluan, emakumeen eta gizonen lana eta bizitza pertsonala eta familiarra bateragarri egitea bermatzen daben neurrien alde egiten dogu, bai eta etxeko lanen eta familia-arretaren erantzukidetasuna sustatzearen alde be.

Jarri daiguzan martxan holako neurriak, bete daigun eta errespetatu daigun onartuta daukagun bardintasunerako foru-araua. Bestela, zer zentzu dauka? Eta zer zentzu dauka beste foru-arau barri bat sortzeak, bietako bat be beteko ez badogu? Barriro dinot, ados gagoz eta bat gatoz bardintasunaren eta kontziliazioaren arloan asko dagoala aurrera egiteko eta hobetzeko. Garatu eta bete daigun bardintasunerako foru-araua, tresna dalako, eta neurriak, ditugunak, hor ditugulako. Bete daiguzan. Hor daukaguz, baina hor dagoz, danari eusten deitsan papel batean jasota. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Cabornero Alor. Y tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias señora Presidenta. Beno, argudio batzuk zehaztu, zabaldu eta kontrajartzeko hemen esan izan diran gauzei.

Lehenengo eta behin, uste dot guztiok aitortu behar dogula bat gatozala bgauza baten, hau da, agenda politikoan kontziliazino erantzukideak izan behar dauen balioan. Horregaitik, nik guztioi gonbidatuko zaituet desbardintasunak alde batera ixtera eta, hala eretxi ezkerok, estaduko gaia esaten dana bihurtu daigun, are gehiago, gizarte-mailako itun bat sinatzeko arrazoia izan leiteke, holan segurutik bardintasunean ez eze, zorientasunean be hazteko gai izango gara eta. Ez nator bat proposamen-egileagaz, eta nire lehenengo hitzaldian esan dot, proposatzen deuskun tresna, eta ez nator bat, ze ez dogu legerik egiten jakinda ez daukagula eskumenik, hori astakeria hutsa da.

Eta gainera, zuek, normalean hain zehatzak eta blokearen hain defendatzaile sutsuak zarienok, bloke konstituzionala deitu izan dan horrena, batzuek apur bat aldatu edo eguneratu gura dogunean danetarik esaten deuskuzuenak, esan lei orain, bat-batean, ez dakizuela lan-arloko eskumen guztiak adibidez, estaduaren eskumen eskusiboak dirala. Sinestezina egiten jat, Fernández andrea. Bai esango deusut kontziliazino erantzukideagaz zerikusia daukan beste esparru baten, badagoala arlo bat, bardintasunarena, bion eskumenak dagozala, eta hor jardun dogu administrazino guztiek, eta erakunde guztiek, estadu mailan, autonomia-erkidego mailan, Batzar Nagusien mailan, eta hor sortu genduan gure bardintasunerako foru-araua, eta hor jasoten da, hain zuzen be, nire aurretik berba egin dabenek esan dabene moduan, artikulua sorta bat, hain zuzen be, kontziliazino erantzukidea bultzatzeko, foru mailan, baina aldi berean bizkaitarrengan be eragina euki daian.

Baina arauak, legeak eta legegintza-ekoizpeneagaz zerikusia daukan guztia edkiteaz gainera, kontziliazino-planak be badaukaguz, Furundarena andreak adierazi dauenez, eta, gainera, kasualidadez, plan horreek maila autonomikoa daukie. Errealidadea apur bat deskribatzeagaitik baino ez. Eta, beraz, ez dakit benetan nondik sortu dan edo zerk bultzatu zaituan ekimen hau hona ekartera. Bada beste guztioi esateko, aditzera emon dozun moduan, ondo geratzekoak zarie, daukazueneagaz konformetan zarie eta guk gehiago egin gura dogu; hori esateko bada, sinesgarritasuna euki behar da, eta nik be lasaitasun osoagaz esango deusut,

Espainian Alderdi Popularrak gobernau dauen bakotxean emakumeei eskubideak murriztu egin jakuzala.

Eta murriztu egin jakuz, bardintasunaren legea errekurritu zenduelako, haurdunaldia eteteagaz zerikusia daukien lege biak errekurritu egin zenduezan. Zuek, eta lege horreek zerikusi handia ddauke emakumeen askatasunaren esparruagaz, zuek, zuen tokiko erreforman, udaletatik kanporatu egin zenduezan bardintasun-eskumenak. Menpekotasun-legea geldiarazi zenduen, eta, gainera, aukera hori ezabatu zenduen, nahizta zeuk onartu emakume gehienek hartu dabela zaintzen ardurea, gizarte-segurantzan alta emoteko aukera ezabatu zenduen, eta, beraz, zuek egin zenduena izan zan zaintzak prekarizatu eta barriro etxe barruan itxi, inolako ikusgaitasunik emon barik. Eta hori, lasaitasunetik, Alderdi Popularrak Espainian gobernetan dauenean bardintasunaren esparruan zelan jokatzten dauen erakusten daben adibide batzuk aitatzearren, beste barik.

Eta amaitzeko esango dot: ez dago formula magikorik kontziliazinoaren alor horretan; bide bat egin behar da eta zeharkako politikak, sektore guztietan eragina edukiko dabenak; ez dabe ezertarako balio bardintasunezko eta besterenezinak diran baimenek, enpresek bultzatzen dabezan edo zaintzako beste sare formal batzukaz batera doazen beste neurri batzukaz batera ez badoaz. Nire aurretik berba egin daben batzuek esan daben moduan, emakumeok eskubide edo aukera berberakaz urten dogu lan-merkatura, edo hori uste genduan guk, baina gizona ez da neurri berean sartu etxean, eta hori gertatu arte ezin dogu aurrera egin, guk nahi dogunaren, bizi dogunaren eta gizarteak planteetan deuskunaren arteko talka sortzen dalako. Beraz, bide hori jorratzera animau nahi dot, beste barik, eta kontziliazinoa gai garrantzitsu bihurtu daigun, datozen urteetan agertu daiten, nire hitzaldiaren hasieran esan deusuedan moduan, estadu-gai horreen antzera, eta gai izan gaitezkan gai horretan estadu-itun bat sinatzeko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Gil Llanos. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ildia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Gracias. Es cierto que sí, que ya es hora de pasar de las palabras huecas a los hechos, y es cierto que costó mucho sacar adelante la norma foral de igualdad de 2018. Que puede ser mejor esta norma foral, claro, pero también es un buen instrumento para avanzar en la corresponsabilidad en Bizkaia. Y, además, el hecho de que se haya hecho conjuntamente con la aportación de grupos políticos y agentes aporta un plus. Por lo tanto, podríamos decir en mayúscula que tenemos un buen instrumento. Ahora, ¿se ha utilizado esta herramienta de forma eficaz hasta ahora? ¿Se hacen valoraciones? Sabemos que en las cláusulas sociales aparecen las medidas a adoptar en la contratación, pero ¿se controla ese cumplimiento? ¿Se ha hecho algún balance? Sin duda encontraremos la validez de la norma foral de igualdad en esas respuestas. De momento, recientemente hemos recibido los datos de 2019 que solicitamos por escrito.

Nire taldeak eskatutako erantzunetik jaso barri doguzan datuen ganean, zer esan? Foru Aldundiko langileen erantzunkidetasunari jagokonez, egundokoak dira, egia da 2019ko datuak dirala, baina badakigu danok 2020. urtea askoz okerragoa izan dala. Pandemiaren ondorioz, gogorrago agirian geratu da zaintzak emakumeen esku dagozala ia bakar-bakarrik, erantzunkidetasuna oraindino txakur-amesa dala guretzat. Lehengo egunean irakurri neban pandemiako urte honetan bizitzak gainezka egin dauela. Eta nik gaineratuko neuke gainezka egoan emakumeen bizitza urpetu dauela. Bardintasunerako foru-arau bat daukagu, gure eskumenari jagokonez, bidea egiten jarraitu leikena eta jarraitu behar dauena, eta emakumeei jagokun lekua emon behar deuskuna, ez gehiago eta ez gitxiago.

En la obra "La democracia patriarcal vasca" de Jule Goikoetxea se muestra que la situación que tenemos aquí es igual que la del estado español, ya que nos situamos en el sistema mediterráneo. ¿Qué significa eso? Pues que las tareas de cuidado están absolutamente familiarizadas, y también que están mercantilizadas. La desfamiliarización y la publicación son imprescindibles para hacer frente a ambas.

Eta hor bai, bat nator Fernández andreagaz bardintasun-arau bat izateagaz ez konformatzeari jagokonez. Zuzentarau, jarraibide eta printzipio jakin batzukaz.

¿Por qué? Porque esta Diputación tiene mucho que decir, sobre todo en las políticas de cuidado de los mayores, por ejemplo, y lamentablemente, hoy por hoy, el camino que ha elegido esta Diputación no desfamiliariza ni publica los cuidados. El camino es el contrario y estas políticas perpetúan el trabajo de cuidado de las mujeres. Este tipo de políticas dejan en nada muchos de los principios de la norma foral de igualdad, mientras la corresponsabilidad sigue siendo una quimera en este país. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Ilardia Olangua. Y para terminar el debate, tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Furundarena Olabariaga.

La Sra. **FURUNDARENA OLABARRIAGA** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Fernández andrea, nik ez dot esan kontziliazinoan dana asmatuta dagoanik, esan dodana da badaukagula arau bat oinarri bat emoten deuskuna kontziliazinoan aurrera egiteko neurriakaz, eta baliabideakaz aurrera egin ahal izateko; erantzukidetasunean oinarritutako kontziliazinoa. Hori da esan dodana, ez dot esan kontziliazinoan dana asmatuta dagoanik. Beraz, guk aurrera egin behar dogu, noski, egiteko asko dagoalako, egiteko asko. Eta gaur hona ekarri deuskuzun proposamena, hau da, tresna barri bat sortzea, ez dot uste aurrera egiten lagunduko deuskunik; uste dot, tira, ez dakit zertarako ekarri dozun, egia esan, ez dot oso ondo ulertzen, baina, ikuspuntu ukigarritik, kontziliazino-plana erakunde baten emakumeen eta gizonen bardintasuna bermatzen daben neurrien zati bat baino ez da, eta langileen politikako gai guztiak biltzen dituan jarduera-multzo ordenatu baten datza.

Badira neurri batzuk langileen sarbideari eta hautaketari jagokonez, neurriak prestakuntza-planean, lanpostuak beteteko planean, jazarpenaren aurkako protokoloan, prebentzioaren eta osasunaren arloko neurrietan, eta guztiek osotzen dabe multzo bat, ikuspegi argiago batetik. Horregaitik, gaur planteatzen dozuna moduko barne-araudi espezifikoko bat kontziliazino-neurrien alderdian bakarrik zentratzen bada, gure ustez labur geratuko litzateke, eta, gainera, ez litzateke zehatza izango baldin eta bardintasunari buruzko foru-arauaren 27. artikulua betetea bada helburua, ze horrek langileen politikaren alderdi guztiak inplikatzeko dituen, kontziliazino jarduera gauzatzeko alderdian zentratuko litzateke, baina ez leukez kontuan hartuko honeek: lanpostuetan edo personen arteko hartu-emonak beharlekuan, lanpostu publikoetarako sarbidea, prestakuntza edo promozinoa, lanpostuak betetea eta karrera profesionala, besteak beste.

Adibide oso grafiko bat jarrita, eremu bateko zebra-bideen zirkulazinoari buruzko erregulazinoa egitea bezala izango litzateke, eremu horrek bide-zirkulazino arauak arautzea eskatzen dauenean, hau da, seinaleentzako erespideak, espaloietako portaera, semaforoetako pasabidea eta, zelan ez, zebra-bideak.

Por lo tanto, para finalizar y resumiendo, tenemos un gran trabajo en la resolución del tema del cuidado y la conciliación, que es una cuestión que hay que conseguir

desde la igualdad, por lo que el reto, el verdadero reto, es conseguir la igualdad de mujeres y hombres, y para lograr la igualdad real tenemos que dar infinidad de pasos, todavía, poner un sinfín de medidas y herramientas, adaptarlas, desarrollarlas y evaluarlas. Lo de conseguir la igualdad es una cadena larga, y lo de la conciliación es un eslabón de esa larga cadena, importante, muy importante, pero un eslabón. Por tanto, no vemos la necesidad de una norma foral que regule expresamente la conciliación, ya que, como se ha dicho, la norma foral de igualdad recoge bien en el artículo 27 dicha pretensión dándole un tratamiento integral. Y como he dicho, ya existen instrumentos y medidas que contribuyen, o facilitan, la conciliación de los trabajadores de la Diputación. Por lo tanto, la pregunta es, ¿para qué hacer un texto expreso para regular parte del asunto, cuando el tema está recogido de forma integral con el texto normativo que ya está en vigor? Y nuestra respuesta es: para nada. No consideramos necesaria una nueva regulación que regule expresamente el tema de la conciliación. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Furundarena Olabariaga. Y terminado el debate, debemos someter a votación la Proposición no de Norma. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Y abstenciones? El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 50 votos, con 2 votos a favor, 42 en contra y 6 abstenciones, por lo que no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Y agotado el orden del día, se da por finalizada la Junta General. Que tengan todos y todas un buen día.

Batzarra 13:08an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:08 horas.